# MEMORIA
2017

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

donostia
kultura

# AURKIBIDEA


| | |
|---|---|
| **DONOSTIA KULTURA: 2016KO BALANTZEA** | 3 |
| **EGITURA ETA BALANTZE EKONOMIKOA** | 10 |
| **KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA** | 12 |
| **DONOSTIA KULTURAKO BAZKIDEAK** | 14 |
| **SAN TELMO MUSEOA** | 18 |
| **KULTUR ETXEAK** | |
| Kultur Ekintza | 25 |
| Aiete | 32 |
| Casares-Tomasene / Larratxo | 37 |
| Egia | 44 |
| Ernest Lluch | 50 |
| Intxaurrondo / Larrotxene | 54 |
| Loiola | 61 |
| Lugaritz | 65 |
| Okendo | 69 |
| **LIBURUTEGIAK** | 73 |
| **PROGRAMAZIOA** | |
| Musika | 88 |
| Arte Eszenikoak | 91 |
| Zinea eta ikus-entzunezkoak | 95 |
| **FESTAK** | 99 |
| **JAIALDIAK** | |
| Heineken Jazzaldia 2017 | 112 |
| Fantasiazko eta Beldurrezko Zinema Astea 2017 | 116 |
| Giza Eskubideen Zinemaldia 2017 | 118 |
| dFERIA 2017 | 120 |
| dKluba 2017 | 125 |
| Olatu Talka 2017 | 127 |
| Poltsiko Antzerkia  2017 | 129 |
| **DSS2016EU LEGATUA** | 131 |
| **EKOIZPEN UNITATEA** | 133 |

# DONOSTIA KULTURAKO **BALANTZEA**




Donostia Kulturaren hileroko agenda.

## URTE ONA DONOSTIA KULTURARENTZAT, DSS2016EUK UTZITAKO “BESTONDOA” ETA GERO

* **Kultur etxeek**, Donostiako auzoetan sakabanaturik, **1.383.235 bisita izan zituzten 2017an**; gero eta bisita gehiago dituzte, eta hiriaren kultur arnasbidea dira.

* Donostia Kultura sendotu egin da elkarte, kultur eragile eta zaleentzako sarbide gisa, **zerbitzu sorta zabal bat**en bitartez.

* Dagoeneko **20 kultur atal** biltzen ditu DK marka orokorrak.

* **Donostia Kultura Klubak 100.000 bazkideen** langa gainditu du.

Donostia Kulturak bere gain hartu du gune, zerbitzu eta zenbait programa-arloren sare zabal bat kudeatzeko erantzukizuna, horien bidez **mundu guztiak izan dezan kulturarako irispidea**.

Ezin konta ahala **jarduera eta ikuskizun sustatzen ditu –2017an, 7.000 baino gehiago**–, eta horien berri emango dugu memoria honetan. Gainera, Donostia Kulturak markak hautsi zituen programaturiko jardueretan parte hartu zuten lagunen kopuruei dagokienez. Gehikuntza hori programazioaren arlo guztietan gertatu zen: Arte Eszenikoak, Musika, Zinea, Festak eta Jaialdiak; izan ere, gutxitze bakarrak liburutegien erabiltzaileen kopuruetan eta San Telmo Museoaren bisitarien kopuruan izan ziren. Lehen kasuan, hori bat dator Europan irakurketa publikoak duen gutxitzearekin; eta bigarrenean, berriz, bat dator erakusketa-programazioa Europako Kultura Hiriburutzaren ondotik atzera lehengora etortzearekin. Eta nahiz eta **DK AGENDA**ren bidez ezagutzen gaituzten **Donostiako** eta inguruetako **kultur motor baitezpadako** gisa, 2017an nabarmendu egin zen gure eskaintzaren parte garrantzitsu bat, bai gure erakundeak hartarako darabiltzan baliabideei esker eta bai hartzaileek oro har izan duten harrera onari esker. Kultur zerbitzuez ari gara, herritarren eta kultur eragileen parte hartzea berekin duten jarduera guztiez –ez bakarrik erakusketa eta ikuskizunez–.

Izan ere, Donostia Kultura etengabe ari da ugaltzen **parte hartzeko bideak**, kultur eragileei ematen dien laguntza eta sareko lana, zeina, aurreratu genuenez, nabarmendu egingo baita 2018an, 2017an ere nabarmendu zen bezala. Parte hartzeko bideok ulertzeko, eman ditzagun adibide batzuk. Honako hauetaz ari gara: urtean zehar emandako 600dik gora ikastaro, liburutegietako 461.000 mailegu baino gehiago, Egia eta Intxaurrondoko Musikagela proba-saioetarako gelak, Victoria Eugenia Antzokiko Master Classak, 20 lehiaketa baino gehiago eta horietan emandako sariak, Olatu Talkan ikusgai jarritako 174 jarduera amateurrak, Larrotxene Bideok eskainitako prestakuntza, Casares Irratiaren zerbitzua, kultur eta aisialdia-arloari emandako diru-laguntzak, Danborradetan, Inauterietako konpartsetan, Santo Tomas eguneko postuetan eta gisa horretako jaietan izandako partaide kopuru handiak –ikus-entzuleenak ez ezik–.

Ildo hori, **herritarrek egiten duten kulturari laguntzea**, ezinbestekoa da Donostia Kulturaren kudeaketan (baliabide teknikoak eta pertsonalarenak, arte-zuzendaritza, kolektiboen eta profesionalen koordinazioa, laguntza ekonomikoa, diru-laguntzak, produkzioa, eta abar, kasuan kasukoa), eta, ezbairik gabe, gure lorpen handienetako bat, harrotzen gaituena.

### NAZIOARTERAKO ERAKUSLEIHOA

Beste ildo estrategiko batean ere kokatu zen Donostia Kultura 2017. urtean, hots, erakundea bera nazioarteratzen. Horrek eragin handia du euskal sorkuntzarentzat, nazioartean erakusleihoa irekitzea esan nahi duen aldetik.

Donostia Kulturak bere gain hartu zuen 2016ko Europako Kultur Hiriburutzak utzitako ondarearen parte bat: 2017an asko hazi diren programa batzuk. Esate baterako, **Beste Hitzak / Other Words**, hizkuntza gutxituetako




idazleen arteko trukeak; **Kimu**, arte eszenikoetan prestatzeko; bai eta **Dramaturgia Berriak** programa ere, idazketa dramatiko berriak bultzatzeko.

Bestalde, nazioarteko sare batzuk indartu zituen, hala nola dantzaren inguruko **Ballet T** programa, Malandain Ballet Biarritzekin batera, eta antzerkirako **Eszena T** programa, Scène Nationale du Sud-Aquitainekin batera.

Gainera, Donostia nazioartean ezagutarazten lagundu zuen hainbat ekitaldiren bidez: Heineken Jazzaldia, dFERIA, Aste Nagusia eta Kontxako Banderako Estropadak edo San Telmo Museoko formatu handiko erakusketak.

## GIZARTE-PROGRAMA

Nazioarteratzearekin batera, Donostia Kulturak baditu beste zenbait plan zeharkako ere, hasi **Euskara erabiltzeko plan berezi**tik eta **Gizonen eta Emakumeen arteko berdintasunerako I. Plana** ezartzeraino.

Azken horri dagokionez, 2017an zenbait gauza lortu ziren, hala nola Kontxako Banderaren lehen hamar urteak bete izana emakumeen sailean, gizonen eta emakumeen estropaden sarietan berdintasuna ezartzea, Santo Tomas egunean emakumeen herri-kirolak bultzatzea, edo Heineken Jazzaldiko 13 kontzertutan emakumeak izatea buru... Horiez gainera, etengabeko lana egin zen ohiko programazioan emakumeek egindako artelanak ikusgai eta ikusgarri izan zitezen. Ahaztu gabe, noski, eraso sexistei aurrea hartzeko eta arbuiatzeko egindako lan etengabea, Festak unitatearen esku.

## DONOSTIA KULTURA TXARTELA

Urte amaieran **Donostia Kulturaren 100.000 txartelen langa gainditu zen**; 5.000 bazkide berri gehiago, gutxi gorabehera, eta **Kultura Kluba**k tamaina handia hartu du dagoeneko. Kopuru biribila da hori, Donostia Kulturak herritarren artean izan duen harrera ona eta hurbiltasuna adierazten dizkiguna, eta, bistan denez, oso harro gaude horregatik. Hala ere, konturatzen gara kopuru hori gehiago zehaztu behar dela (*), horretarako tresna analitikoak erabiliz. Nolanahi ere, gure ustez bazkide aktiboak dira % 70 baino gehiago, liburutegi-zerbitzuen erabileraz, ohiko deskontuen onuradunez edo Donostia Kulturako ikastaroetako partaideez ditugun neurtzeko bideen arabera.

Interesgarria da ikustea nola banatzen diren Donostia Kulturaren zerbitzuen eta programazioaren kontsumitzaileak. Esate baterako, **% 60 emakumeak dira**, eta gehienak Amarakoak (% 19), ondoren Grosekoak (% 14), Antigua-Ibaetakoak (% 11) eta Intxaurrondokoak (% 11). Gainera, % 78 donostiarrak dira, eta % 22, berriz, Donostialdekoak gehienak. Batez besteko adinari dagokionez, % 37k 45 eta 64 urte artean dituzte, eta % 32 20 eta 44 urteren artean dabiltza.

Azkenik, esan dezagun gero eta gehiago direla urtez urte kultura klub honen online sailean izena ematen duten bazkideak, 17.000 lagun erregistratuta egoteraino, bide horrek eskaintzen dituen abantailarik gehienez baliatzeko.



Aste Nagusiko kontzertua Saguesen.



Santo Tomas Feria.

## FESTAK

**Parte hartzeko festak dira batez ere**, eta kudeaketak oso datu esanguratsuak eskaintzen dizkigu. Esate baterako, 75.000 lagunek parte hartu zutela Santo Tomasen, 25.000k Donostiako Danborradan, eta 20.000k 2017ko Kontxako Banderaren Estropadetan.

Nolanahi ere, **Aste Nagusia** nabarmendu zen, **aurreko urteetan baino jende gehiago bildu baitzuen, 1.140.000 lagun** (% 7,9ko gehikuntza) programaturiko 460 jardueretara (% 7 gehiago). Besteak beste, Su Festen Nazioarteko 54. Lehiaketak 500.000 lagun bildu zituen gutxi gorabehera. Gainera, Aste Nagusian izan zen 2017ko berrikuntzetako bat, hots, deszentralizazioa, jaiak auzoetara hedatu baitziren; Amara, Gros eta Antiguara, besteak beste.

Azpimarratzekoa, halaber, **berdintasunaren alde** egindako lana: emakumeentzako Kontxako Banderak hamar urte bete izana ospatu zen, eta gizonen eta emakumeen sariak berdintzea; emakumeek parte hartu zuten, halaber, herri-kirolen erakustaldian, Santo Tomas eguneko azokan.

Eta bi xehetasun, huskeria ez direnak: batetik, jai guneetarako **irisgarritasuna indartzeko** egindako lana, eta bestetik, “alkoholik ez adingabeentzat” eta sexu-erasoen kontrako prebentzioan eta arbuioan festetan egindako lana.

Aipatzekoa, azkenik, **Easo Abesbatzarekiko harremana** sendotu izana, zeina 2017ko jaietako protagonista bat izan baitzen.

## LIBURUTEGIAK

**901.785 lagunek erabili zituzten** Donostiako Liburutegi Sarearen zerbitzuak (irakurketa publikorako 18 gunek osatua). Ohiko erabiltzaile kopuruari eutsi zitzaion (zertxobait gutxitu zen, Europako beste aldeetan gertatutakoaren antzera. Badirudi joera hori dagoela kultura eta aisialdiaren kontsumoan).

**Maileguen kopurua 461.000koa izan zen**; horietatik, mailegu digitalak 5.828 izan ziren. 32.106 erosketa egin ziren, **544.502 izenburu**ko funtsari erantsi zitzaizkionak. Horietatik, 87.760 izenburu Funts Historikokoak dira, Euskadiko lehen udal liburutegietako batek katalogatuak -1874an fundatua izaki-.

Donostiako liburutegiek 2017an egindako lanean –997 jarduera eta 26.806 lagun jarduerotan– **irakurketa**



© Gorka Estrada

Liburutegi Nagusia.




Kontxako arkupeetan aurtengo udan lehen aldiz martxan jarritako Eguzkiteka.

**publikoa bultzatzeko** martxan jarritako ildo guztiak nabarmentzen dira ezbairik gabe, eta batez ere gazte eta haurrei zuzendutakoak. Programa aipagarrienen artean, honako hauek: **Liburu Baby Kluba, Irakurketa digitalerako kluba, ipuinaren ordua, Bularretik Mintzora,** ***Haur literatura 0-8*** lantegia, **ipuin-kontalarien III. Maratoia, gazteentzako poesia-lehiaketa,** edo **Uhartearen Altxorra** erakusketa.

**Wikiliburutegi**akekin, liburutegi-zerbitzuak eduki digitalen sorkuntzari ekin zion, hots, haur literaturari eta euskal idazleei buruzko artikuluak sortzeari.

Azkenik, azpimarratzekoa da 2017an gune berri bat inauguratu genuela: **Eguzkiteka**, Kontxako Pasealekuan, zeinak harrera bikaina izan baitzuen. Urgulleko Liburutegia bezala (Damen Baterian), urte-sasoi batzuetarako liburutegia izango da, herritarrak irakurketara hurbiltzeko aisialdian.

## SAN TELMO MUSEOA

**136.000 bisita izan zituen San Telmo Museoak**, eta hori hazkunde handia da 2015arekin alderatuta (baina baita zertxobait gutxitzea ere 2016koen aldean, urte horretan Museoa Europako Kultura Hiriburutzaren erdiguneetako bat izan baitzen). Nabarmenena erakusketen programazioa eta erakusketa iraunkorreko berritasunak izan baziren ere, azpimarratzekoa da bi argitalpen-ildo berri jarri zirela martxan: **Bildumak** eta **Erronkak**. Bai eta haur eta familientzako aisialdiaren ildoari **Ipuin ibiltaria** eta **Mara Mara** jarduerak gehitzea ere.

Aipatu beharreko beste berri on bat: 2017an hobeto banatu ahal izan ziren urte osoan zehar Urgulleko Motako Gazteluko ***Donostiari begira*** erakusketarako bisitak, eta 177.000 bisita izan ziren.

Hala, bada, **313.000** izan ziren **San Telmo Museoak kudeatzen dituen guneetan jasotako bisitak**.




*Espazioaren barrea* (Guernica).

# DONOSTIA KULTURAKO **BALANTZEA**




Bidehuts 10 urte kontzertua.



*Errementari* filmak irabazi zuen Fantasiazko eta Beldurrezko Zine Astea.

## KULTUR EKINTZA

Auzotarrak harro daude Donostiako kultur etxeez, eta, oro har, donostiar guztiek jotzen dute haietara, kultur etxe bakoitzak duen espezializazio-esparruak erakarrita.

Kultur Etxeetan ere asko ugaldu ziren bisitak 2017an: **1.383.235 bisita**, hots, % 8 gehiago. Gainera, **6.688 jarduera** egin ziren, eta 352.040 lagunek hartu zuten parte haietan. Ikastaroak ere, harrera onena duten eskaintzetako bat, gehiago izan ziren, eta **10.378 lagun**ek eman zuten izena kanpainako **556 ikastaroetan**. Horrek esan nahi du % 21eko hazkundea izan zuela eskaintzak.

Azpimarratzekoa, halaber, **Musikagela**ren eginkizuna. Zerbitzu horrek proba-saioetarako aretoak eskaintzen dizkie musika-taldeei, hala Egian nola Intxaurrondon; eta 2017an aholkularitza-zerbitzua eta maketak grabatzeko ekipamenduen alokairu-zerbitzua gehitu zitzaizkion. Hor ditugu **Larrotxene Bideo**k ikus-entzunezkoetan eta **Casares Irratia**k audioaren arloan eskainitako zerbitzu espezializatuak ere.

Azpimarratzekoa, halaber, kultur etxeetako **aldi baterako erakusketetan 110.000 bisitari**tik gora izan direla.

## PROGRAMAZIOA

### Musika

Fermin Muguruza musikariak jaso zuen 2017ko **Adarra Saria**. Urte horretan, 70 kontzertu izan genituen, Victoria Eugenia Antzokikoak (46), Antzoki Zaharrekoak (8) eta Kursaal Eszenaren programazioan sartutakoak (16) batuta; eta kontzertuotan 25.000 ikus-entzule izan ziren. Horiei gehitu behar litzaizkieke **dKLUBA** zuzeneko musikaren programako 64 kontzertuetan izandako 17.467 lagunak. Nabarmentzekoa, programa horretan, Intxaurrondo Kultur Etxearen eskaintza, emanaldi askotako sarrerak agortu baitzituen. Hala, kultur etxeetako kontzertuetan 31.881 lagun izan zirenez, esan dezakegu **231.381 lagun bildu zirela Donostia Kulturaren kontzertuetara**. Hor sartzen dira Heineken Jazzaldia eta beste zenbait ekitaldi ere (Musikaren eguna, Glad is the Day, eta abar).

### Zinea eta ikus-entzunezkoak

41.546 lagun izan ziren Victoria Eugenia Antzokian eta Antzoki Zaharrean programaturiko 142 saioetan. Bi jaialdi handienak nabarmendu ziren: Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea eta



Bebe.

Giza Eskubideen Zinemaldia, zeinetan 10.000 ikus-entzule izan baitziren bakoitzean. Erabat sendotuta dago, halaber, euskarazko zinemaren **Tinko** programa, ikastetxeei zuzendua, zeinean 7.021 lagunek hartu baitzuten parte. Eta **Larrotxene Bideo**, 3.080 lagun hartu baitzituen bere lantegietan. Kultur etxeak batuta, esan dezakegu **51.612 ikus-entzule** izan zirela arlo honetan.




52 Heineken Jazzaldia.

## Arte Eszenikoak

**97.070 lagun izan ziren Antzerki eta Dantza ikuskizunetan** 2017an, Donostia Kulturaren lau gune eszenikoetakoak batuta. 2017an, bi ospakizun gailendu ziren: ***Alicia Amatriain: Donostia bihotzean*** gala eta **Aukeranen 20. urteurrena**. ***Francoren bilobari gutuna*** antzezlanak irabazi zuen euskarazko antzerkiarentzako **Donostia Antzerki Saria**. Handia izan zen **Eskolatik antzerkira** eskola-programak izandako harrera ere, 8.355 ikus-entzule izan baitzituen. Eta **Poltsiko Antzerkia**n, berriz, formatu txikiko 29 ikuskizun izan genituen, eta 2.700 lagun izan ziren haietan. **Kale-antzerki**ko 48 funtzioetan, berriz, 12.000 lagun. Horiez gainera, hor ditugu **dFERIA** jaialdia eta **Ballet T** eta **Eszena T** programak, biak ere hazkunde nabarmena izan zutenak.

### JAIALDIAK ETA PROGRAMAK

Herritarrek parte hartzeko jaialdiak, **Olatu Talka**k, 33.000 lagun bildu zituen 174 jardueratan, zeinetan 2.000 eragilek hartu baitzuten parte; gehienak, kultur elkarteak. Urteko literatur hitzordu behinenarentzat, **Literaktum**entzat, 2017a hazkunde-urtea izan zen, hala programazioan nola programa berriak –**Literaktum txikia**– sortzeari dagokionez. Jaialdia datak aldatu eta azaroan egin zen. **Glad is the Day** jaialdiari dagokionez –DSS2016EUk utzitako ondarearen parte bat–, abuztuan egin zen, eta 16 musika-taldek jardun zuten.

Donostia Kulturaren musika-jaialdi nagusiak, **Heineken Jazzaldiak, 156.000 ikus-entzule bildu zituen** 2017ko edizioan, zeinean Alderdi Ederreko lorategiak berriro erabili baitziren jaialdiaren agertoki gisa. **Txikijazz** programa dagoeneko sendoaz gainera, ikus-entzunezko proiektu handi bat eskaini zuen, ***Poem of a Cell***, Stefan Winter soinu-artistarena. Guztira, 105 emanaldi 17 agertokitan.

**Giza Eskubideen Zinemaldia**k Deepa Mehat zinegile hinduari eman zion sari berezia, eta ***Errementari*** euskal produkzioak arrakasta izan zuen **Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea**n aurkeztu zen unetik.

**dFERIA**k, 30 ikuskizun eta 11 agertoki (Kutxa Kultur Tabakalera gune berri gisa eta Antzoki Zaharra SGAE gune gisa estreinatu zirelarik), 13.000 ikus-entzule bildu zituen lau egunetan Arte Eszenikoen Feria horretara. 423 profesional akreditatu




Olatu Talka jaialdia.




*Alicia bihotzean* gala.

ziren, eta 5.113 lagunek parte hartu zuten jarduera paraleloetan. 2017an, Dferia Abroad programa bultzatu zen, Donostiako jaialdia nazioartean kokatzeko eta hartara euskal konpainien bultzagarri izan dadin.

## EKITALDI ETA EMANKIZUNEN PRODUKZIOA

Programazio horren guztiaren atzean produkzio talde tekniko osoa dago. 2017an **750 produkzio** egin zituen, hots, aipaturiko jaialdi guztiak eta ohiko programazioa, eta gainera Kursaal Eszenako eta Musika Hamabostaldiko kontzertuak. Ekitaldiei dagokienez, talde horri dagozkio **Konstituzio plazaren 200. urteurrena** eta **Orfeoi Donostiarraren 120. urteurrena**, **Alicia Amatriaini egindako omenaldia** eta **Donostiako Urrezko Danborra** izendatzea.

## IKUS-ENTZULE BIRTUALAK

Donostia Kulturaren web orriak, ez dezagun ahaztu, 20 marka biltzen ditu bere baitan (**), eta 2017an **bi milioi bisita** baino gehiago izan ziren (2.432.798), aurreko urtean baino % 10 gehiago. Nabarmentzekoak sarrerak saltzeko orrialdearen hazkundea (% 49), dklubarena (%36) eta Victoria Eugenia Antzokiarena (% 18).

2017an, gainera, **Aste nagusirako web berezi bat** sortu zen, eta lehen astean 100.000 bista izan zituen. Gairik kontsultatuenei dagokienez, honako hauek dira, eta ordena honetan: kultur agenda, liburuak mailegatzeko katalogoa, Donostiako Aste Nagusia, San Telmo Museoaren programazioa eta Heineken Jazzaldia.

Gainera, Donostia Kultura **117.375 jarraitzaile izatera iritsi zen sare sozial nagusietan**, hots, % 15eko gehikuntza izan zuen. Amaitzeko, goraipatzekoa da **Casares Irratia**k –udal irratia– egindako kultur dibulgazio-lana.

**117.375**
**jarraitzaile**
**SARE SOZIALETAN**

(*) Aldika galbahea pasatzen bada ere, baliteke zenbaki horretan akatsen bat egotea, direla galdutako edo erabili gabeko txartelak, direla noizbehinkako bisitariak, heriotzak, eta abar.

(**) Donostia Kultura markak: San Telmo Museoa, Heineken Jazzaldia, Victoria Eugenia Antzokia, Olatu Talka, Antzoki Zaharra, dKLUBA, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea, dFERIA, Giza Eskubideen Zinemaldia, Poltsiko Antzerkia, Literaktum, Casares Irratia, Ballet T, Escena T, Beste Hitzak&Other Words, Txikijazz, Eskolatik Atzerkira, Larrotxene Bideo, Musikagela, Adarra Saria, Eguzkiteka, KIMU eta horiez gainera, kultur etxeak eta Donostiako jai-ekitaldien izenak.

# EGITURA ETA BALANTZE EKONOMIKOA

## ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

**Lehendakaria**
ENEKO GOIA LASO

**Lehendakariordea**
MIREN AZKARATE VILLAR

**Batzordekideak**

- **PNV**: Xabier Peritz Mendizabal, Jon Insausti Maisterrena
- **PSE-EE**: María Luisa García Gurruchaga, Alfonso Gurpegui Ruiz
- **EH BILDU**: Amaia Almirall López de Luzuriaga, Naiara Sampedro Pérez
- **PP**: José Luis Arrúe Pintó
- **IRABAZI**: Loïc Alejandro

## ZUZENDARITZA TALDEA

Zuzendari-gerentea: **Jaime Otamendi**

Zuzendariaren Laguntzarako teknikaria: **Imanol Galdos**

Administrazioa eta Baliabideak:
**Rebeka Gallastegi**

Ekonomia eta Finantzak:
**David Feijoo**

Liburutegiak:
**Arantza Urkia**

Kultur Etxeak:
**Jon Aizpurua**

Zinema:
**Josemi Beltrán**

Komunikazioa eta Irudia:
**Jaione Askasibar**

Festak:
**María Jesús Torres**

San Telmo Museoa:
**Susana Soto**

Musika:
**Miguel Martín**

Produkzioa:
**José Ignacio Abanda**

Antzerkia eta Dantza:
**Norka Chiapusso**

## 2017KO AURREKONTUA

Gastuak guztira:
**27.367.500 €**

Diru sarrerak guztira:
**5.648.272 €**

Udalaren diru ekarpena:
**21.719.228 €**

# EGITURA ETA BALANTZE EKONOMIKOA

## DONOSTIA KULTURAKO BARNE PLANAK

**Euskararen Erabilera Plan Zehatza:** 2013an Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana diseinatu eta onartu zen, 2014an euskararen egoeraren diagnostikoa osatu zen eta Erabilera Plan Zehatza definitu zen 2014-2019 tarterako. 2017an Erabilera Plan Zehatzaren garapena indartu zen.

**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana:** 2014an Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2014-2017) onartu zen eta 2017 urte garrantzitsua izan zen haren garapenean. Donostia Kulturak egiten dituen ekitaldien bidez ere berdintasunaren aldeko lana egiten da eta horren adibide da Emakumezkoan Kontxako Banderaren 10. urteurrena dela eta 2017an egindako erakusketa, arraunean gizon-emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatzeko.





### NAZIOARTERATZEA: GERO ETA INDARTSUAGOA

Aurreko urteetako joerari jarraituz, 2017an nabarmendu egin zen zeharo Donostia Kulturak nazioarteratzearen esparruan egindako bidea. Pafos (Txipre), Aarhus (Danimarka), Lisboa(Portugal), Dublin (Irlanda), Milan (Italia), Husum (Alemania), Bitola (Mazedonia), Leewarden (Herbehereak), La Valeta(Malta) Leeds (Britainia Handia), besteak beste, izan ziren gure erakundearen presentzia ezagutu zuten hiriak. Horietan azpimarratu behar dira, Aaarhus, Leeds edo Husum-en Nazioarteko Kongresuetan emandako hitzaldiak.

Bestalde, gurera etorritakoak ere ugari izan ziren. Munduko bazter guztietako ikasleak, Unibertsitateko ikertzaileak eta kultur eragileak hartu genituen: Herbehereak, Kolonbia, Austria, Estatu Batuak, Nikaragua, Frantzia, Frisia, Britainia Handia... Gehienetan, Donostia Kulturaren berri zehatza eman zaie. Beste batzuetan, eta ez gutxietan, Nazioartean Donostia Kulturaren eredua aztergai hartu eta Master edo Doktorego mailako lanak egiten ari dira. Horietan gure aholkularitza eta laguntza osoa eman zitzaien.

Ez da zalantzarik gerora esparru honek indartzera joko duela. Donostia Kulturaren eskarmentuak, tamainak eta eskaintzak Nazioartean interes berezia sortzen du. Nazioarteko egitasmoetarako bazkide fidagarria da, halaxe ikusten gaituzte.

# KOMUNIKAZIOA ETA **IRUDIA**




Donostia Kulturaren hileroko agenda.

Donostia Kulturaren **Komunikazio eta Irudi departamentuak** erakundeare irudi kohesionatua kudeatzen du, eta, bertan, beste 16 kultur marka biltzen dira (Victoria Eugenia Antzokia, San Telmo Museoa, Donostia Kultura Festak, Heineken Jazzaldia, Olatu Talka, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea, dKLUBA, Literaktum, dFERIA, Beste Hitzak-Other Words, Giza Eskubideen Zinemaldia, Musikagela, Casares Irratia, Txikijazz, Larrotxene Bideo eta Korner festibala).

Hala, Donostia Kulturaren **Prentsa Kabineteak** erakundearen komunikazio-beharrei erantzun zien 2017an ere, hala programa espezifikoei dagokienez –agenda, jaialdiak, zikloak, eta abar– nola zerbitzu-eskaintzari dagokionez –ikastaroak, liburutegi-zerbitzua, espazioen kudeaketa, eta abar–.

Horretarako, emanean jardun zuen, 2016ko datu hauek adierazten duten bezala:

- 140 prentsaurreko
- 77 literatur aurkezpen
- 2.700 agerraldi inguru idatzizko komunikabideetan
- 229 dosier gaikako
- 348 programa (gonbidapenak, liburuxkak, kartelak...)
- 300 prentsa-ohar
- 371 iragarki prentsa idatzian
- 63 e.buletin bazkideentzat.
- 22 kanpaina Facebooken.

Departamentu honek, bestalde, dk bazkideentzako arreta- eta fidelizazio-politika zuzendu zuen; eta 2017an, **100.000 bazkideen langa gainditu** zen! (ikus *Bazkideak* atala).

### Donostia Kultura On line

Donostia Kulturarekin zuzenean zerikusia duten webgune guztien artean, **2 milioi bisita** baino gehiago izan zituzten (2.432.798 zehazki) aurreko urtean baino % 10 gehiago, eta donostiakultura.eus webguneak, berriz, 1.234.747 bisita izan zituen. Nabarmen hazi da, bestalde, beste zenbait webguneri egindako bisita kopurua: sarrerak.donostiakultura.eus (% 49), dkluba.eus (% 36), victoriaeugenia.eus (% 18).

Bi webgune berri gehitu zitzaizkion iaz Donostia Kulturaren plataforma digitalari: olatutalka.eus eta donostiakoastenagusia.com, azken hori 100.000 bisita baino gehiagorekin.

# KOMUNIKAZIOA ETA **IRUDIA**




Donostia Kulturaren Twitter kontuaren irudia.

2017an, hau izan zen ikusiena:

1.- Donostia Kultura Agenda atariaren erakargarri nagusia izan zen, unean uneko kultur eskaintzarik osatuena biltzen baitu.

2.- Donostiako liburutegietako mailegu-kontsultak.

3.- Heineken Jazzaldia.

4.- Donostiako Aste Nagusia.

5.- San Telmo Museoa.

Webgune horietako sarbideari dagokionez, gero eta ohikoagoa da herritarrak gailu mugikorretatik sartzea eta kasu batzuetan (jaialdiak, Aste Nagusia...) jende gehiago sartu zen gailu mugikorren bidez mahai gaineko ordenagailuen bidez baino. Donostia Kulturaren plataforma orokorrari dagokionez, portzentajea bere horretan mantendu da, batez ere liburutegietako mailegu zerbitzuaren eraginez.

| | | |
|---|---|---|
| Desktop | 699.927 | % 56,49 |
| Mobile | 456.274 | % 36,82 |
| Tablet | 82.864 | % 6,69 |

Donostia Kulturak, % 15eko igoerarekin, 117.375 jarraitzaile baino gehiago ditu sare sozial nagusietan: 65.771 Twitterreko kontuetan, eta 40.004 Facebookekoetan; horiez gainera, 10.702 jarraitzaile Instagramen, eta 898 Linkedinen.

Casares Irratia, 24 orduz emititzen **Casares Irratiak** 23 irratsaiorekin osatutako programazioa eskaini zuen. Horietatik 9 saio Arrosa sarearen bidez eskaini zituzten, eta 14 Casaresen ekoitzi ziren, irrati-tailerreko partaideek, kolektiboek, edo irratiko lantaldeak eginak, edo sail-arteko lankidetzan.

***HAMAIKA ENTZUTEKO!***
***III.* Irrati-piezen lehiaketa** antolatu zen. Urtez urte handituz doa eta 2017an nabarmen igo zen partehartzea: 54 lan jaso ziren, 2016an baino 34 gehiago. Saritutako piezen berri emateko ekitaldi bat egin zen Victoria Eugenia Antzokiko Club Aretoan. Ekitaldi horretan, saritutako lanak entzuteaz gain, zuzeneko irratiantzerkiaz gozatzeko aukera ere izan zen: **Patxi Santamaria**k eta **Mikel Ibañez**ek ***El barril de amontillado*** Edgar Allan Poeren lana eskaini zuten, **Inko Martin**ek moldatua eta zuzendua.




Casares irratia.

# DONOSTIA KULTURAKO **BAZKIDEAK**

**+ 100.000 pertsona**

**Urte amaieran Donostia Kulturak 100.000 bazkideen muga gainditu zuen, hau da 100.000 lagun baino gehiagok dute arretarako eta fidelizaziorako Donostia Kultura txartela. Kultur kontsumitzaile aktiboak zeintzuk diren zehaztea ahalbidetuko digun garbiketa prozesuaren zain (epe laburrean horri ekitea espero dugu), datuak adierazten digu bi donostiarretik edo bisitaritik batek duela DK txartela.**




**DK, Donostiako kultur kluba**

Urte amaieran, 100.461 bazkide zituen Donostia Kulturak (% 77, donostiarrak), hots, DK txartela, zutenak, 2017an egindako 4.566 bazkide berriei esker. Horietatik, ia % 60 emakumeak dira, eta Amara da bazkide gehien dituen auzoa, % 19,12rekin, eta ondoren, Gros (% 13,95), Antigua-Ibaeta (% 11,34) eta Intxaurrondo (% 11,22) datoz.

Txartel horren bidez, helburu unibertsal bat bete nahi da: herritar guztiei kulturara hurbiltzeko bidea erraztea; horren adibiderik onena udal liburutegiak dira (liburuak maileguan hartzeko identifikazioa eta abar), oso erabilera handia baitute. Horrez gainera, ikus-entzuleria fidelizatu nahi da, programazio artistikoaren bidez. Beste horrenbeste esan daiteke San Telmo Museoaz eta Victoria Eugenia Antzokiaz, Antzoki Zaharraz, Imanol Larzabal aretoaz, Intxaurrondoz, Larratxoz eta Gazteszenaz: DK txartela dute horiek guztiek tresnarik onena bazkideei informazio hautatua, deskontuak eta zozketak eskaintzeko.

Abantaila guztiak daude ikusgai bazkideen online atalean, zeinaren xedea abantaila gehiago eskaintzea baita, eta 17.000 lagun daude guztira online erregistratuta.

Hona hemen Donostia Kulturako bazkideen mapa, gaur egun:

**Bazkideak udalerriaren arabera:**



# DONOSTIA KULTURAKO
# BAZKIDEAK

Bazkide donostiarrak: auzoka




**Guztira 78.040**

# DONOSTIA KULTURAKO
# BAZKIDEAK

**Bazkideak adin-tarteen arabera:**




**Bazkideak sexuaren arabera:**



# DONOSTIA KULTURAKO
# BAZKIDEAK

**Bazkideen garapera 2007-2017:**

Urtero izena emandako bazkide berriak:




Bazkide kopuruaren garapena azken hamar urteotan:



# SAN TELMO
MUSEOA




San Telmo Museoko aurrealdea.

2017. urtea jardueren eta programazioaren ohiko erritmora itzultzeko urtea izan zen, Donostiaren Kultura Hiriburutzak 2016an mugarri garrantzitsua jarri ondoren Museoan ere.

Emaitzak onak izan ziren, bai jarduerei eta erakusketei zegozkienak, intentsitate- eta kalitate-mailari eutsi baitzieten, eta bai Museora etorritako jendearen aldetik ere, **bisita kopuruak** gainditu egin baitzituen hiriburutzaz aurreko datuak, eta **136.000tik gora i**ritsi baitzen.

Museoaren **barne-lana** zenbait ildotan egin zen, hasi zenbait **pieza zaharberritzetik** –Museoaren eginkizunetako bat baita ondareaz arduratzea– eta sare sozialetan agertu edo Museoko bildumei nahiz beste jarduera batzuei buruzko **argitalpenak** martxan jartzeraino –eta hori da Museoaren beste eginkizun nagusietako bat, herritarrengandik hurbilago egotea eta gure jardueren eta jakintzaren berri ematea–.

Orobat, Museoaren **hezkuntza-ildoa berritu eta indartu** zen, eta ondorio onak izan zituen horrek. Azpimarratzekoa da, halaber, urtebete eta lau urte arteko haurrentzako lantegien arrakasta, eta +55 Kultur Gidak ildoen sendotzea, programari gida berri bat gehitzearekin batera.

**Erakusketek**, ohi bezala, era **askotako gaiak** jorratu zituzten: Hitchcock, arte garaikidea, Museoko argazki-funtsen hautapen bat, margolanak, *Guernica*ri egindako omenaldia sortu zeneko 80. urteurrenean…

Beste urtebetez, Urgulleko erakusketak –*Donostiari begira*– aurreko urteetan baino bisitari gehiago izan zituen.
Museoak **991 bazkide** zituen urtearen amaieran.

## Ondarea

Bildumen eta dokumentazioaren arloan, nabarmentzekoa da, batetik, **sarrera eta mugimenduak kontrolatzeko lana** eta bildumak **Gordailuko** biltegietan egokiago ipintzeko lana; bestetik, bildumak **erregistratzeko eta dokumentatzeko** zeregina, bildumak kudeatzeko eta dokumentatzeko **EMSIME sistemaren** barruan. Bi ildo horiek hartu zuten eguneroko lanaren parte handi bat.



© O. Moreno

+55 Kultur Gidak programako bisitak sendotu egin ziren.

# SAN TELMO MUSEOA



© O. Moreno

*12+1. Arte Ederretako udal bekak* erakusketa ikerketa lanaren ondorio izan zen.

Izan ere, 2017. urtean ingurune eta tresna berri horietara egokitzea izan zen zeregin nagusia.

**Gordailuan**, sarrerak eta mugimenduak erregistratzeko zeregin ohikoaz gainera**, ehunen bildumak egokitzen eta kontrola hobetzen** jardun zen batik bat, eta geratzen ziren bildumen erregistroa burutu zen, batez ere Aieteko eta Mandasko dukearen jauregietako funtsetakoak. Azpimarratzekoa, halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera egindako lana, zeinaren ondorioz abian jarri baitziren lan-protokolo komunak eta erosketa-batzorde bitariko bat.

**EMSIMEn**, nabarmentzeko modukoa da gure **bildumen erregistroak berrikusten** eta Euskal Herriko Museoen katalogo kolektiboa argitaratzen egindako lana. Tresna horri esker, web bidez egin daiteke argitaratze hori, eta edonoren esku jarri bai gure bildumak eta bai proiektu horretara bildutako beste museoenak. Une honetan, San Telmo Museoaren bildumako mila piezaren erregistroak baino gehiago kontsulta daitezke.

2017an, Museoak **208 pieza bereganatu** zituen; horietatik, 167 dohaintza bidez eta 41 erosketa bidez.

Bildumen dokumentazio eta ikerkuntza atalean, Postigo Argazki Funtsa aztertzen hasi ginen, 2016an Museoan sartua.

### Argitalpenak

2017an, **bi argitalpen-ildo berri** jarri ziren martxan. Batetik, **Bildumak i**zenekoa, Museoaren bildumei buruzko ikerketa-lanekin, eta 2017an lau zenbaki eman zituena, horietarik bi aldi baterako erakusketa biren osagarri: ***Gurutze-puntuko brodatuak San Telmo Museoan***, **Mariasun Miangolarra** eta **Eva M. Elorza**rena; ***Gipuzkoa argitara. San Telmo Museoko argazki-funtsa***, **Maria Millán** eta **Elisa Querejeta**rena; ***12+1. Arte Ederretako udal bekak (1893-1936)***, **Mikel Lertxundi Galiana**rena; eta ***Errenazimentu ezkutua Donostiako San Telmo elizan. Idiakeztarren Escorialeko kapera-panteoia eta hango margolanak. (1574-1614)***, **Pedro Echeverría**rena.

Bigarren ildoa Erronkak arloko programazioaren barruan hasitakoa da, eta izenburu horixe du. Ildo horretan, bi zenbaki argitaratu ziren 2017an: ***Feminismos, exilios, narrativas***, zenbait egilerena, eta ***Guerras, violencia y Derechos Humanos***, **Sophie Bessis**-ena. Biek ala biek ***Waste Lands*** erakusketaren inguruan egindako solasaldi eta mahai inguru batzuk jasotzen dituzte.




© O. Moreno

*Waste Lands* erakusketa.



2017an egindako zahaberritze lan baten irudia.

Azkenik, Erein argitaletxearekin batera, ***Espazioaren barrea / La risa del espacio (Guernica)*** erakusketaren katalogoa argitaratu zen, **José Ramón Amondarain**ek egina.

## Elkarrizketa eta zaharberritzea

Departamenduak ohiko eginkizunak burutu zituen Museoan, hots, erakusketa iraunkorren zein aldi baterakoen kontserbazioaz eta zaharberritzeaz arduratu zen. Azpimarratzekoa ***Gipuzkoa argitara*** eta ***12+1: Arte Ederretako udal bekak (1893-1936)*** erakusketetarako bildumen prestakuntza; biak ere Museoak ekoitziak, eta bildumaren pieza asko zaharberritzea ekarri zutenak.

Bestalde, Gordailuan bildumak egokitzeko lanean jarraitu zen, eta esan beharra dago Centro del Patrimonio Mueble Gordailuko zaharberritze-lantegiak ez zuela atsedenik izan, San Telmo Museoko zaharberritzaileek hainbat lan egin baitzituzten, bai Museoaren bildumetan, bai Gipuzkoako Foru Aldundiarenetan.

Departamendua Urgull mendiko bildumak mantentzeaz eta zaharberritzeaz arduratu zen, eta une honetan Aldundiarekin batera ari da zenbait kanoi zaharberritzen, berriz ere beren kokalekuetan ikusgai jartzeko asmoz.

Orobat, Museoak zenbait erakusketatarako utzitako obrak prestatu, lagundu eta zaindu ziren; erakusketa hauetarakoak: ***Frivolité*** (Euskal Museoa, Bilbo) eta ***Cisneros, Arquetipo de Virtudes, Espejo de Prelados*** (Toledoko katedrala).

## Erakusketak

Museoaren **erakusketa iraunkorrean**, geletako testuetan **frantsesezko eta ingelesezko testuak** sartzeko proiektuari ekin zitzaion 2017an, eta 2018an ere aurrera jarraituko du proiektu horrek, erabat osatu arte. Orobat, hilarrien museografia berritu zen, eta ***Hileta errituak Euskal Herrian*** izeneko ikus-entzunezkoa erantsi zitzaion ibilbideari, Espiritualtasun zeinuak gai-arloaren barruan.

Aldi baterako erakusketen sailean, ***Modernitate bakan bat*** eta ***Lucia Moholy, ehun urte geroago*** izenekoek eman zioten hasiera urteari, biak ere 2016an inauguratuak.

Urtarrilean bertan, ***Jose María Sert eta Nazioen Liga. Optika eta diplomazia*** aurkeztu zen, Patricia Molins komisario zelarik, Donostiaren Kultura Hiriburutzaren programazioak Museoan zuen azken kapitulua.

Martxoa oso hilabete bizia izan zen, bi erakusketa oso desberdin inauguratu baitziren. Batetik, ***Waste Lands,*** **Piedad Solans** komisario zelarik, non, Afganistan, Aljeria, Azerbaijan, Egipto, Arabiar Emirerri Batuak, Iran, Libano, Maroko eta Palestinako jatorria zuten hamar emakume artistaren lanen bitartez, gerrek, kolonialismoaren ondorenak eta beste zenbait gatazka konpondu gabek suntsitu eta pobretutako herrialde batzuen errealitatea jorratu baitzen. Bestetik, martxoan halaber, ***Gipuzkoa irudita*n** erakusketa inauguratu zen, Museoko



Sertek itxi zuen Kultur Hiriburutzaren inguruko programazioa.

# SAN TELMO MUSEOA



Juanma Indok Afrikan sortutako lanak ikusgai izan ziren Laborategian.

bildumako 100 argazki hautatuk osatua. **Elisa Querejeta** eta **María Millán** ziren komisarioak, eta 1850 eta 1930 artean hartutako irudiez gozatzeko bidea izan zuten bisitariek. Alfred Hitchcock zinemagilea izan zen udako protagonista, ekainetik Zinemaldiaren ondorenera arte bisitatu ahal izan zen erakusketa batean: ***Hitchcock, suspensetik harago***. Erakusketa, Pablo Lorca komisario zelarik, Telefónicaren eskutik iritsi zen San Telmora, eta berak jaso zituen bisita gehien 2017an.

Urteari amaia emateko, beste bi erakusketa programatu ziren. Lehenak ***12+1. Arte Ederretako udal bekak*** zuen izenburua, eta, Mikel Lertxundi Galianak egindako ikerketa baten ondotik, Donostiako Udalak 1893 eta 1936 artean bekaz lagundutako artistek egindako lan batzuk berreskuratu zituen. Bigarrena ***Espazioaren barrea (Guernica). Jose Ramón Amondarain*** izan zen, eta Artiumekin lankidetzan egin zen, zentro hartako zuzendari Daniel Castillejo komisario zelarik. *Guernica* margolanari egindako omenaldia, herri hura bonbardatu zutela 80 urte betetzen zirela eta.

Laborategiak, berriz, proiektu interesgarriak hartu zituen, hasi ***Liñiou Faté***rekin, Bibendum bilduma bat, Juanma Indok Afrikan bildua, eta ***Second Canvas*** proiektu teknologikoraino, tartean zirela Louise Dahl-Wolferen argazkiak, hots, gaur egungo moda-argazkilarien aitzindari batenak, bai eta azken urteotako euskarazko haur literaturari egindako berrikusketa bat ere, ***Uhartearen altxorra*** izenpean.

**Jarduerak**

Museoak antolatutako jardueren sailean, bi atal bereiz daitezke. Batetik, ***Museoaren erronkak*** ildoan doazen jarduerak, zeinek gaur egungo gaiak jorratu baitzituzten; bestetik, ikus-entzule mota desberdinei zuzenduriko hainbat eta hainbat proposamenen programazioa, non musika, dantza edo ondare arlokoak sartu baitziren. Lehen atalean, 2017ko honako jarduera hauek nabarmenduko ditugu: ***Waste Lands*** proiektuaren barruko hitzaldiak eta topaketak: ***Feminismoak, erbesteak, narratibak*** eta ***Gerrak, indarkeria eta giza eskubideak***; **AGORA K2050** zikloa, iraunkortasunari buruz, Cristina Enea Fundazioarekin eta Udalarekin lankidetzan; **Europako mugak**



© O. Moreno

*Gipuzkoa iruditan.*



© O. Moreno

*Espazioaren barrea* (Guernica). José Ramón Amondarain.



Alfred Hitchcock © Album

*Hitchcock, suspensetik harago.* Alfred Hitchcock.



© O. Moreno

Museoen Nazioarteko Egunean jende asko bertaratu zen antolatutako ekitaldietara.

zikloa, errefuxiatuei buruz, Udaleko Lankidetza Arloarekin eta 5Wrekin lankidetzan; eta oroimenari buruzko zikloa, Jakiunderekin batera antolatua.

Bigarren atalean ere izan zen nabarmentzeko moduko alderdirik; esate baterako, aldi baterako erakusketen inguruan hainbeste jarduera egin izana, hala gaiei nola formatuei dagokienez: bisita bereziak, ikus-entzunezkoen bidezko solasaldiak, musika-jarduerak, mahai inguruak, artista-lantegiak, haur eta familientzako programak, festak...
**Hogei kontzertu i**nguru programatu ziren, estilo desberdinetakoak, musika-eskolarekin, Francisco Escudero kontserbatorioarekin eta Jazzaldia, Musika Hamabostaldia eta Musikagileak jaialdiekin eta musika garaikideko zirkuituarekin izandako lankidetzari esker.

Nabarmentzekoak, halaber, bi dantza-ekitaldi, Museoaren gaiekin lotuak: Kukairen ***Guernica-Gernika***ren estreinaldia eta ***Esku Harriak: Oteizaren (H)aria*** programazioa, MugMus Laborategiarena.

2017an ere izan zen ondareari, etnografiari, arkeologiari, historiari eta euskarari buruzko jardueren programazioa, eta hauek nabarmendu ziren: **Hau. Euskal Herriko objektu Tradizionalaren Diseinu Lehiaketa** delakoa eta **Bageraren 25. urteurrena**ren ospakizuna.

Haur eta familientzako aisialdiaren ildoak gero eta proposamen gehiago egin zituen; azpimarratzekoa **Ipuin Ibiltaria** eta **Mara Mara** jarduerak sendotu egin zirela, bigarrena urtebete eta 4 urte bitarteko haurrentzat.

Azkenik, San Telmok ere egin zuen udarako kultura-eskaintza: udako zinea, musika, solasaldiak eta San Telmo Gaua delakoa.

### Hezkuntza

Museoak beste bultzada bat eman zion hezkuntza-eskaintzari 2017-2018 ikasturtearen hasieratik bertatik, eta ikuspegi berri batez gainera, hau da, esperientziari garrantzirik handiena emanez.

Gainera, gehiago nabarmendu ziren ildo batzuk, hala nola hezkuntza-komunitatera gerturatzea, ikastetxe hurbilenekiko harremanak sendotuz esparru-hitzarmenen bitartez, edota hezkuntza-eragile batzuekin izandako lankidetza prestakuntza-gaietan (Berritzegune eta Ikastolen Federazioa).

Azpimarratzekoa, halaber, harremanak sendotu izana zenbait inklusio-kolektiborekin hitzarmenen bidez (Gautena, Afagi, Iresgi, Donostiako Udaleko Gizarte Ekintzako Departamendua eta Kultura Aniztasuneko Departamendua, eta abar); horiei esker, askotariko jarduerak erraztu ziren: bisita gidatuak, lantegi-bisitak, erakusketak, eta abar.

2017an, **6.000 ikaslek baino gehiago**k bisitatu zuten Museoa.



© O. Moreno

Familientzako tailerra.

# SAN TELMO MUSEOA




Facebook, Twitter, Flickr eta youtuben jarduera biziarekin amaitu zuen urtea San Telmo Museoak.

## Urgull

***Donostiari begira*** erakusketak, Urgull mendiko Motako Gazteluan, bisita kopurua handitu zuen berriz ere, eta 2017an 177.000 bisitari baino gehiago hartu zituen. Bisitariak urtean zehar banatzeko joera bat nabari da, udako hilabeteetara mugatu gabe.

## Komunikazioa

2017an zehar, komunikazio-departamenduak Museoko arloei laguntzen jarraitu zuen, eta hala, **15 prentsaurrekotik gora** eta **20 prentsa-oharretik gora** eman ziren, **publizitatea** kudeatu zuen, zenbait zabalkunde-euskarri egin zituen –batik bat aldi baterako erakusketen kasuan–, **komunikabideekiko harremanez** arduratu zen, **web-orriaren** eguneratzeaz eta sareen edukiaz, **boletinez**, hileko **agenda** paperezkoaz, zeina eguneratuta egoten baita euskarri digitalean.

Eremu digitalean, martxan jarri zen San Telmoren Facebook orria, herritarrekin komunikazio-bide berriak irekitzea helburu. Hartara, **Facebook** bidezko jarraitzaileak gehituko zaizkie Museoaren Twitter kontuan urtearen amaieran zenbatu diren **6.400 jarraitzaileei.** Web-orriari dagokionez, hiriko eskulturari buruzko orrialdea eguneratu eta berritu egin zen. **Boletin berri bat** sortu zen jarduerei buruzko informazioa emateko, familiei zuzendua bereziki, lehendik dagoenak informazio orokorra eskaintzen baitu. Hartara, **2.000 lagun** inguru Museoan antolatutako jardueren jakinean daude, informazio eguneratua izanik. Bestalde, nabarmentzekoa da **web-orriaren sakelakoentzako bertsioaren** arrakasta. 2016an jarri zen martxan, eta gaur egun San Telmori buruzko informaziorako irispide erabiliena da arlo digitalean.

## Harreman instituzionalak

Museoak instituzio eta kultura-eragile askorekin izan zituen harremanak, eta jarduerak, elkarlanak eta proiektuak egin zituen haiekin batera. Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia –Gordailua, batik bat–, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostiako Zinemaldia, Musika Hamabostaldia, Jazzaldia, Arantzadi Zientzia Elkartea, Euskadiko Filmategia, Bagera, Globernance, Jakiunde, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea, Donostiako Udaleko Lankidetza Departamentua, Ankulegi, CSIC, Donostia Turismoa, Musikagileak, Basquetour, Euskal Kostaldeko Museoen Sarea...

2017an Museoan egindako erakusketa-proiektuei esker, San Telmok lankidetzan jardun ahal izan zuen beste kulturagune batzuekin, hala nola Es Baluard, Artium, Azkuna edo Fundación Telefónicarekin.

Garrantzi berezia du San Telmorentzat babesle pribatuen ekarpenak, enpresa ongileenak eta enpresa laguntzaileenak. Honako hauek izan ziren 2017an: Kutxa, EITB, El Diario Vasco, Cadena SER, Berria, Gara, Naiz, Argia eta Hamaika Telebista. Fundación Michelin enpresa laguntzaileen taldeari atxiki zitzaion 2017an, hitzarmena sinatu baitzen datozen lau urteetarako.

| STM BISITARIAK | 136.000 |
|---|---|
| ERAKUSKETAK | 110.000 |
| JARDUERAK | 25.600 |
| URGULL | 177.000 |

**BISITARIAK GUZTIRA: 313.000**

# KULTUR EKINTZA




Julieta Venegas.

2017a lan eta sendotze urtea izan zen Kultur Ekintzan, 2016an Kultur Hiriburutzaren kari abiatutako hainbat proiekturi jarraipena eman baitzitzaien: Olatu Talka, Glad is the Day eta Kimu, besteak beste.

Berriz ere, datu orokorrek erakutsi zuten kultur etxeak oso sustraituta daudela auzoetako egunerokotasunean, eta erreferentzia eta topagune direla auzotarrentzat. Kultur etxeek **1.383.235** bisita inguru izan zuten 2017an, **6.688 jarduera** programatu zituzten guztira, eta **352.040 lagunek** hartu zutela parte jarduerotan.

Kultur Ekintzak, hiriko kultur etxeak zuzentzeaz eta zerbitzu emateaz gainera, zenbait jaialdi eta ziklo antolatzen, kudeatzen eta zuzentzen ditu, hirian pisu handia dutenak. Ondoren, Donostia Kulturako Kultur Ekintza atalak zuzentzen dituen kultur etxeen datu batzuk emango ditugu, baita arlo horrek antolatutako jarduera eta jaialdienak ere.

# KULTUR EKINTZA




Olatu Talkako Kontzertour Saguesen.

## Olatu Talka

Olatu Talka jaialdia Kultur Hiriburutzak ondare gisa utzitako proiektuetako bat da. Horregatik, 2017a oso urte garrantzitsua izan zen Donostia Kulturak eta Hiriburutzak bultzatu eta ekoitzitako jaialdi horrentzat, eta 2017an ere arrakasta handia izan zuen. **33.000 lagun** baino gehiago elkartu ziren 2017an, eta **2.000 eragile** baino gehiago aritu ziren, **174 jarduera** egiteko Olatu Talka jaialdiko hiru egunetan.

**Inaugurazio ekitaldia** udaletxeko terrazan egin zen estreinakoz eta 400 lagun elkartu zituen musika emanaldi berezia izan zen, musika mota eta estilo ezberdinak eta hainbat belaunalditako jendea elkartuta. Ederra izan zen eta oso esperientzia polita, abesbatzak eta Easo Jazz Orkestra elkartzea rock eta pop taldeekin, azken horien kantak eskainiz.

Era berean, aipatzekoa izan zen **Teresa Kalkutakoa Plazan** egin zen **Mundu Festen Topaketa.** Jendetza elkartu zen, eta oso ekimen interesgarria izan zen **kultur arteko elkar ezagutza** eta lankidetza bultzatzeko.

**Kontxa Gaumarketera** ere **jende asko** hurbildu zen, eta dagoeneko Olatu Talkako ekimen esanguratsuenen artean dago. Gau bakarretik bi gaueko jarduera izatera pasatu zen iaz eta jendearen erantzuna are hobeagoa izan zen.




Olatu Talkako Basoka.




Olatu Talkako Kontxa Gaumarket.

Kontzertuen alorrean, **65 taldek** jo zuten hiriko hainbat puntutan **Kontzertour** kontzertu zirkuituaren barruan. Errotzen ari den proposamenen artean **Basoka** aipatu behar dago, jendea elkartu baizen **Miramongo paraje berezian** musikaz gozatzera, 500 lagun baino gehiago hurbildu ziren bertara**.**



Rosa Montero Tomasene Kultur Etxean Literaktum jaialdian.

## Literaktum

Literaktum jaialdiarentzat **berrikuntza** eta **zabalpen** urtea izan zen 2017. Lehen aldiz, datak aldatu ziren eta maiatzean beharrean azaroan izan ziren jaialdiko bi asteak. Emaitzak erakutsi zuen data aldaketak on egin diola jaialdiari.

Beste berrikuntza handia **Literaktum Txikia** azpiprogramaren sorrera izan zen, hau da, haurrak eta literatura batzen dituen lan ildo berri bat. Horretarako, ipuin kontaketak, antzerkiak eta ilustrazioak eskaintzen duten lengoaiak erabili ziren haurrak irakurzaletasunera, eta beraz, literaturara gerturatzeko.

Literaktumen parte hartu zutenen artean, nabarmentzekoak dira **Almudena Grandes, Rosa Montero, John Banville** eta **David Foenkinos**. Zenbaitetan aretoak txiki geratu ziren, nahiz eta zenbait emanaldi lehenengoz streaming bidez eman ziren. Aipatzekoa da, adibidez, ***Ekialde hurbila, muinak eta ertzak*** liburuaren inguruko solasaldia **Mikel Ayestaran, Ane Irazabal** eta **Karlos Zurutuza**rekin.

Literaturaz hainbat ikuspuntutatik, zenbait hizkuntzatan eta formatu desberdinetan gozatzeko proposamen bat da Literaktum, sarean egindako jaialdia. Literaktum energia-metaketa da. Donostia Kulturako Kultur Ekintza, **Liburutegi Zerbitzua** eta **San Telmo Museoa** elkartu egiten dira **Koldo Mitxelena Kulturunea**rekin, **Gipuzkoako Liburuzainen Elkartea**rekin eta **Euskal Idazleen Elkartea**rekin, **sareko jaialdi bat** sortzeko. Taldeen elkartze horri esker, Literaktumek ertz guztietatik eta era guztietako jendearentzat ekiten dio literaturari.

## Ikastaroak

Donostia Kulturak kultur etxeetan eskaintzen dituen ikastaroek harrera ezin hobea izan zuten 2017an. 2016-2017 ikasturtean, **10.378 lagunek** baino gehiagok eman zuten izena **556 ikastaro**tan. 2017ko iraileko kanpainan, esaterako, %21 igo zen eskainitako ikastaro kopurua. Ikastaroak aspaldi eskaintzen dituzte kultur etxeek eta oso egonkortuta daude, baina kulturarekin loturako ikastaroak gero eta gehiago zabaltzen ari dira Donostia Kulturan.

Donostia Kulturako ikastaroen eskaintza askotarikoa da, bai formatuei dagokienez (ikasturte osokoak, lau hilekoak, autore-ikastaroak, haurrentzako eta gazteentzako ikastaroak...), bai edukiei dagokienez (arte plastikoak, komunikazioa, arte eszenikoak, literatura...) kulturaren inguruko trebakuntzaren arlo ia guztiak hartzen duitu.

John Banville, Literaktumen.
© Lorena Otero



## Dkluba

**Dkluba** marka berria sendotu eta indartu egin zen 2017an eta lortu du musika independentearen eta programaren arteko identifikazioa. Hala, Dklub zirkuituak lau zutarritan nagusi ditu: **kultur etxeetan** programatutako **kontzertuak**; **bertako musika taldeekin aritzea; tabernen programazioa** laguntzea; eta **kolektiboek** antolatutako **jaialdiak** sostengatzea.

**64 kontzertu** programatu ziren, eta **17.467 ikus-entzule** izan ziren kontzertuotan. Aipamen berezia merezi du **Intxaurrondo kultur etxean** antolatu ziren kontzertuen arrakastak, izan ere, hiru *sold out* gertatu ziren udazkenean ia-ia jarraian: **Glaukoma, Nuevo Catecismo Católico** eta **Bidehuts 10 urte.** Era beran, etxe horretatik pasatu ziren **Bigott, Ivan Ferreiro, 7 notas 7 colores, Hesian, Julieta Venegas, Los Tiki Phantoms, Gatibu, Cracker, El Twanguero, León Benavente** eta **Adrián Costa**.

Dklubaren beste hitzordu handi bat kalean izan ohi da, **Musikaren Eguna** ospatzeko, Fnac-ekin lankidetzan. 2017an, 3.000 lagunetik gora hurbildu ziren kaleko agertokira, Loiola kalean, **Smile, Iseo & Dodosound, Capitán Tortuga, Ladrones de Guitarras** eta beste artista batzuen emanaldiekin gozatzeko.

Aipamen berezia merezi du 2017 urtean **Glad is the Day** jaialdiak. 2016 Kultura Hiriburutzaren legatua den ekimen hori Donostia Kulturaren gain geratu da eta Dklubaren barruan integratuta geratu da zirkuituko jaialdi gisa. **Dabadaba** eta **Bukowskirekin** batera, egun osoko jaialdia antolatu zen abuztuaren 6an **Cristina Enea parkean** eta bertan aritu ziren **16 musika talde**, estilo eta jatorri oso desberdinekoak. Parkea jendez lepo bete zen eta aurrerantzean udako musika festa handia izateko bokazioa duela dirudi.


© Lorena Otero

Bigott.


© Josetxo Pérez

Chk Chk Chk.


© Lorena Otero

Amorante.



© Lorena Otero

Bi zaldi.


© Lorena Otero

Glad is the Day.



*Grandes dudas de la humidad,* Las Pituister.

## Musikagela

2017an, Musikagela zerbitzuak aurreko urteetan egindako bidean sakondu eta finkatu egin zen, eta horrela, musika entsegu saioetarako gelak eskaintzeaz gain, **aholkularitza-zerbitzua**, **maketak grabatzekoa** eta **zuzenekoetarako ekipoaren** alokairu zerbitzuak indartu egin ziren. Musikagelako entsegu gelek harreran ezin hobea dute bai Egia, bai Intxaurrondo Kultur Etxeetan, eta beteta daude ia ordu guztiak.

Orobat, zerbitzuak **dinamizazio-lan** handia egin zuen, **ikastaroak,** ***masterclassak*, lantegiak** eskainiz. **Musikagela Weekend**, bertako musika taldeen erakusleiho ezagunaz gain, Musikagelak bertako musika taldeak sustatzen ditu Dklubaren bidez. Bertako 7 talde aukeratu ziren eta bakoitzarekin bi kontzertu antolatu ziren hiriko hainbat tabernetan. Horrekin batera, talde bakoitzari **bideo-erreportaje** bat egin zitzaion, taldearen sustapenean laguntzeko.

## Poltsiko Antzerkia

**XXVI. Poltsiko Antzerki jaialdia** handikiro ospatu zen. Formatu txiki eta ertaineko antzerki-ikuskizunen jaialdiak **2.700 ikusle** inguru erakarri zituen Donostiako taberna eta aretoetan eskaini ziren **29 emanaldi**etara. Jaialdiaren **amaierako ekitaldia** urteko gertaera handien artean sartzeko modukoa izan zen.

*Tulipas*. Decopivolta.



Poltsiko Antzerkia ondo finkatutako jaialdia da, urtez urte **ikusle gehiago** erakartzen asmatu duena.

## Kale Antzerkia

2017an, kale-antzerkiaz gozatzeko aukera izan genuen Donostiako auzoetako plaza, kale eta parkeetan, eta ia **12.000 lagun** baino gehiago bildu ziren emanaldietara.

**21 lanen 48 emanaldi** eskaini ziren. Jaialdia udako hilabeetan izan zen, ekainetik irailera, eta erdialdeko kaleetan zein hiriko zenbait auzotan egin zen. Haurrei eta familiei zuzendutako proposamenez gainera, izan ziren helduentzako emanaldiak ere.

# KULTUR EKINTZA

| JARDUERAK | | |
|---|---|---|
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| **GUZTIRA** | **6.688** | **352.040** |
| Antzerkia | 274 | 35.823 |
| Dantza | 39 | 8.180 |
| Musika | 151 | 31.881 |
| Zinea | 215 | 10.066 |
| Hitzaldiak eta mahai inguruak | 216 | 15.901 |
| Erakusketak | 90 | 113.451 |
| Bilerak eta elkarteen ekitaldiak | 2.789 | 46.956 |
| Liburutegiko jarduerak | 569 | 13.794 |
| Plus 55 | 342 | 17.455 |
| Olatu Talka | 174 | 33.518 |
| Gazteleku | 745 | 7.151 |
| Haurtxoko | 864 | 13.869 |
| Beste | 220 | 3.995 |

| ZERBITZUAK | |
|---|---|
| | BISITAK |
| **GUZTIRA** | **641.844** |
| Liburutegiko bisitariak | 541.230 |
| Altzako Tokiko Bilduma | 98 |
| Haurtxoko | 26.954 |
| Gazteleku | 25.596 |
| Kzgunea | 31.359 |
| Bideo Tailerra | 3.080 |
| Casares Irratia | 397 |
| Musikagela | 9.303 |
| Ikasgela | 3.827 |

# KULTUR EKINTZA

| Prestakuntza **EMAKUMEAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **GUZTIRA** | | **EUSKERAZ** | | **GAZTELANIAZ** | |
| | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** |
| GUZTIRA | 556 | 7.253 | 136 | 1.262 | 420 | 5.760 |
| 2016/17 Ikastaroak | 258 | 3.470 | 58 | 594 | 200 | 2.797 |
| 2017/18 Ikastaroak | 298 | 3.783 | 78 | 668 | 220 | 2.963 |

| Prestakuntza **GIZONAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **GUZTIRA** | | **EUSKERAZ** | | **GAZTELANIAZ** | |
| | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** |
| GUZTIRA | 556 | 3.125 | 136 | 393 | 420 | 1.810 |
| 2016/17 Ikastaroak | 258 | 1.517 | 58 | 191 | 200 | 869 |
| 2017/18 Ikastaroak | 298 | 1.608 | 78 | 202 | 220 | 941 |

**BISITAK GUZTIRA: 1.383.235**

# AIETE
# KULTUR ETXEA



*Holokaustoari buruzko heziketaren 13 zutabeak* erakusketa.

2017an, Aiete Kultur Etxea Aiete auzoko topagunea eta kultura erreferentea izan da. Kultur Etxe honetan, egunez egun egon izan zen auzoko eta hiriko jendea, eskaini ziren zerbitzuez, jarduerez eta edertasunaz gozatzen, eta tokikoa izanagatik, nazioarteko ikuspegia sakondu zuen.

Kultur Etxearen **Giza Eskubideen eta Bakearen** espezialitatea indartu eta zabaldu egin zen 2017an. Erakusketa-lerroak gizateriaren erronka eta gabezia handiei buruzko ikuspegi kritikoa, solidarioa, aldarrikatzailea eta askotakoa eskaini eta sortu nahi izan zuen, herritarren gogoeta, sentsibilizazioa eta eztabaida erraztuz Giza Eskubideen urratzeen inguruan.
Hori guztia islatu zen Intxorta Elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udaleko Giza Eskubideen Departamentuak antolatutako ***Emeek emana*** bezalako erakusketetan, Donostiako 15. Giza Eskubideen Zinemaldiaren harira eginikoa. Gerrako istorioak, emakumeek frankismoaren testuinguru historikoan bete zuten zeregin aktiboa jaso zuen erakusketak. Jaialdi horren programazioan ere Giza Eskubideen Departamentuarekin antolatu zen Fernando Buesa Fundazioaren ***Giza Eskubideen aldeko tira*** erakusketa. Bineta grafikoen erakusketa izan zen, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 30 artikuluak modu atsegin eta hezigarrian ezagutzeko.

**Holokaustoaren** gaia Auschwitzeko kontzentrazio-esparru naziaren askapenaren urteurrena kontuan hartuta tratatu zen, Havtajá Euskadi-Israel kultura elkarteak antolatutako ***Holokaustoari buruzko heziketaren 13 zutabeak*** erakusketaren bidez. Erakusketak holokaustoaren mitoak eta ideia okerrak hautsi zituen, halako fenomeno ankerra ulertzeko gakoak emanez.
Tratatu zen beste gai saihetsezin eta gaurkotasun handiko bat **errefuxiatuena** izan zen, Udaleko Kultur Aniztasuneko Departamentuak Gipuzkoako SOS Arrazakeriarekin eta Eleuterio Quintanilla taldearekin batera antolatutako ***Errefuxiatuak, ongi etorri*** erakusketarekin.



*Giza eskubideen aldeko tira* erakusketako irudi bat.

# **AIETE**
# KULTUR ETXEA



*Wangari Maathai eta bakerako zuhaitzak* erakusketa.

**Gernikako bonbardaketaren** 80. urteurrenarekin bat etorrita, artista plastiko gazte frantses-marokoar **Nissrine Seffarek *Gernika. Aztarnak*** erakusketa aurkeztu zigun, Institutu Frantsesarekin eta TIFFE2017rekin lankidetzan antolatua. Lana, Picassorenaren neurri beretakoa (7,77 m X 3,46 m), Gernikako lurretik jaso zituen aztarnetan oinarrituta sortu zen. Itxaropen eta barkamen mezu bat transmititzen zuen lan eder bat gozatzeko aukera izan genuen.

Urtea amaitzeko, Giza Eskubideen Departamentuarekin lankidetzan 2004ko Bakearen Nobel saridun **Wangari Maathai**ren erakusketa diseinatu eta produzitu zen. Erakusketa hori Literaktum literatura jaialdiaren baitan egin zen. Aitziber Alonsoren ilustrazioekin eta Uxue Alberdiren eta Xabi Payaren testuekin, Wangari Maatharen bizitza erakutsi zuen. Wangari Maathai ekintzaile politikoa eta ekologista kenyarra da eta Bakearen Nobel Saria jaso zuen lehen emakume afrikarra “garapen iraunkorraren, demokraziaren eta bakearen alde egindako ekarpenagatik”.

Beste erakusketa batzuk auzoko, hiriko eta lurraldeko eragileekin lankidetzan sortu ziren. Elkaren ipuin eta ilustrazioen ohiko lehiaketa, saritutako marrazkien hautaketa batekin; DBUSen Eguberrietako marrazkiena, Munto-Emaús Gizarte Fundazioarekin eta euskal baserriaren gaiaren inguruan birziklatzeko materialekin egina; Lantxabe auzo-elkarteak Manuel Matxain aietearrari eskainitakoa; auzoko Zurjole taldeko ihiaren artisau taldearena, auzoko eskolekin *Eskolabidea* proiektua, eta Institutu Frantsesaren Biarritz Olympique Pays Basque errugbi-taldearen argazki artistikoen erakusketa, Andrea Santolayarena.

Bestetik, Galtzagorri elkartearen aholkularitzari esker, **ilustrazioaren** hedapenaren eta balioestearen aldeko lanean sakondu zen. Horren lekuko, ilustratzaile hauen lanekin erakusketak: Begoña Durruty, Maguma (hirian egin den Nazioarteko Ilustrazio Kongresuarekin lotuta), Dani Maiz eta Lorena Martinez.

**Ikastaroen** programazioari dagokionez, eskaintza zabaldu egin zen arte-ikastaro berriekin, hala nola, lumako eta ipuinen ilustrazioko ikastaroekin, eta musika-tresnekin finkatu zen, txalapartako, aho-soinuko, ukeleleko, kaxoi flamenkoko eta kriskitin-ikastaroekin, eta astero Kultur Elkartean 400 pertsonatik gora bildu zituzten gainerakoekin. Gainera, haurtxoen musika-estimulazio goiztiarreko *Soinu Magikoak* jarduera arrakasta handiko egile-ikastaro bihurtu da.

# AIETE
# KULTUR ETXEA

Hiriari eta era zabalean lurraldeari dagokionez, Aiete Kultur Etxeak erreferente izaten jarraitu zuen **haur programazioan**. Jardueren hautaketa zaindu batekin, txikienei hainbat ikuspegi hurbiltzen saiatu zen. Haur-zinema gero eta arrakastatsuagoa da urtez urte eta, euskaraz eta gaztelaniaz kalitatezko filmak eskaintzeaz gain, alemanezko filmak eskaini zituen Goethe Institut-Lorelei elkartearen eskutik. Berritasun gisa, udazkenean zirku-zikloa ere egin da, haurrak zirku-ikuskizun artistikora hurbiltzea indartuta, eta antzezpenarekiko eta sormenarekiko gozamena eta atxikimendua azpimarratuta.

**Liburutegi-zerbitzuak** irakurketara animatzeko lan garrantzitsua egin zuen: adin guztietarako jarduera-programa bat ipuinaren orduarekin, *Ipuinak musikarekin* programa zuzeneko musikarekin, erakusketekin, eskolen bisitaldiekin, eta abar. Beste urtebetez, literatura beste arte batzuekin konbinatu zen Literaktum zikloaren barruan, Literaktum txikiarekin. Jaialdi honek hasieratik izan du haur-programazio bat. Hala ere, aurten jauzi bat egin nahi izan da esparru horretan eta **Literaktum Txikia** izeneko atal paralelo zabal bat sortu da. Aurten jaialdia azaroaren 20ko *Haurren Egun Unibertsala*rekin bat zetorrela baliatuta, programaren ardatz nagusia giza eskubideak izan dira, Kultur Aniztasuneko Departamentuarekin, Giza Eskubideen Bulegoarekin eta Donostiako Udaleko Gazteria Departamentuarekin lankidetzan. Sormenarekin, jokoekin, irudimenarekin eta estilo erakargarriekin, txikienak protagonista izan zituen programa bat egin zen. Aietek, programazio horren funtsezko pieza gisa, zirku/literaturako ikuskizun bat izan zuen, aniztasuna eta giza eskubideak lantzen zituen ekoizpen propioko antzerki bat, ilustrazio-tailer bat Wangari Maathairen irudiaren inguruan, ipuin-kontalari bereziak, etab. Nazioarteko kontrapuntu gisa, nabarmentzekoa da zer harrera izan zuen 0 eta 4 urte arteko haurtxoentzako **Dick Bruna**. *Miffyren mundua* erakusketak. **Miffy** 2017 honetako otsailean hildako Dick Brunak (Utrecht, 1927-2017), idazle, diseinatzaile grafiko eta marrazkilari holandar batek sortu zuen. Horregatik, Literaktumekin bat etorrita, Aiete Kultur Etxeak omenaldi txiki bat egin nahi izan zion artistari, Miffyren munduan murgilduta.
Miffy haren sortze-lanik ezagunena da, eta 85 milioi liburu saldu ditu 40 hizkuntza baino gehiagotan. Erakusketa txikienei zuzenduta zegoen, Mercis bv.-k utzita Holandatik ekarritako jatorrizko ilustrazioekin, eta Miffyren alegiazko mundua birsortuta haren etxetxoarekin, baserriko abereekin eta hegazkin batekin ere.

Musikaren atalean, **Musiklasik** programa finkatu zen, maila handiko artista autoktono eta egoiliarrekin. Herritarrengandik hurbil dauden musika klasikoko kontzertuak eskaini zizkiguten, tresnen eta formatuen zenbait konbinazio sortzeko espazio egoki batean. Aieten beste kontzertu batzuk ere izan ziren, hala nola, *Donostia Hiria Nazioarteko Piano Lehiaketa*, *Basoka* eta *Eresoinka Euskal Jazzpop*. Azken bi hauek Miramonen, Olatu Talkan. Jaialdi horren barruan, 5-11 urteko publikoarentzako *Izarrak plazara* proiektua nabarmendu behar da, Aieteren Haurtxokoaren beste urte batzuetako *Aiete Faktor* proiektuaren bilakaera izan zena. Haren arrakasta handitu egin zen, eta Bagerarekin eta Euskara zerbitzuarekin izandako lankidetzaren bidez, auzoko musika-ikuskizuna hiri mailako bihurtu zen.

**Gaztelekua eta Haurtxokoa** bezalako zerbitzu integratuek ohiko funtzionamendu onari eutsi zioten, jendearentzako arreta on batekin eta programatutako jardueren arrakasta nabarmenarekin. Horrela, horien izaera irekia eta zerbitzu publikoko izaera indartu ziren.

Amaitzeko, aipatu behar da 2017an zehar Aiete Kultur Etxeak lanean jarraitu zuela finkatutako zikloak eta jaialdiak bultzatu zituzten laguntzaileen sarea mantentzeko eta indartzeko, hala nola, Poltsiko antzerkia, Giza Eskubideen Zinemaldia eta Aiete auzoko festak.



Zirika Zirkusen *Konposteroak*.



*Musiklasik: Blicke Trio*

# AIETE
## KULTUR ETXEA

| JARDUERAK | | |
|---|---|---|
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| **GUZTIRA** | **592** | **32.029** |
| Antzerkia | 12 | 1.457 |
| Musika | 23 | 1.540 |
| Zinea | 73 | 2.540 |
| Erakusketak | 26 | 13.768 |
| Bilerak eta elkarteen ekitaldiak | 193 | 6.310 |
| Liburutegiko jarduerak | 49 | 1.864 |
| Gaztelekua | 44 | 938 |
| Haurtxokoa | 151 | 2.197 |
| Olatu Talka | 8 | 907 |
| Beste | 13 | 508 |

| ZERBITZUAK | |
|---|---|
| | BISITAK |
| **GUZTIRA** | **64.992** |
| Liburutegiko bisitariak | 59.093 |
| Haurtxokoa | 4.216 |
| Gaztelekua | 1.683 |

# AIETE
KULTUR ETXEA

| Prestakuntza **EMAKUMEAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **GUZTIRA** | | **EUSKERAZ** | | **GAZTELANIAZ** | |
| | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** |
| GUZTIRA | 53 | 597 | 7 | 93 | 46 | 504 |
| 2016/17 Ikastaroak | 23 | 280 | 3 | 33 | 20 | 247 |
| 2017/18 Ikastaroak | 30 | 317 | 4 | 60 | 26 | 257 |

| Prestakuntza **GIZONAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **GUZTIRA** | | **EUSKERAZ** | | **GAZTELANIAZ** | |
| | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** |
| GUZTIRA | 53 | 188 | 7 | 41 | 46 | 147 |
| 2016/17 Ikastaroak | 23 | 79 | 3 | 16 | 20 | 63 |
| 2017/18 Ikastaroak | 30 | 109 | 4 | 25 | 26 | 84 |

**BISITAK GUZTIRA: 97.758**

# **CASARES-TOMASENE / LARRATXO**
# KULTUR ETXEA




*Bertso literarioak* saioa, Danele Sarriugarte, Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdirekin.

2017an zerbitzuen kalitatea eta eskaintza sendotzen eta hobetzen saiatzeaz gain, arreta berezia jarri zen publiko berria erakartzeko eta komunikatzeko bide berriak eraikitzeko, programazio edukiak eta diziplinak publikoari gerturatzeko. Horren harira, ikastetxe eta guraso elkarteekin izandako harremanak oparoak izan ziren.

**Naturaldia**ren zenbait ekitaldietan 6-12 urte bitarteko umeen parte hartzea handia izan zen, Oleta ikastetxeko Guraso Elkartearen elkarlanari esker. ***Hezten ikasi*** hezkuntzari buruzko jardunaldiak ere antolatu ziren **Harri Berri Oleta** Ikastetxearekin batera, eta neuro-heziketa eta teknologia berriak gaiak hartuta **Silvia Álava, Carles Monereo** eta **Nora Rodríguez** adituak aritu ziren. Bestalde, Larratxon eskainitako antzerki eskola saioetan 16-18 urte bitarteko 1.480 gazte pasatu ziren.

Horrez gain, ***Hileko Dokumentala*** ziklo berria jarri zen martxan: hilean behin proiekzio bat eskaini zen DOCS Bartzelona jaialdiarekin lankidetzari esker. Ziklo honen helburuetako bat genero dokumentala ikusleei gerturatzea da, eta baita gaurkotasun gaiei buruzko eztabaida eta hausnarketa bultzatzea ere. Dokumentalen osteko solasaldien bitartez hainbat elkarteren zein adituren ikuspuntua entzuteko aukera izan zen, besteak beste **Karlos Zurutuza**, **Oscar Arroyuelo** (Gehitu), **Elkartu**, **David Pello** (Hirikilabs) edo **Ohiane Ugarteburu** (Laia Nahia).

Ikastaroen eskaintzak oso harrera ona izan zuen eta bereziki apatzekoak izan ziren zeramika eta irrati ikastaroak. Azken horietan esperientzia handiko profesionalak aritu ziren irakasle: **Forki** eta **Sergio Errasti** (irratigintza), **Anartz Zuazua** (irrati-antzerkia) eta **Maider Gorostegi** eta **Joseba Sacristan** (Irrati-formula eta ahots-teknikak). Zeramikari dagokionez, aipatzekoa **Rafaela Pareja**k eskainitako ikastaro trinkoaren arrakasta.

**Literaktum** jaialdiak data aldatu zen eta horrek ikus-entzule kopurua handitzea eragin zuen eta eskaintza ere zabaldu egin zen, **Miren Amurizak** eta **Irati Egurenek** haurrentzako eskainitako ekitaldi eta erakusketa baten bidez. Jaialdi honen barruan **Rosa Montero** aritu zen **Pilar Rodriguez**ekin elkarrizketan, ekitaldi oso arrakastatsu batean.



Naturaldia.



Karlos Zurutuza, *Hileko dokumentala* zikloan.

# CASARES-TOMASENE / LARRATXO
KULTUR ETXEA



Decopivolta taldearen *Tulipas* antzezlana, Poltsiko Antzerki Jaialdian.

Bestalde, literaturaren inguruan ere aipatzekoa da ***Bertso literarioak*** saioa, non **Danele Sarriugarte, Maialen Lujanbio** eta **Uxue Alberdi** elkartu ziren emanaldi berezi bat eskaintzeko.

Mota eta formatu ezberdinetako antzerki emanaldiak ere izan ziren. **Poltsiko Antzerki Jaialdiak** 3 lan ekarri zituen Altzako beste hainbeste tabernetara, **Jose Cruz Gurrutxaga**, **Decopivolta** eta **Anodino Teatro**aren eskutik.

**Haur antzerkiari** dagokionez, adinaren arabera formatu txiki eta ertaineko emanaldiak izan ziren. 0-2 bitarteko haurrentzat **Baychimo** taldearen ***Pinxit*** lana izan genuen Tomasenen eta 2-6 bitartekoentzat **Pantzart** taldearen ***Kolorez Kolore***. 5 urtetik gorakoentzat, Larratxon, saritutako **Markeliñe** taldearen ***Euria*** edo **Teatro Paraiso**ren ***Lunaticus Circus*** antzezlanak taularatu ziren.

Ezohiko lanentzat ere izan zen tokirik, esate baterako, **Holoqué** taldeak proposatutako txotxongilo holografikoak.

**Antzerkia Kalean** zikloan zortzi lan eskaini ziren, toki ezberdinetan, eta orotara 2.600 ikusle bertaratu ziren. Eskaintza honetan helduentzako antzezlanak izan ziren, adibidez, **Trapu Zaharrak**en ***A cal y canto***, eta baita haurrei zuzendutakoak ere, **Markeliñe**ren ***Crusoe*** esaterako.

Antzerki amateurrak ere tartea izan zuen, eta **Nueve Teatro**, **Ausartak** edo **Tgorrieta** taldeek, besteak beste, taularatu zituzten beraien lanak Larratxoko aretoan.

**Olatu Talka** jaialdiari esker, azoka, musika eta dantza kalera atera ziren Roteta auzunea eraldatuz egun batez. Bertan **Lee Junio**r eta **Psicoacustic** taldeak entzuteko aukera izan genuen.

Elkarte eta entitateekin elkarlanen bidez programa garrantzitsuak eta iraunkorrak mantendu ziren urtean zehar, besteak beste, **Emakumeen Astea** (Ostadar, Utai Belar eta Elkartea berri), **Naturaldia** (AHM eta Aranzadi) edo **Bertso Astea**. 2017ko Naturaldia bertako narrasti eta anfibioen ingurukoa izan zen, eta Bertso Astearen barruan aipatzeko izan zen Mug Mus Laborategiaren *Esku hariak Oteizaren (H)arira dantza* ikuskizuna. Oroimen zehatzak ere izan ziren, Rotetako K.E.ren 50. urteurrenaren erakusketa kasu.



*Tira! Aurrera!* Panta Rhei taldearen emanaldia.



Psicoacustic Olatu Talka jaialdian

# CASARES-TOMASENE / LARRATXO
## KULTUR ETXEA



Euskal Metal Festeko emanaldia.

Musikari dagokionez, **Euskal Metal Fest** inoiz baino indartsuagoa izan zen eta 19 taldek hartu zuten parte 4 egunetan. Horien artean aipatzekoak dira **Eternal Idol, Secret Sphere** eta **Obscura**. **Heavy Jaia** jaialdiak berriro lortu zuen Larratxoko aretoa betetzea eta metalzaleen hitzordu garrantzitsu bat izatea, **Lords of Black** taldearen emanaldia gaueko ekimen nagusia izanik. Bestalde, **Etengabeko Zarata** izan zen eta **Altzatarock** kontzertuak bertako **Pelax**, **MICE** eta **Sermond's** taldeak ekarri zituen Larratxora.

Musika koralari dagokionez, Ukrainako **Sophia Chamber Choir** taldeak harrera ezin hobea izan zuen 300 entzule elkartuz.

**Casares Irratiak** 23 irratsaiorekin osatutako programazioa eskaini zuen. Horietatik 9 saio Arrosa sarearen bidez eskaini zituzten, eta 14 Casaresen ekoitzi ziren, irrati-tailerreko partaideek, kolektiboek, edo irratiko lantaldeak eginak, edo sail-arteko lankidetzan.

***HAMAIKA ENTZUTEKO! III*. Irrati-piezen lehiaketa** antolatu zen. Urtez urte handituz doa eta 2017an nabarmen igo zen parte-hartzea: 54 lan jaso ziren, 2016an baino 34 gehiago. Saritutako piezen berri emateko ekitaldi bat egin zen Victoria Eugenia Antzokiko Club Aretoan. Ekitaldi horretan, saritutako lanak entzuteaz gain, zuzeneko irrati-antzerkiaz gozatzeko aukera ere izan zen: **Patxi Santamaria**k eta **Mikel Ibañez**ek ***El barril de amontillado*** Edgar Allan Poeren lana eskaini zuten, **Inko Martin**ek moldatua eta zuzendua.

**Altzako Tokiko Bilduma**k 2018an hogei urte beteko ditu. Bilduma poliki-poliki hazten eta eguneratzen joan da okumentu berriak bilatuz, katalogatuz, eta bizilagunen esku kontsultagarri jarriz. Aldi berean, bizilagun asko eta elkarteak ere bildu ziren eskuzabaltasunez dokumentuak uzteko edo bilatzen laguntzeko. Bere funtsean 16.617 dokumentu daude katalogatuak, eta horietatik 12.807 kontsulta daitezke webgunearen bitartez. 2017an 50.932 bisitaldi izan ziren webgunean, eta kontsulten gaiak askotarikoak izan ziren, hala nola, unibertsitateko lanak, familiari buruzko ikerketak edota etxeei buruzko informazioa.

**Liburutegian** bi ekimen berri jarri ziren martxan. **Irakurlearen Txokoa** solasaldi literarioa, arrakasta handiz jarri zen martxan maiatzean eta saioz saio sendotzen ari da. Eta txikienek **Liburu Baby Kluba** hitzordu berria dute Tomasene liburutegian, liburuekin lehen harremana izateko.
**Plus 55** programak, jarduerekin eta auzoko eragileekin elkarlanean, zerbitzua sendotzen jarraitu zuen. Azken bi urteetan igoera izan zuen zuzeneko arretan eta erabiltzaileentzako zerbitzuaren erreferentzian.



Sophia Chamber Choir

# CASARES-TOMASENE / LARRATXO
KULTUR ETXEA

## CASARES-TOMASENE
KULTUR ETXEA

| JARDUERAK | | |
|---|---|---|
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| **GUZTIRA** | **365** | **18.377** |
| Antzerkia | 26 | 3.604 |
| Dantza | 2 | 220 |
| Musika | 3 | 560 |
| Zinea | 20 | 422 |
| Hitzaldiak eta mahai inguruak | 14 | 565 |
| Erakusketak | 4 | 1.251 |
| Bilerak eta elkarteen ekitaldiak | 202 | 9.418 |
| Liburutegiko jarduerak | 53 | 821 |
| Plus 55 | 37 | 996 |
| Olatu Talka | 4 | 520 |

| ZERBITZUAK | |
|---|---|
| | BISITAK |
| **GUZTIRA** | **51.975** |
| Liburutegiko bisitariak | 48.071 |
| Casares Irrratia | 397 |
| Altzako Tokiko Bilduma | 98 |
| Kzgunea | 3.409 |

# CASARES-TOMASENE / LARRATXO
KULTUR ETXEA

| Prestakuntza **EMAKUMEAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | | EUSKERAZ | | GAZTELANIAZ | |
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| GUZTIRA | 71 | 621 | 22 | 145 | 49 | 476 |
| 2016/17 Ikastaroak | 32 | 288 | 8 | 51 | 24 | 237 |
| 2017/18 Ikastaroak | 39 | 333 | 14 | 94 | 25 | 239 |

| Prestakuntza **GIZONAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | | EUSKERAZ | | GAZTELANIAZ | |
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| GUZTIRA | 71 | 269 | 22 | 56 | 49 | 213 |
| 2016/17 Ikastaroak | 32 | 126 | 8 | 24 | 24 | 102 |
| 2017/18 Ikastaroak | 39 | 143 | 14 | 32 | 25 | 111 |

## LARRATXO
KULTUR ETXEA

| JARDUERAK | | |
|---|---|---|
| | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** |
| **GUZTIRA** | **243** | **12.288** |
| Antzerkia | 21 | 3.283 |
| Dantza | 6 | 862 |
| Musika | 8 | 1.221 |
| Zinea | 1 | 120 |
| Hitzaldiak eta mahai inguruak | 1 | 150 |
| Erakusketak | 1 | 550 |
| Bilerak eta elkarteen ekitaldiak | 168 | 3.462 |
| Liburutegiko jarduerak | 27 | 435 |
| Plus 55 ekitaldiak | 10 | 2.205 |

| ZERBITZUAK | |
|---|---|
| | **BISITAK** |
| **GUZTIRA** | **20.995** |
| Larratxo liburutegiko Bisitariak | 20.995 |

# CASARES-TOMASENE / LARRATXO
KULTUR ETXEA

| Prestakuntza **EMAKUMEAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | | EUSKERAZ | | GAZTELANIAZ | |
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| GUZTIRA | 4 | 76 | 2 | 27 | 2 | 49 |
| 2016/17 Ikastaroak | 2 | 40 | 1 | 15 | 1 | 25 |
| 2017/18 Ikastaroak | 2 | 36 | 1 | 12 | 1 | 24 |

| Prestakuntza **GIZONAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | | EUSKERAZ | | GAZTELANIAZ | |
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| GUZTIRA | 4 | 4 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| 2016/17 Ikastaroak | 2 | 1 | 1 | 1 | 1 | 0 |
| 2017/18 Ikastaroak | 2 | 3 | 1 | 1 | 1 | 2 |

## BISITAK GUZTIRA ALTZAN: 158.672

| | CASARES | TOMASENE | LARRATXO | LARRATXO LIBURUTEGIA |
|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 44.901 | 71.159 | 21.617 | 20.995 |

# EGIA
# KULTUR ETXEA



*El cuello de la jirafa*, Matarile.

2017. urtean Egia Kultur Etxeak 20. urteurrena izan zuen. Besteak beste, proiektu dinamiko eta parte-hartzaileak garatu zituen, auzoko elkarte eta erakundeekin batera, sormena bultzatuz eta zalantzarik gabe auzoko topagune eta erreferente kulturala izanez. Dinamika eta eskaintza kultural handia duen auzoa da hau. Hainbat aretok eskaintzen dituzte kontzertuak, dantza edota antzerkia, eta hitzaldiek eta beste jarduera batzuek auzoaren egunerokotasun kulturala osatzen dute. 2017an, aipatzekoa izan zen gazteen parte hartze zabala kultur etxearen eskaintza kulturalean zein bestelako proiektuak martxan jartzerakoan.

**Liburutegiak** adin guztietako erabiltzaileen artean areagotu zituen irakurzaletasuna bultzatzeko jarduerak: **Ipuinaren ordua**, **Literatur solasaldiak**, **Atzegi**rekin egiten den **Irakurketa Erraza** tailerra eta, 2017ko berrikuntza, 0-3 urte bitarteko **Liburu Baby Kluba** programa.

Horrez gain, **Mikel Santiago** eta bere Jazz hirukoteak zein **Sergio Pereira**k kaleratutako azken idazlanen aurkezpenak egin zituzten bertan arrakasta handiz.

Astero, 500 lagunetik gora parte hartu zuten kultur etxeak eskainitako **ikastaroetan**: joskintza, serigrafia, altzarien zaharberritzea, pilates edota dantza garaikidea, besteak beste.

**Plus 55** programak arreta pertsonalizatua eta egitarau zabala eskaini zuten: tailerrak, hitzaldiak edota txangoak. Hirugarrenez egin zen **Igor Calonge** koreografoaren dantza ikastaroa aipagarria da: urtean zehar ikasi eta landutako guztia Antzoki Zaharrean ikusgai izan zen.

**Gazteszena**ren berezitasuna arte eszenikoak izanda, dantza, zirkua eta antzerki proposamen berritzaileak ikusteko aukera izan zen. Portugaldik etorritako **Chapitô** taldeak ***Elektra***ren bertsio zoragarria eskaini zigun. **Nueveuno** eta **EIA** konpainiak, MaX 2016 sarietan talde errebelazio saridunak, zirkuaren mundua hurbildu zigun. Euskarazko antzerkiak tokia izan zuen ***Mami Lebrum*** eta ***Errefuxak*** antzezlanen bidez. Hizkuntza eszeniko berritzaileena **Matarile** talde galiziarrak eskainitako ***El Cuello de la Jirafa*** lan zirraragarriaren bidez ezagutu genuen.



*Mami Lebrun*, Xake Produkzioak.

# **EGIA**
# KULTUR ETXEA



*MICROCLIMATE*, Lasala (Judith Argomaniz).

**Dantza**ren inguruko **sentsibilizaziorako proiektuek** indarra hartu zuten, eta hainbat dantza talde izan ziren egonaldi tekniko zein artistikoak garatzen. **Lasala** eta **Cielo Raso** ibilbide sendoko taldeek tokia izan zuten, baina artista gazteen proposamen berriak ere jaso ziren: **Jaiotz Osa**, **Amaia Elizaran, Myriam Pérez** edo **Denis Santacana,** esaterako. **Dantzategia** egitasmoaren beste saio bat izan zen, **Dantzaz** konpainiarekin eta **Janis Calxton** koreografo eskoziarrarekin. Auzoko kaleak eta plazak agertoki izan ziren, espazioaren eta eszenografiaren arteko harremanaz eta hiriaren arkitektura eta eguneroko bizitzaren artekoaz aritzeko.

**Dantza garaikideak** Donostian izan behar duen tokia lortzeko publikoaren eta artisten arteko kolektibo bat sortzea da gakoa. Horregatik, oso garrantzizkotzat dugu sorkuntza prozesuei laguntza eta atxikimendua ematea, eta elkarlana bultzatzen genuen Dantzagunea Gipuzkoako Foru Aldundiaren dantza zerbitzuarekin, dantza tailerrak, master classak, entsegu irekiak edota dantza taldeei eta dantzazaleei laguntzak eskainiz.

Beste erakundeekin egindako elkarlanak kalitatezko dantza garaikideko ikuskizunak eskaintzeko aukera eman zigun, esaterako, Eusko Jaurlaritzarekin antolatutako **Dantza Zirkuitua** eta Red Nacional de Teatrosekin **Danza A Escena** programak. Egungo artista talderik onenetakoak izan ziren gurean: **Thomas Noone, Antonio Ruz, Toni Jodar, Marco Vargas, Chloe Brûlé, Alexis Fernandez, Caterina Varela, Judith Argomaniz** eta **Igor Calonge.**

Ezin utzi aipatu gabe izan ziren **egonaldi artistikoak** zein euskal taldeen ikuskizunen estreinaldiak: **Lasala** taldea bere ***Microclimate*** dotorearekin edota **Cielo Raso** eta bere ***Pequeños Actos*** lan sentikorra.



*Suddenly*, Jaiotz Osa.

**Kalean** ere izan ziren emanaldiak. **Maduixa Teatre**, **Doos Kolektiboa**, **Amaia Elizaran, Tomaxen Abenturak, Los Circom Eidabe, Potxin eta Patxin** eta **Trapu Zaharra** taldekoek Egia auzoko hainbat plaza bete zituzten askotariko adinetako publikoak erakarriz.

Arte eszenikoen etorkizuna diren talde amateurren tokia ere izan zen Egia Kultur Etxea, **Gazte Antzerkia jardunaldiak** eta **Aitor Ikastolako Antzerki Astea** bezalako egitarauak antolatuz.



La Macanaren *Invisible Wires*.

# EGIA
KULTUR ETXEA



Ganso & Cia taldearen *Kaput.*

**Haur antzerkiari** dagokionez, eskaintza zabala izan zen, bai gaietan bai euskarrietan. **Jabier Muguruza**k bere azken diskoa aurkeztu zuen, ***Harriaren hiztegia*** izenekoa, eta **Markeliñe**k magiaz beteriko ikuskizun bat, non dantza eta antzerkia batzen diren ***Euria*** izenburupean.

**Ganso** konpainiak zirkua ekarri zigun ***Kaput*** antzezlanaren bidez, eta **La Enana Naranja**k ***Kontukari*** musikala aurkeztu zuen. ***Jon Braun*** historia zoragarria ikusi genuen eta **Logelak** 3D teknika bidezko ***Dreg. E uraren bila*** lanarekin harritu gintuen. Ikastetxeetako antzerki eskaintza **Eskolatik antzerkira** egitarauaren bidez izan genuen eta horri esker hainbat ikastolatako ikasleek **Dejabú Panpin Laborategia**ren ***Azken Portu*** antzezlana ikusteko aukera izan zuten.



Anita Maravillas Teatroren *Jon Braun.*

**Musikak** *beti du bere tokia Gazteszenan zein auzoko hainbat tokietan,* **Dkluba** *eta* **Musikagela** *zerbitzuaren bitartez eta* **Ttan Ttakun Irratia** *edota* **Revolutionary Brothers** kolektiboaren eskutik, erakustaldi hutsetik harago. Aipagarria ere, hainbat tailerren eskaintza, *Gitarra elektrikoa eta baxu doikuntza* **Gorka Urra***rekin, Serator + Kontroladora* **Telmo Trenor***rekin eta Traktor + Biniloa* **Rude Kanka***ren eskutik.*

**Raitx, Sara Mansilla & Jon Fernandez, Olatz Salvador** *edo* **Koban** *taldeek*



Iseo & dodsound Donostikluba jaialdian aritu zen.

# EGIA
# KULTUR ETXEA



Glad is the Day jaialdia.

*euren lanak aurkeztu zituzten.* **Glad is the Day** *jaialdiak 5.000tik gora lagun bildu zituen udako musika eskaintza trinkotuz.*

**Grabaketa estudio**aren erabilera nabarmen handitu zen eta entsegu aretoak ia erabat beteta izan ziren 36 taldeen partaidetzarekin, goizez zein arratsaldez. Ibilbide luzeko taldeei gazte talde berriak batu zitzaizkien, hiriko panorama musikala astinduz: **Tenpera, Arkaiko, The Sultan, Soihu** eta **The Stubborns**.

**Olatu Talka** programan parte hartu zuen Egia auzoak ere, hainbat proposamenen bidez**. Egia seugurua, Haurren Egia**, ekimen hiritarrak auzoaren mugikortasun aukerak eta umeentzako ibilbide berrien diseinua jarri zuen mahai gainean, eta ***Ongi Etorri*** egitaraua eguneko ekimen arrakastatsuenetakoa izan zen: Teresa Kalkuta plaza, mundu osoko jai ezberdinen topaleku berezia bihurtu zen, besteak beste, Ukrainia, Txina, Sahara, eta Bulgaria bezalako herrialdeetako ohiturak ezagutzeko aukera izan zen. Ekimen horretan honako taldeek parte hartu zuten: Zuhaizti eskola, Maria Reina eskola, Intxaurrondo Hegoa eskola, Intxaurrondo ikastola, Aitor Ikastolako Latxaga guraso elkartea, Zuhaizti eskolako guraso elkartea, Maria Reina eskolako Torre de Babel Matrioska, Intxaurrondo Hegoa



Trapu Zaharra taldearen *Sefiní!!!*

ikastetxeko Haurtxoak guraso taldea, Intxaurrondo ikastolako Urdintxo guraso elkartea, Porrontxo jaiak, Donostiako Sahararen aldeko elkartea, Afrika Sunshine elkartea, Camelamos Adiquerar elkartea, Algara Klown elkartea, eta Sanbatuak elkartea.

12-17 urte bitarteko gazteentzako gune erreferentziala bihurtu da **Gaztelekua**, tailer zein hitzaldi bidez gazteen topaleku.

Pintura, argazkigintza, eskultura grabatua, instalakuntzak, bideoa,... diziplina hauek guztiek izan zuten tokia **erakusketarako guneetan**.

***Denboraren Soinuak***, **Patxi Aldunate** artistaren eskutik, frontoiaren ikuspuntua eta analisia eskaini zuen eta gure bizitzen eta haurtzaroko lekukotasuna. **Ezpaziarte** gunean **Lucía Fermin** eta **Alaitz Gómez**ek murala egin zuten. Dantzagunearekin batera ***Urrats bat gehiago,*** *Gipuzkoako dantza garaikidearen oraina* erakusketa ekoitzi genuen, 23 talde eta konpainien argazkiak zein testuak bilduz.

Baikorra da 2017. urteko balantzea: bide berriak irekitzeko aukera eman zigun eta proiektu berriak egiteko zein agente kultural, kolektibo, elkarte eta diziplina ezberdinen topaleku izateko aukera eman zigun.

# EGIA
KULTUR ETXEA

| JARDUERAK | | |
|---|---|---|
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| **GUZTIRA** | **885** | **34.822** |
| Antzerkia | 48 | 6.609 |
| Dantza | 20 | 3.343 |
| Musika | 19 | 11.957 |
| Zinea | 16 | 463 |
| Hitzaldiak eta mahai inguruak | 8 | 251 |
| Erakusketak | 7 | 1.998 |
| Bilerak eta elkarteen ekitaldiak | 278 | 3.394 |
| Liburutegiko jarduerak | 93 | 1.284 |
| Plus 55 | 68 | 1.328 |
| Gaztelekua | 160 | 1.518 |
| Olatu Talka | 21 | 1.545 |
| Beste | 147 | 1.132 |

| ZERBITZUAK | |
|---|---|
| | BISITAK |
| **GUZTIRA** | **46.410** |
| Liburutegiko bisitariak | 27.309 |
| Gaztelekua | 4.598 |
| Ikasgela | 3.827 |
| Musikagela | 5.944 |
| Kzgunea | 4.732 |

| Prestakuntza **EMAKUMEAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **GUZTIRA** | | **EUSKERAZ** | | **GAZTELANIAZ** | |
| | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** |
| GUZTIRA | 79 | 1.106 | 33 | 366 | 46 | 547 |
| 2016/17 Ikastaroak | 36 | 529 | 13 | 176 | 23 | 272 |
| 2017/18 Ikastaroak | 43 | 577 | 20 | 190 | 23 | 275 |

| Prestakuntza **GIZONAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **GUZTIRA** | | **EUSKERAZ** | | **GAZTELANIAZ** | |
| | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** |
| GUZTIRA | 79 | 1.106 | 33 | 80 | 46 | 113 |
| 2016/17 Ikastaroak | 36 | 529 | 13 | 37 | 23 | 44 |
| 2017/18 Ikastaroak | 43 | 577 | 20 | 43 | 23 | 69 |

**BISITAK GUZTIRA: 155.681**

# ERNEST LLUCH
# KULTUR ETXEA




Juan Jose Millasen hitzaldia.

Ernest Lluch Kultur Etxean literatura eta eztabaida izan ziren berriz ere protagonistak. Hainbat liburu aurkezpen, solasaldi eta ziklo izan ziren kultur etxearen ildo nagusian urtean zehar. Aipagarrienak hauek lirateke: **Aritz Gorrotxategi**k bere ipuin liburu berria aurkeztu zuen **Harkaitz Cano**rekin solasean, eta gauza bera egin zuen **Ana Malagon Zalduak Leire Palacios**ekin. Ez ziren hauek aurkezpen bakarrak izan: **David Trueba** eta **Juan José Millás** beren nobela berrien inguruan aritu ziren, eta **Bernardo Atxaga**k, **Eider Rodriguez**ek, **Anjel Lertxundi**k eta **Toti Martínez de Lezea**k eztabaida ezberdinetan parte hartu zuten.

**Karmelo C. Iribarren** poeta donostiarrak liburu aurkezpen bikoitza egin zuen apirilean, literatura programa bereziaren barruan: ***Pequeños incidentes*** eta ***El amor, ese viejo neón*** poema liburuen harira solasean aritu zen **Juan Velázquez** eta **Itziar Mínguez**ekin.

Ezin ahaztu ere **Beste Hitzak – Other Words** egitasmoarekin izandako elkarlana: ***Elur gainean txori hanka arinak*** saioan **Gerard de Jong** idazle frisiarra **Iñigo Astiz** eta **Juan Luis Zabala** euskal idazleekin aritu zen solasean, hizkuntza gutxituetako idazleen erronkei buruz.



*Corpus*, Sara Morante



*Superviviendo*, Asier Hormaza

Diziplina ezberdinen arteko elkarrizketa Ernest Lluch Kultur Etxearen beste ildo nagusietako bat da. **Erakusleihoa** programa da, ziurrenik, ildo hau ondoen islatzen duena: formatu txikiko antzezkizunak, irakurketa musikatuak, performanceak... Hauen guztien espazioa da Erakusleihoa. 2017an **Beñat Achiary** eta **Didier Laserre**ren ***Zerutik urrun***, **Metrokoadroka** Kolektiboaren ***Mr Señora***, **Jose Kruz Gurrutxaga**ren ***Declaración de Guillermo***, **Kancaneo Teatro**ren ***Ni pa ti ni pa mí*** edota **Asier Hormaza** eta **Alazne Etxeberria**ren bakarrizketak pasatu dira programa honen oholtzatik.

**Zinemak** ere badu hitzordua Ernest Lluch Kultur Etxean astelehenero. 2017an, gainera, askoz erabiltzaile gehiago izan ziren eta argi geratu zen hilabetero eskainitako zikloek publikoaren txaloa jaso zutela, saio guztiak bete baitziren.

2017an **erakusketak** indartu egin ziren, elkarlan eta ekoizpen proiektu berriekin: **Beatriz Setien**en Akuarelak, EHUko Arte Ederretako Masterraren ikasleen ***Amor fati***, Eslovakiako Enbaxadarekin elkarlanean ***Eslovakia magikoa*** eta **Sara Morante** ilustratzailearen ***Corpus*** proiektuek bisitari ugari izan zituzten.

# **ERNEST LLUCH**
# KULTUR ETXEA

Arlo ezberdinetako pertsona aipagarrien lana, ibilbidea eta jarduna hobeto ezagutzeko aukera ematen du **Solasean...** programak. 2017an **Felipe Benítez Reyes** poeta eta idazlea eta **Kike Amonarriz** hizkuntzalari eta komunikatzailea izan ziren gonbidatuak.

Ernest Lluch Kultur Etxeak zientziaren inguruko eztabaida ere sustatu zuen eta horretarako Zientziaren bide berriak izeneko programa bultzatzen zuen Donostia International Physics Centerarekin elkarlanean: **Ricard Solé** fisikaria eta **Celia Rogero** kimikaria izan ziren hizlari.

Baina azken urteetako lerroak sendotzeaz gain, Ernest Lluch Kultur Etxeak proiektu berriak abiatu zituen 2017an. Azpimarratzekoa da, adibidez, **Literatura eta gehiago**. Programa honetan literaturak beste arloekin dituen harremanak aztertzen dira. Lehen saioan **Martín Caparrós**ek eta **Ander Izagirre**k literatura eta kazetaritzaren arteko loturen hausnarketa egin zuten.

**Plus 55** zerbitzuaren eskutik bi berrikuntza izan ziren 2017an. Batetik, **Narratzaileen Txokoa** programak etapa berri bat ireki zuen: ***Déjame que te cuente*** izenarekin ahozko narrazioaren trebakuntzari indar gehiago eman zion, adituen eskutik eta parte-hartzea landuz. Bestetik, **Osasun jardunaldiek** urrats bat eman zuten: gai jakin baten inguruan (aurten, emakumeen ahalduntzea) hainbat jarduerekin programa aberatsa osatu zen: pelikulak,solasaldiak, antzezlanak, master class-ak, bisita gidatuak... Erabiltzaileek bikain erantzun zioten proposamen berri honi.

Bestalde, 2017an Ernest Lluch Kultur Etxeak, Gastronomiazko Euskal Anaiartearekin batera, **Slow Food Jardunaldiak** antolatu zituen maiatzean, kultura eta gastronomiaren arteko harreman aberatsak jorratzeko helburuarekin.

Eta, ziur aski, Ernest Lluch Kultur Etxearentzat 2017ko berri garrantzitsuena dena alor ezberdinak lotzeko nahi horrekin dago lotuta: **Korner, Kultura & Futbol Festibala**ren aurkezpena. Irailean Eneko Goia Donostiako Alkateak eta Jokin Aperribay Realeko lehendakariak Ernest Lluch Kultur Etxean egoitza nagusia izango duen proiektu berria aurkeztu zuten. Korneren helburua hainbat jardueren bitartez (solasaldiak, erakusketak, pelikulak, antzezkizunak...) dirudiena baino harreman handiagoa duten bi mundu horien arteko lotura aztertzea da, betiere, publiko zabal bati begira.

Urtero bezala, noski, Kultur Ekintza atalak antolaturiko zenbait jaialdik ere pisu handia izan zuten Ernest Lluch Kultur Etxeko programazioan: **Poltsiko Antzerkia, Olatu Talka, Literaktum** eta **Abesbatzen Astea** urteko une garrantzitsuak izan ziren.




Max Montlleo, Via Foran.



*Ondorengoak*, Zirika Zirkus, Easo Plazan.

# ERNEST LLUCH
# KULTUR ETXEA

| JARDUERAK | | |
|---|---|---|
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| **GUZTIRA** | **790** | **24.046** |
| Antzerkia | 24 | 2.498 |
| Musika | 3 | 243 |
| Zinea | 34 | 2.497 |
| Hitzaldiak eta mahai inguruak | 23 | 953 |
| Erakusketak | 6 | 2.805 |
| Bilerak eta elkarteen ekitaldiak | 198 | 3.900 |
| Liburutegiko jarduerak | 122 | 2.296 |
| Plus 55 | 70 | 2.073 |
| Gaztelekua | 122 | 1.179 |
| Haurtxokoa | 166 | 3.413 |
| Olatu Talka | 22 | 2.189 |

| ZERBITZUAK | |
|---|---|
| | BISITAK |
| **GUZTIRA** | **138.928** |
| Liburutegiko bisitariak | 119.219 |
| Haurtxokoa | 3.881 |
| Gaztelekua | 5.171 |
| Kzgunea | 10.657 |

## Prestakuntza **EMAKUMEAK**

| | GUZTIRA | | EUSKERAZ | | GAZTELANIAZ | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| GUZTIRA | 86 | 1.448 | 18 | 194 | 68 | 1.254 |
| 2016/17 Ikastaroak | 47 | 787 | 10 | 101 | 37 | 686 |
| 2017/18 Ikastaroak | 39 | 661 | 8 | 93 | 31 | 568 |

## Prestakuntza **GIZONAK**

| | GUZTIRA | | EUSKERAZ | | GAZTELANIAZ | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| GUZTIRA | 86 | 500 | 18 | 46 | 68 | 454 |
| 2016/17 Ikastaroak | 47 | 253 | 10 | 28 | 37 | 225 |
| 2017/18 Ikastaroak | 39 | 247 | 8 | 18 | 31 | 229 |

**BISITAK GUZTIRA: 194.434**

# INTXAURRONDO / LARROTXENE
## KULTUR ETXEA


© Lorena Otero

Julieta Benegas.

Intxaurrondo Kultur Etxeak, musika arloan espezializatuta dagoen kultur etxeak, askotariko zuzeneko kontzertuak eskaini ohi ditu urtero; erreferentea da hirian arlo horretan eta iazko uzta ez zuen txikiagoa izan. Iaz zehazki **17 kontzertu** eskaini ziren, horien artean: **Bigott**, **Ivan Ferreiro**, **Hesian**, **Julieta Venegas**, **Los Tiki Phantoms**, **Gatibu**, **Cracker**, **El Twanguero**, **León Benavente**, **Adrián Costa**, **Chk Chk Chk** eta **The Wedding Present**.

Esan behar da, udazkenean egindako bost kontzertuetatik lautan sold out kartela zintzilikatu zela, beraz, oso udazken oparoa izan zen, dudarik gabe. Eta ez dugu ahaztu behar gainera lau horietatik hiru euskal taldeek eskainitako kontzertuak izan zirela: **Glaukoma**, **NCC** eta **Bidehuts**.

2016 **Musikagela** zerbitzuaren egonkortze urtea izan bazen, 2017 sendotzearena izan zela esan daiteke. Ohiko entsegu lokalen alokairuaz gain, jarduera anitz antolatu ziren eta harrera ezin hobea izan zuten. **VII. Musikagela Weekend** jaialdia izan zen martxoan eta bertan jardun zuten **Nothing Box, Charlie & The Colours, Pelax** eta **Frank** taldeak; talde anitzak eta publiko zabala


© Lorena Otero

Nuevo Catecismo Católicoren urteurren kontzertua.


© Lorena Otero

Glaukoma.

# INTXAURRONDO / LARROTXENE
## KULTUR ETXEA


© Lorena Otero

Musikagela Weekend.

biltzea lortu zutenak. Horretaz gain, **Musikagela Zuzenean** kontzertua eskaini zen udazkeneko sasoiari hasiera emateko eta bertan entseguak egiten jarduten duten hiru talde aritu ziren; ***Glory Howl, Tenpera*** eta **Baipass.**

Horretaz gain, **El Twanguero** eta **Adrián Costa** musikagileak hurbiletik ezagutzeko aukera izan zen ***Musikagelan Topo*** jarduerari esker.

Eta bereziki arrakastatsua izan ziren 2017-2018 ikastaroak, ia denak bete baitziren: Zuzeneko sonorizazioa, Egin musika zure ordenagailuarekin, Bateria, eta abar.

**Komikigintza** ere bada aipamen berezia merezi duen arloa. Urtetik urtera handitzen joan den komiki bilduma eta komikiarenganako erakarpena sustatzea helburu dela, literatura zein komiki solasaldiak antolatu ziren ikasturtean zehar; eta baita bestelako jarduerak ere, horien artean: Komikilabearekin egindako elkarlana dela-eta **Susana Martín** komikilariak Palestinari buruz egindako marrazki erakusketa eta honekin lotutako zenbait bisita gidatu.

Oro har, ugariak izan ziren urtean zehar antolatutako jarduerak eta egitasmoak, horietako batzuk dagoeneko oso errotuak auzoan eta auzoko eragileekin elkarlanean antolatuak. Horien artean dira, esate baterako, **Emakumeen astea**, **XXIII. Ibiltarien astea**, **Extremadurako Kultur Astea**, **VI. Intxaurrondo Eguna.**

**Olatu Talkak, Antzerki Feriak, Giza eskubideen zinemaldiak** edota **Poltsiko Antzerki Jaialdiak** ere izan zuten lekua Intxaurrondon**.** Eta ezin ahaztu ere auzoan zehar egin ziren Kale Antzerkiak.

Aipamen berezia merezi du ere azaroan hasi eta abendua bitartean burutu zen **Baietz 20 Egun Euskaraz** jarduera; izan ere, Intxaurrondo Kultur Etxean egin ziren hainbat jarduerak eta bazkari herrikoia.

Eta ezin ahaztu, era berean, Crowdfunding bitartez kultur etxean aurkeztu ziren hainbat proiektu: **Book Box**, **Teresa Castro**ren ***Lesbicomic*** liburua eta **Julio Santos**en ipuin bilduma.

Amaitzeko, azpimarratzekoa da ere eguneroko jardunean kultur etxean txertatuta dauden hainbat zerbitzuren arrakasta: **+55, Gazteleku eta Haurtxoko zerbitzuak**.

Haurtxoko eta Gazteleku zerbitzuei dagokienean, ekimen ugari egin ziren, bai egunerokoan zein epe luzeko proiektuetan parte hartuz. Haurtxokoari dagokionez, eta haurren partaidetzaren sustapenean aurrerapausoak eman nahian, hainbat proiektu landu ziren: Plus 55ekin batera, **Clown sketch**ak edota Intxaurrondo Hegoa ikastolako Guraso Elkartearekin **Oinbusa** proiektua. Horrez gain, komunitatearekin eta auzoko erakundeekin elkarlanean, **Intxaurrondoko festetan**, **Euskararen Eguna**ren ospakizunean eta **20 ordu baietz!** ekimenean lagundu zuten, bide berriak irekitzeko prestutasun guztia azalduz. Urteko balorazioa oso ona izan zen eta 2018ak ere ekimen berriak ekarriko dituela aurrera daiteke: Txara 2 egoitzarekin, besteak beste...



Zirika Zirkus.

# INTXAURRONDO / LARROTXENE
## KULTUR ETXEA




Bideoaldia.

**Larrotxene Bideo** izen berdineko kultur etxeak eskaintzen duen zerbitzurik ezagunena da. Zerbitzu honek atal desberdinak ditu: grabaziorako eta ediziorako materialen lagapena, proiektu berrietarako aholkularitza zerbitzua eta bideo eta zinema ikastaroen eskaintza, eta horietako grabaketa lanak. Grabaketa lan horien emaitza erakustek plataforma da **Bideoaldia**.

Hala, **XXIX. Bideoaldia** izan zen iaz ekaina amaieran, urtero legez, **Antzoki Zaharrean**, eta ikasturtean zehar egindako hamaika **produkzio eta beste hainbat koprodukzio** ikusteko aukera izan zen**.** Irailean, berriz, Trueban egin zuen Larrotxenek erakustaldia **Donostiako 65. Zinemaldia**ren programazioaren barruan.

Bideo ikastaroek gero eta harrera hobea dute, eta urtetik urtera ikasle kopurua handitzeaz gain, egindako lanen kalitatea ere hoberantz doa, eta lan batzuk zenbait jaialdietan aukeratuak eta sarituak izan dira. Horren adibide dira honako hauek:

• ***Truco o trato***: nazioarteko zenbait jaialditan aukeratua.

• ***Kreba***: Eibarko eta Errenteriako film laburren jaialdietan euskaraz egindako film laburrik onenaren saria eta Begiradak jaialdian gidoi onenaren saria. Horrez gain, aukeratua izan zen Ikuska, Zinegin eta Lekeitioko jaialdietan.

• ***Andante piú forte***: Ikuska jaialdian gidoi onaren saria jaso zuen eta bai Eibarko eta bai Lekeitioko Zine Bileran aukeratu zuten.

• ***Errailak***: Santurtzine, Eibarko film laburren jaialdian, Errenteriako film laburren jaialdian eta Lekeitioko Zine Bileran aukeratua izan zen.

• ***Prudentzio***: Santurtzine eta Eibarko jaialdian aukeratua izan da.

**Materialaren 143 lagapen** egin ziren eta edizio gelak 56 aldiz erabili ziren. Era berean, aipatu behar da **Musikene** goi musika eskolarekin elkarlanean, eskola horretako ikasleek konposatu zituztela Larrotxeneko film laburren **soinu bandak**.

Iaz nabarmentzekoa izan zen **Begiradak - Las otras miradas** Jaialdian Larrotxene Bideok jasotako **saria**; hain zuzen, Ikus-entzunezko hezkuntzan egindako ibilbide osoagatik.

Baina bada bideoaz gain Larrotxeneri izaera berezia ematen dioten hainbat jarduera eta horien artean aipatzekoa izan zen **Lagunekin Kantari** izenekoa. Auzotik bertatik sortutako egitasmo arrakastatsu honen bitartez donostiar kantu zaleak topagune garrantzitsua dute Intxaurrondo Zaharrean. Hala, iaz **Eñaut Elorrieta** eta **Mikel Markez** izan ziren gurean saio bereziak dinamizatzen eta auzoaren atxikimendu handia sortu zuen horrek.

Bestalde **IZBE elkarteak** antolatuta ***Intxaurrondo Atzo eta Gaur: 1970 urtetik aurrera*** argazki **erakusketa** egin zen.

Gainerakoan, **liburutegiak** urteroko bisitari kopuruari eutsi zion eta mailegu zerbitzua indartu eta hobetu egin zen. **Ikastaroek,** oro har, oso harrera ona izan zuten eta haurrentzako liburuen gaineko ekitaldi bereziak antolatu ziren, auzoko hainbat eskoletako ikasleekin lan eginez, eta oso emaitza onak lortuz. Horretaz gain, ezin ahaztu hilero antolatutako formatu txikiko **haur antzerkiak** edota **kale antzerkiak**, Intxaurrondon bertan eta baita **Bidebietan** ere.

# INTXAURRONDO / LARROTXENE KULTUR ETXEA

## INTXAURRONDO KULTUR ETXEA

| JARDUERAK | | |
|---|---|---|
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| **GUZTIRA** | **161** | **16.617** |
| Antzerkia | 12 | 2.834 |
| Musika | 23 | 5.593 |
| Zinea eta bideoa | 5 | 259 |
| Hitzaldiak eta mahai inguruak | 8 | 988 |
| Erakusketak | 5 | 1.230 |
| Bilerak eta elkarteen ekitaldiak | 49 | 1.291 |
| Liburutegiko jarduerak | 25 | 1.025 |
| Plus 55 | 15 | 1.215 |
| Gaztelekua | 3 | 143 |
| Haurtxokoa | 5 | 439 |
| Olatu Talka | 11 | 1.600 |

| ZERBITZUAK | |
|---|---|
| | BISITAK |
| **GUZTIRA** | **73.946** |
| Liburutegiko bisitariak | 62.511 |
| Haurtxokoa | 3.490 |
| Gaztelekua | 4.586 |
| Musikagela | 3.359 |

# INTXAURRONDO / LARROTXENE KULTUR ETXEA

| Prestakuntza **EMAKUMEAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **GUZTIRA** | | **EUSKERAZ** | | **GAZTELANIAZ** | |
| | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** |
| GUZTIRA | 65 | 794 | 10 | 73 | 55 | 721 |
| 2016/17 Ikastaroak | 28 | 353 | 4 | 33 | 24 | 320 |
| 2017/18 Ikastaroak | 37 | 441 | 6 | 40 | 31 | 401 |

| Prestakuntza **GIZONAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **GUZTIRA** | | **EUSKERAZ** | | **GAZTELANIAZ** | |
| | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** |
| GUZTIRA | 65 | 255 | 10 | 22 | 55 | 233 |
| 2016/17 Ikastaroak | 28 | 118 | 4 | 12 | 24 | 106 |
| 2017/18 Ikastaroak | 37 | 137 | 6 | 10 | 31 | 127 |

**BISITAK GUZTIRA: 235.201**

## LARROTXENE
KULTUR ETXEA

| JARDUERAK | | |
|---|---|---|
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| **GUZTIRA** | **66** | **4.008** |
| Antzerkia | 8 | 400 |
| Musika | 5 | 380 |
| Zinea | 2 | 470 |
| Bilerak eta elkarteen ekitaldiak | 41 | 585 |
| Liburutegiko jarduerak | 10 | 2.173 |
| **ZERBITZUAK** | | |
| | | BISITAK |
| **GUZTIRA** | | **14.480** |
| Liburutegiko bisitariak | | 11.400 |
| Bideo tailerra | | 3.080 |

# INTXAURRONDO / LARROTXENE
KULTUR ETXEA

| Prestakuntza **EMAKUMEAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | | EUSKERAZ | | GAZTELANIAZ | |
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| GUZTIRA | 33 | 399 | 7 | 85 | 26 | 314 |
| 2016/17 Ikastaroak | 16 | 230 | 4 | 56 | 12 | 174 |
| 2017/18 Ikastaroak | 17 | 169 | 3 | 29 | 14 | 140 |

| Prestakuntza **GIZONAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | | EUSKERAZ | | GAZTELANIAZ | |
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| GUZTIRA | 33 | 154 | 7 | 34 | 26 | 120 |
| 2016/17 Ikastaroak | 16 | 62 | 4 | 15 | 12 | 47 |
| 2017/18 Ikastaroak | 17 | 92 | 3 | 19 | 14 | 73 |

**BISITAK GUZTIRA: 126.963**

**BISITAK GUZTIRA INTXAURRONDO / LARROTXENE: 362.164**

# **LOIOLA**
# KULTUR ETXEA



*Supituki, Tutik Clowns*, Gari, Montxo eta Joselontxo, Kale Antzerkia.

2017an bi jarduera mota dira aipagarrienak, **Arte Biziak** izendatu litezkeenak: **Euskal Mitologia erakusketa** eta **Ipuinaren Ibilbidea Jan-ta-loin**. Bi jarduera nagusien barruan antzerkia, dantza, poesia, performanceak, kantak, proiekzioak, hitzalditxoak, bideo grabaketak, musika zuzenean, ipuin kontaketak, argazkiak eta abar izan ziren eta, gainera, auzolanean edo auzo eragileekin sortu ziren.

Hori esanda, ohiko programazioari dagokionez, hona hemen eduki azpimarragarrienak:
**Poltsiko Antzerkia**ren Jaialdiaren 26. urteurrena, **Rafael Maza**ren ***Hey Bro! Hipster show!*** nabarmendu zelarik; **Kale Antzerkia**, **Trapu Zaharra**ren ***A Cal y Canto*** lanarekin; **Nazioarteko Folklore Jaialdia**, Indiako eta Txuvaxiako taldeekin; edo **Abesbatzen Astea**n **The Girls' Choir of the Old Town Music House** abesbatza estoniarrak Tolosako Abesbatzen Lehiaketako sarituak emandako kantaldia. Denak, kultur etxetik kanpo eta publiko andanarekin.

Loiolako eta Martuteneko Euskara Batzordeekin, jarduera ugari egin ziren: **San Isidro, San Martin Topaketak, Santo Tomas, Korrika**, udaberrian egiten den **Euskal Kulturaren Ildotik** zikloa, eta hilero osatzen den **Kantujira**, kaleko musikarien jardunaldiekin: **Bentazaharreko Mutiko Alaiak**, **Iruñeako Zazpietan Lehena Jota Taldea**, **Iker Goenaga** eta Trikitilariak, **Joxe Mendizabal**en erromeria.com...

**Lantegi eta ikastaroei** dagokionez, ohikoez gain (Pilates, Yoga, Dantzak, PNLCoaching, Mindfulness, Meditazioa...), Biodantzakoak berreskuratu ziren eta berri-berria izan zen Kabaret eta Burlesque.

**Erakusketetan,** aurreko urteetan bezala, 5 erakusketa gune erabili ziren: kultur etxeko erakusketa aretoa, atondoa eta komunak, **Lekuona** drogeriako eta **Gorriti** janari dendako erakusleihoak, eta Etxarriene. Besteak beste, **Zita Ayala**ren ***Argizkutua*** oso originala izan zen; **Abbé Pierreri** Emausek egindako omenaldia; ***Euskal Mitologia*****, Alberto Saavedra** zenaren panpinekin; **Haritzalde** eta



Mikologia jardunaldien *Astotxoa*.

# **LOIOLA**
# KULTUR ETXEA



Kantujira, *Bentazaharreko mutil alaiak*.

**Ramón Arambarri**ren ***Urumea Bizi*** argazki erakusketa eta Loiolako argazki historikoak auzoan, Kultur Etxeko bildumarekin.

Bideoek eta filmek ere tokia izan zuten, esaterako, **Olatu Talka**n. Aurten ere pelikula bat egin zen, **Loiola *D'Or Ciudad de Vacaciones***, **Axel Casas**ek zuzenduta, eta ehun bat auzotarrek parte hartu zuten. Auzotarrek beste bi proiektuetan ere parte hartu zuten: Euskal Mitologiarako bideoetan eta **Juanmi Gutiérrez**en ***Bideak Amesten*** filman.

Programa hauetan guztietan haur eta gazte askok parte hartu zuten: Loiola D'Or, Jan-ta-loin eta Euskal Mitologian, auzoetako eragile soziokulturalekin lan eginez: **Sustrai Aisialdi Taldea, Tan Tai Konpartsa, Hontza Kultur Elkartea, Gure Babesa Aiton-amonen Elkartea**...

Ohiko beste programak, urtetan garatu direnak, gutxienez aipamena merezi dute memoria honetan: **Mikologia**, **Panpin Parada, Poetry in Motion, Vintage Festibala, Hidro-Logikak..**.

Bukatzeko, esan ere, bi programa berri martxan jarri zirela: **Politika eta Ekologia** eta liburutegian, **Liburu Baby Kluba**.



*Loiola d'Or* ekimena Olatu Talka jaialdian.



Halloween ospakizuna.

# LOIOLA
KULTUR ETXEA

| JARDUERAK | | |
|---|---|---|
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| **GUZTIRA** | **174** | **36.943** |
| Antzerkia | 20 | 3.160 |
| Dantza | 2 | 2.500 |
| Musika | 27 | 3.780 |
| Zinea | 8 | 400 |
| Hitzaldiak eta mahai inguruak | 6 | 245 |
| Erakusketak | 17 | 23.019 |
| Bilerak eta elkarteen ekitaldiak | 29 | 743 |
| Liburutegiko jarduerak | 37 | 496 |
| Olatu Talka | 4 | 500 |
| Beste | 24 | 2.100 |

| ZERBITZUAK | |
|---|---|
| | BISITAK |
| **GUZTIRA** | **24.754** |
| Liburutegiko bisitariak | 24.754 |

# LOIOLA
KULTUR ETXEA

| Prestakuntza **EMAKUMEAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | | EUSKERAZ | | GAZTELANIAZ | |
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| GUZTIRA | 31 | 387 | 8 | 91 | 23 | 296 |
| 2016/17 Ikastaroak | 12 | 155 | 2 | 27 | 10 | 128 |
| 2017/18 Ikastaroak | 19 | 232 | 6 | 64 | 13 | 168 |

| Prestakuntza **GIZONAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | | EUSKERAZ | | GAZTELANIAZ | |
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| GUZTIRA | 31 | 73 | 8 | 14 | 23 | 59 |
| 2016/17 Ikastaroak | 12 | 28 | 2 | 5 | 10 | 23 |
| 2017/18 Ikastaroak | 19 | 45 | 6 | 9 | 13 | 36 |

**BISITAK GUZTIRA: 42.000**

# LUGARITZ
KULTUR ETXEA




Ados Teatroren *Idiot txou*.

Berriro ere, arte eszenikoek, antzerkiak eta musikak, hartu zuten Lugaritzeko urteko programazioaren zati handiena. **Antzerkia**ren eremuan, **Cabaret Mutante** eta **Club Caníbal** konpainien antzezlanek interes handia piztu zuten, umorerik garratzena zerien testuinguruen barruan inplizituki eskaintzen zuten kritika sozial eta politikoagatik. Plano dramatikoago batean, **Javier Liñera**ren eta **Cuarta Pared**en parte hartzea izan genuen eta, tonu erabat umoretsu batean, nabarmentzekoa **Ados Teatro**aren ***Idiot txou***. Eta nabarmentzekoa ere **Ignacio Andreu**k bere obrari eman zion tonu surrealista, eta baita ***La propuesta***ren erabateko estreinaldia hainbat antzezle donostiarren eskutik, **Alazne Etxeberria** eta **Vega Iguarán** buru zirela. Aipatu beharrekoa ere **Compañía Reverso**k Dferia jaialdian eskainitako emanaldia.



Club Canibal taldearen *Herederos del ocaso*.



Gen Theater Companyren *Adele* antzezlana.

**Imanol Larzabal** aretoko eszenatokiak hainbat konpainiari eskaini zen beren lanak aurkezteko aukera: zenbait taldek –**Kemen**, **Tgorrieta, La Rata India, Ausartak**, besteak beste– eta **Gautena**ko antzezle gazteek eskaini zituzten proposamenak.

Publikoaren aldetik oso harrera ona izan zuten **Markeliñe**, **Glu Glu** eta **Gorakada**ren proposamenek, eta askotariko teknikak eta diziplinak erabili dituzten Euskal Herritik kanpoko konpainiak ere ongi hartu dituzte ikus-entzuleek.

2017an, gainera, **Poltsiko Antzerkia**ren programazioarekin beste eszenatoki batzuk ere ukitu ziren –Antigua, Igeldo eta Añorgako lokaletan– eta foro berriak ere sortu ziren kalean, erregistro oso desberdinetako lanekin: **Trapu Zaharra** edo **Claire Ducreux** taldeek planteatutakoekin, esaterako. Antzerki atala ixteko, nabarmentzekoa da Lugaritzen mugaren bi aldeetako antzezleek osatutako **Cíe Hecho en Casa** konpainiak egin zuen **egonaldia**; hainbat jardunalditan *Cyrano* Frantziako klasikoaren egokitzapenaren euskarazko bertsioa prestatzen aritu ziren, eta horri lotuta hainbat tailer eta bisitaldi egin zituzten Ibai ikastolako ikasleekin.

# LUGARITZ
KULTUR ETXEA



Javier Muguruza

**Musika** programazioa, gehienbat euskaraz, proposatutako estiloen heterogeneotasunagatik nabarmendu zen. **Jabier Muguruza** eta **Maddi Oihenart** bezalako beteranoez gain, haien soinuaren berezitasunagatik bereizten den **Kherau** talde bizkaitarrena eta **Asier L.I.**ren musika pertsonal, elektroniko eta esperimentala, poesia darien testuekin batera. Beste atal batean, **Pragako Haur Abesbatza Filarmonikoa**k Ibaetako parrokian eskaini zuen emanaldi arrakastatsua aipatu behar dugu eta, nola ez, lehen mailako bertsolariek osatutako saioa, dagoeneko klasiko bilakatu den **Donostia bertsotan** ekitaldian. Urtea amaitzeko, **Luar na Lubre**ren emanaldi izugarri arrakastatsua nabarmenduko genuke, musikaren munduan egindako 30 urteak ospatzeko egindako biraren barruan.



Kherau.

**Zinema**ren atalean, **Giza Eskubideen Zinemaldia**n ere parte hartu zuen Lugaritzek, eta nabarmentzekoa izan zen yogari buruz **Nicolás Gauthier**rek Indian egindako dokumentalak izan zuen harrera izugarri ona. Gainera, ikasleei eskainitako euskarazko zinemaren **Tinko** programa ere izan zen.

Kultur hiriburuaren ondare gisa, **Olatu Talka** programazioan, batik bat antzerkia, musika eta dantza hartu zituen Lugaritzeko eszenatokia eta Antiguako beste hainbat gune.

**Erakusketei** dagokienez, oso urte ona izan zela esan genezake, non nabarmendu behar dugun **Arkeolan**ekin lankidetzan egindakoa euskal itsasertzean gertatutako naufragioen inguruko erakusketa, oso une hunkigarriak eragin zituena bertaratu ziren hildako itsasgizonen senideen eta lagunen artean.



Euskal Itsasertzeko 20 naufragio erakusketa.

Erakusketa horretako materialekin eta beste batzuekin batera liburu interesgarri bat editatu zen. Merezi du beste bi erakusketa ere aipatzeak: **Ikerne Giménez**ena, espazio eszenografikoen sorkuntzara bideratua, eta **Aitziber Alonsorena**, liburuen ilustrazioaren eremuan oinarritua. Azkenik, aipatzekoa da emakume ugarik jasaten duten sexu esplotazioa salatzeko egindako erakusketa, eta baita **La Cornisa que cae** kolektiboarena ere, zenbait sortzaile donostiarren ingurukoa, haien bizitzari eta obrari buruzko bideo dokumental batzuen proiekzioarekin osatua.

Urtean zehar egindako **ikastaroek eta tailerrek** ere, bai Kultur Etxean bertan bai Antiguako eta Ibaetako beste gune batzuetan, harrera ona izan zuten herritarren aldetik eta aipatzekoa da antzerki ikastaroetan izan zen ikasle gehikuntza.

**Liburutegi** zerbitzuari dagokionez, bikain funtzionatu zuten kontsulta eta mailegu zerbitzuek, dokumentu eta erreferentzia bibliografikoari lotutakoak, eta liburu elektronikoen *eliburutegiak*. Irakurketa bultzatzeko jarduerek ere fruitu onak eman zituzten: haurrei zuzenduta, **Ipuinaren Ordua** eta **Txikikluba**, eta helduei zuzenduta, **Literatura & kafea** eta **Giza Liburutegia**, Plus 55ekin lankidetzan. Gainera, aipatzekoa da **Iban Zaldua**ren partaidetza, zeinak tesi iradokitzaileak landu zituen euskal literaturaren inguruan **Liburutegien Eguna** zela-eta eskainitako solasaldian. Literaturak eta musikak bat egin zuten Literaktum jaialdiaren barruan, musika errezitaldi eta performance modura **Irati Jimenez** eta **Petti** tandemak eskainitako ***Nigan, ispilu batean bezala*** lanaren bitartez. Nagusientzako **Plus 55**eko jarduerak dagoeneko aipatu ditugun atal desberdinetan eragina izan bazuten ere, garrantzia berezia izan zuten **hondartzan** eta **Antiguako Merkatua**n egin ziren jarduerei esker, baita Kultur Etxearen barruan nahiz kanpoan sustatutako bideo-forum, solasaldi eta tailerren bitartez ere.

2017an berriro argi geratu zen gero eta handiagoa izan zela Merkatuko ekipamendua erabili nahi duten elkarteen eskaria, baita **Haurtxoko** eta **Gazteleku** zerbitzua (orain gune horretan egun batez bakarrik eskaintzen da) zabaltzeko premia nabaria ere.

# LUGARITZ
# KULTUR ETXEA

| JARDUERAK | | |
|---|---|---|
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| **GUZTIRA** | **1.864** | **35.742** |
| Antzerkia | 87 | 9.235 |
| Musika | 19 | 2.209 |
| Zinea | 6 | 239 |
| Hitzaldiak eta mahai inguruak | 12 | 686 |
| Erakusketak | 6 | 1.956 |
| Bilerak eta elkarteen ekitaldiak | 1.524 | 16.049 |
| Liburutegiko jarduerak | 44 | 905 |
| Plus 55 | 41 | 1.252 |
| Gaztelekua | 63 | 623 |
| Haurtxokoa | 56 | 1.224 |
| Olatu Talka | 6 | 1.364 |

| ZERBITZUAK | |
|---|---|
| | BISITAK |
| **GUZTIRA** | **41.394** |
| Liburutegiko bisitariak | 35.421 |
| Haurtxokoa | 1.402 |
| Gaztelekua | 1.004 |
| Kzgunea | 3.567 |

# LUGARITZ
KULTUR ETXEA

**Prestakuntza EMAKUMEAK**

| | GUZTIRA | | EUSKERAZ | | GAZTELANIAZ | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** |
| GUZTIRA | 60 | 594 | 18 | 143 | 42 | 451 |
| 2016/17 Ikastaroak | 29 | 243 | 9 | 69 | 20 | 174 |
| 2017/18 Ikastaroak | 31 | 351 | 9 | 74 | 22 | 277 |

**Prestakuntza GIZONAK**

| | GUZTIRA | | EUSKERAZ | | GAZTELANIAZ | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** |
| GUZTIRA | 60 | 241 | 18 | 74 | 42 | 167 |
| 2016/17 Ikastaroak | 29 | 135 | 9 | 41 | 20 | 94 |
| 2017/18 Ikastaroak | 31 | 106 | 9 | 33 | 22 | 73 |

**BISITAK GUZTIRA: 111.678**

# **OKENDO**
# KULTUR ETXEA



*Gu hobeto ikusteko* erakusketa.

Sortu zenean hasitako lan ildoa jarraitu zuen 2017an Okendo Kultur Etxeak. Hala, **arte plastiko**en arloan lan egin zuen bereziki, aurretik abian ziren proiektuak egonkortuz eta berriak martxan jarriz.

Kultur etxean egindako erakusketen maila interesgarria izan da, eta bereziki, zinemarekin lotutakoak nabarmendu ziren: **Fernando Mircala**ren ***Zinema, papera eta guraizeak*** eta **Pedro Usabiaga**ren ***Mila garrasi gauean***. Aipatzekoa da ere 2016ko Europako Kultur Hiriburutzari ***In&At*** erakusketarekin egindako omenaldia; hain zuzen ere, egitasmo horrekin eman zitzaion amaiera Hiriburutzarekin lotuta egindako lanei. Aipamena merezi dute **Jose Luis López Ros** artistaren mosaikoekin egindako erakusketak eta **Sophie Collen Scali** eta **Jean Luis Tartas** artisten eskultura eta margolanekin egindakoak. Zientziaren mundua ere jorratu dugu **Nanogune**rekin elkarlanean antolatutako ***Ibilaldi bat nanomunduan barrena*** erakusketarekin.

Eraikin zaharreko erakusketa aretoa ere ezin ahaztu, urte osoan zehar **tokiko artisten lanak** jaso baitzituen, adibidez **Leire Aranburu**k *Bic* boligrafoekin egindako lanen erakusketa. Eraikin zaharrean erakusketa kolektiboak ere egin ziren, besteak beste, **Euskadiko Itsasargien Elkartea**rekin eta **Catalina Erauso Arte Elkartea**rekin elkarlanean antolatutakoak.

Arte plastikoetan espezializatuta egonagatik, beste diziplina batzuetako ekimenak ere egin ziren kultur etxean. Horren adibide artista ezagunek emandako zenbait diziplinatako eskola magistralak. Horietan, artean interesatutako erabiltzaileek teknika berriak ezagutu eta goi mailako irakaspenak eskuratzeko aukera izan zuten. Era berean erakusketekin lotutako jarduerak ere eskaini ziren, adibidez bisita gidatuak, tailerrak edo ikuskizunak. Horiei esker, erakusketen edukietan sakontzeko aukera izan zuten herritarrek.



Fernando Mircalaren master class.



*Zinema, papera eta guraizeak* erakusketa.

# **OKENDO**
# KULTUR ETXEA



San Juan sua Saguesen.

Auzoko elkarteekin elkarlana ohikoa izan zen 2017an ere, besteak beste, kultur etxeko aretoak euren ekitaldiak antolatzeko utziz edo auzoko jaietan parte hartuz. Azken horren adibide dira **San Juan** eta **San Tomas** egunetan antolatutako musika kontzertuak. **Antxeta elkartea**ren 50. urtemuga ospatzeko antolatutako ekitaldiak nabarmendu ziren, zehazki kontzertu bat eta haurrei zuzendutako hainbat tailer. Ezin aipatu gabe utzi ere tokiko artistekin Groseko hainbat taberna eta aretotan antolatutako kontzertuak eta **poltsiko antzerkiko** ikuskizunak.

Donostiako hainbat elkarte eta erakunderekin elkarlanean azken urteotan antolatutako ziklo eta hitzaldiei ere jarraipena eman zitzaien, besteak beste, osasunaren, naturari edo ekologiari buruzkoak. **Santiago Bidea**ren inguruko jardunaldiak edo eskualdeetako etxeekin antolatutakoak ere aipatutakoaren adibide dira. Kultur etxeko zerbitzuen funtzionamendu egokia ere aipatu behar da. **Liburutegiak, KZ Guneak, Gaztelekuak, Haurtxokoak** eta **Plus 55** zerbitzuak antolatutako ekitaldiak arrakastatsuak izan ziren, eta kultur etxearekin elkarlanean jardun zuten herritarren arretan, Okendoren izaera irekia sustatuz eta erabiltzaileen beharrei erantzunez.

Okendon emandako ikastaroen gainean, berriz, arrakasta aipatu behar da. Kultur etxea arte plastikoetan espezializatuta dagoela ahaztu gabe, beste diziplina batzuk ezagutzeko aukera eskaini zitzaien erabiltzaileei: **Luisa Etxenike**, **Ane Mayoz** eta **Montserrat Fornells**ek emandako ikastaroak nabarmendu ziren, ohiko eskaintza izugarri aberastu baitzuten.

Amaitzeko, aipatu beharra dago guztira **260.000 aldiz** erabili dituztela **herritarrek** kultur etxearen zerbitzuak edo parte hartu zutela guk antolatutako jardueretan. Horrenbestez, herritar ugariren beharrei erantzun zitzaiela esan daiteke, ez soilik Grosekoak, baizik eta Donostia guztikoak.




Almudena Grandesen hitzaldia Literaktum jaialadian.



Kale antzerkia.

# OKENDO
KULTUR ETXEA

| JARDUERAK | | |
|---|---|---|
| | **KOPURUA** | **ERABILTZAILEAK** |
| **GUZTIRA** | **1.473** | **114.015** |
| Antzerkia | 16 | 2.743 |
| Dantza | 9 | 1.255 |
| Musika | 21 | 4.398 |
| Zinea | 50 | 2.656 |
| Hitzaldiak eta mahai inguruak | 144 | 12.063 |
| Erakusketak | 18 | 66.874 |
| Bilerak eta elkarteen ekitaldiak | 107 | 1.804 |
| Liburutegiko jarduerak | 109 | 2.495 |
| Plus 55 | 101 | 8.386 |
| Gaztelekua | 353 | 2.750 |
| Haurtxokoa | 486 | 6.596 |
| Olatu Talka | 23 | 1.740 |
| Beste | 36 | 255 |

| ZERBITZUAK | |
|---|---|
| | **BISITAK** |
| **GUZTIRA** | **163.970** |
| Liburutegiko bisitariak | 132.457 |
| Haurtxokoa | 13.965 |
| Gaztelekua | 8.554 |
| Kzgunea | 8.994 |

# OKENDO
KULTUR ETXEA

| Prestakuntza **EMAKUMEAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | | EUSKERAZ | | GAZTELANIAZ | |
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| GUZTIRA | 74 | 1.231 | 11 | 45 | 63 | 1.148 |
| 2016/17 Ikastaroak | 33 | 565 | 4 | 33 | 29 | 534 |
| 2017/18 Ikastaroak | 41 | 666 | 7 | 12 | 34 | 614 |

| Prestakuntza **GIZONAK** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | | EUSKERAZ | | GAZTELANIAZ | |
| | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| GUZTIRA | 74 | 335 | 11 | 24 | 63 | 302 |
| 2016/17 Ikastaroak | 33 | 186 | 4 | 12 | 29 | 165 |
| 2017/18 Ikastaroak | 41 | 149 | 7 | 12 | 34 | 137 |

**BISITAK GUZTIRA: 260.848**

# LIBURUTEGIAK


© Gorka Estrada

Alderdi Ederreko Liburutegi Nagusia.

Liburutegi Sarea Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sartu zen 2016an, eta esan daiteke 2017an ondo ekin geniola egokitze-prozesuari programa informatiko berria kudeatzeari dagokionez, eta lanean jarraitzen dugula Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen antolakunde-egitura hobetzeko.

Bi bilera egin genituen Eusko Jaurlaritzarekiko hitzarmena aztertzeko; besteak beste, Opac Absysnet bidezko lineako informaziorako irispidearen arazoa aztertzeko, Donostiako erabiltzaileek behin eta berriz eskatu baitziguten aurreko sistemara itzultzeko, hots, Vufind-era. Zenbait hobekuntza egin eta OPACen bertsioa aldatu arren, hori ez da aski. Izan ere, OPAC edo katalogoa online zerbitzu oso garrantzitsu bat da gaur egun liburutegi publikoentzat, eta argia eta intuitiboa izan behar du.

Donostiako Liburutegi Sareak hiri honetako Koldo Mitxelena Liburutegiarekin bateratzeko lanean jardun zuen 2017an. Donostiako Liburutegi Nagusi bakar bat diseinatzeko lan teknikoa egin zen, zeina egungo Koldo Mitxelena Kulturunean egongo bailitzateke. Bi liburutegiek bat eginez gero, gaur egun zeinek bere aldetik eskaintzen dituen zerbitzuak batu eta emendatu egingo lirateke.

Baztertu egin zen bat egite fisikoa, antolakuntza- eta titulartasun-arazoak zirela eta, baina beti bezala jarraituko dugu lanean helburuak bateratzeko, liburutegi-zerbitzuen bikoiztasuna saihesteko eta herritarrak jartzeko betiere gure zerbitzuaren ardatz.

Nahiz eta aldaketa informatikoa egin eta Tabakalerako Ubik liburutegi berria ireki, datuek argi adierazten dute 2017an ere udal liburutegiak garrantzitsuak izan zirela donostiarrentzat.

**Bisitak eta maileguak**

Gure liburutegiek **901.965 bisitari** izan zituzten.

Maileguak, berriz, **461.000** izan ziren. Eta liburu digitalen maileguak, **5.828**.

**Erosketei** dagokienez, **32.106 dokumentu** berri sartu ziren funtsean. Berritze-kuota % 5,90ekoa izan zen. Funtsen bilduma ona izateak bereizten du liburutegi-sare bat gaur egun diren kultura-ekipamendu ugarietatik.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean, **78.316** lagun daude izena emanda Donostiako Liburutegi Sarean, eta horietako **% 35** bazkide aktiboak dira, eta erabili egin zuten mailegu-zerbitzua 2017an.


© Gorka Estrada

Liburutegi Nagusian 232.118 bisita izan ziren.

# LIBURUTEGIAK




Kontxako arkupeetan aurtengo udan lehen aldiz martxan jarritako Eguzkiteka.

**Proiektuak**

2017ko proiektu nagusia **Eguzkiteka** izan zen, Kontxako pasealekuko hegalpean egon ohi den udako liburutegia, erlojuen aldean, hots, La Rotonda diskoteka zenaren parte batean, non irakurketa-gune bat sortu baitzen era guztietako jendearentzat.

Liburutegi hori hondartzan kokatzea irakurketarako gune berriak bilatzeko liburutegi-politikan sartzen da, Kontxako hondartza puntu neuralgikoa baita Donostiako udan, eta itsasoari begira irakurtzea da eskaintzen den zerbitzu berria.

Eguzkitekak oso ordutegi zabala izan zuen; uztailaren 7tik abuztuaren 31ra arte egon zen irekita, astelehenetik igandera eta 11:00etatik 19:30era. Arratsaldero, 17:00etan, Lur Kortak ipuin-kontaketa saioa egiten zuen haurrentzat. Liburuak hondartzara eraman zitezkeen han irakurtzeko, eta liburutegia itxi aurretik itzuli behar ziren.

Hondartzako liburutegia eratzen zuten elementu fisiko guztiak –liburu-apalak, mahaia eta aulkiak– erretiratu egiten ziren eguna amaitzean, horixe eskatzen baitu indarrean dagoen Kosten Legeak, eta biharamun goizean berriro ipintzen ziren. Hartara, hegalpeko pasabidea libre uzten zen.

Bilduma 800 bat liburuk osatu zuten, eta aisialdirako eta eguneko bisitarientzako liburutegi baten ideiari erantzuten zion; batez ere, literatura argitaratu berria (% 76) eta informazio-liburuak, hala nola Donostiari buruzko argitalpenak eta abar (% 24).

Baziren egunkariak ere, Donostiakoak, Euskal Herrikoak, Espainiakoak eta nazioartekoak, bai eta dibulgazio-aldizkariak ere. Guztira, 51 titulu eskura. Bildumaren parte bat helduentzat zen (% 58), eta beste parte bat haurrentzat (% 42). Banaketa horretan, irakurketa errazeko liburuen sail bat sartzen zen, irakurtzeko zailtasunen bat dutenentzako modukoa.

Hizkuntza-banaketaren aldetik, % 29 euskaraz ziren, % 54 gaztelaniaz, % 9 ingelesez eta % 8 frantsesez. Eguzkitekaz gainera, Liburutegi Zerbitzuak badu beste **uda-liburutegi** bat ere, **Urgull**en, Damen Baterian. Duela hogei urte ireki zen lehen aldiz, eta leku ezin hobea izaten jarraitzen du irakurtzeko. Urgulleko liburutegiak prentsa eta liburuak irakurtzeko alde bat du, Interneterako sarbidea ere ematen du, bai eta mailegu-zerbitzua ere, Donostia Kulturako sareko beste liburutegiek bezala, eta haurrentzako jarduerak astero.

Bi liburutegiok, Eguzkiteka eta Urgulleko liburutegia, urte-sasoi batzuetan baizik ez dira egoten zabalik. Eguzkitekaren kasuan, uztail-abuztuetan. Urgulleko liburutegia urtean bitan irekitzen da: Aste Santu eta Pazkoan, eta udan, uztail-abuztuetan.

Beste proiektu tekniko oso garrantzitsu bat ere burutu zen 2017an: Mandasko Dukearen liburutegiko funtsak egokitzea eta ordenatzea. Liburuak garbitzeari ekin zitzaion, behar bezala gordetzeko, eta bizkarreko etiketak kentzeari, liburu zaharretan ez baita itsatsi behar etiketarik. Udal liburutegia 1874an fundatu zen, Euskadiko lehenengoetako bat da, eta **87.760 dokumentu**ko ondare-bilduma du.

**Argitalpenei** dagokienez, **sareko orri-markatzailea** nabarmenduko dugu, urtero bezala. 2017an, Jokin Mitxelena ilustratzaileak egin zuen. Gainera, 2017ko IrakurLee gida




Ipuin maratoia.

argitaratu genuen, https://www.donostiakultura.eus/images/publicaciones/irakurlee2017.pdf, familia osoarentzako erreferentzia bibliografikoz osatua.

Haurrekin irakurketa-dinamizazio lana egiten jarraitu zen. Nabarmentzekoa da batez ere urte osoan zehar izandako programazioa: ***Liburu Baby Kluba***, hiru urte arteko haurrentzat, Mestiza elkartearen lankidetzarekin; ***Ipuinaren ordua*** izeneko ohiko jarduera, 2-4 urteko haurrentzat; ***Irakurketa-kluba***, 6 eta 8 urte artekoentzat, **Galtzagorri**ren ***Bularretik Mintzora*** programaren barruan; **Irakurketa digitalerako kluba**, 9-10 urteko aurrentzat. Saioetan, 20 haur izan ziren batez beste, haiei lagun egiten zieten helduez gainera. ***Ipuin kontalarien III. maratoia*** ere egin zen. Lau saio, eta 120 lagun bildu zituzten. Jarduera hori sendotu egin zen. Prestakuntzari dagokionez, berriz, EHUko Udako Unibertsitatearekin lankidetzan, "Haur literatura 0-8 urte bitartean" lantegia antolatu zen, eta **Oihana Etxegibel, Juan Kruz Igerabide** eta **Itziar Zubizarreta** izan ziren irakasleak. Bi saio, eta 20 lagun bildu zituen bakoitzak.

Haur literaturari buruzko ***Uhartearen altxorra*** erakusketa San Telmo Museoarekin lankidetzan antolatu zen, eta Haur Liburutegiak ikastetxeekin ohi duen lankidetza sendotu zuen. 28 taldek, 604 ikaslek guztira, bi bisita egin zituzten Haur Liburutegira, eta liburutegiek hautaturiko liburu-sailak eraman zituzten maileguan beren ikasgeletara.

**Eduki digitalen sorkuntza**ren sailean, Hiriburutzak utzitako ondarea landu zuen Liburutegi Zerbitzuak, hau da, Wikipedia, Wikiliburutegiak programa eta haur literaturari buruzko artikuluak sortuz, idazleei buruzko artikuluez gainera. Wikipedialariaren figura kontratatzeari eta liburuzainen taldeak egindako lanari esker, bultzada ederra eman zitzaion proiektuari. Abenduaren 4an zabalkunde-eguna egin zen Euskararen Egunaren barruan. Bestalde, liburuzainak zerbitzuko bi blogak martxan edukitzeaz arduratu ziren. Jardueren zabalkunderako Twitter sare sozialak oso ondo funtzionatu zuen, eta emendatu egin zen jarraitzaileen kopurua.



Ipuinaren ordua.



Kirmen Uriberekin solasaldia.

## Jarduerak

Jardueren egutegia **Poesiaren Nazioarteko Eguna**rekin hasi zen, martxoaren 21ean. Liburutegiak egun hori indartu nahian ari dira, Kultur Ekintza sailarekin batera. Ernest Lluch Kultur Etxeak eta Liburutegi Nagusiak poesia-programa bat antolatu zuten 20 eta 21erako.

Egun nagusia **Liburuaren Nazioarteko Eguna** izan zen, noski, apirilaren 23a, noiz eta, Gipuzkoa plazako ohiko azokaz gainera, zenbait jarduera antolatu baitziren, gehienak ere ludikoak, kontuan izanik 2017an egun hori igandean egokitu zela. **KontuKantoi**k ***Bazen noizbait, nonbait, norbait*** ikuskizuna aurkeztu zuen, eta ikuskizun horretan banatu zitzaizkien sariak 2016an mailegu gehien egin zituzten hamar haur irakurleei. Orobat, **Ana Apika** kontalariak eta **Intxixu Valbuena** gitarra-jotzaileak familientzako ipuinak kontatu zituzten. Helduek eduki literarioko goiz-ibili bat egiteko aukera izan zuten **Pasaia**ra, herri horretan kokatutako eleberrietan zentratua. Besteak beste, **Harkaitz Cano**ren ***Pasaia Blues***, **Raúl Guerra Garrido**ren ***Cacereño***, **Ibón Martín**en ***El faro del silencio*** eta **Dolores Redondo**ren lehen eleberria, ***Algo que nunca debió ser***. Pasaiak aukera eman zuen, halaber, **Victor Hugo** gogoratu eta haren museo-etxea bisitatzeko. Arratsean, azokari amaia emateko, Joseba Irazokiren kontzertua izan genuen.

Liburuaren Eguneko jarduerak apiril osoan zehar egin ziren. ***Itzal Zaunka*** kontzertua azpimarratu behar da, Antzoki Zaharrean, **Jexuxmai Lopetegi eta Noizbehinka Banda**rekin, Harkaitz Cano eta Antton Olariagaren *Itzal Zaunka* disko-liburuan oinarritua.

**Liburutegiaren Eguna**k **Big Data, kultura eta liburutegiak** hartu zituen gaitzat; zenbait hitzaldi egin ziren, aurten Tabakaleran, hiru erakunde antolatzaileen artean ezarritako txanden arabera (Donostia Kultura, Koldo Mitxelena eta Tabakalera).
Literatura-programazioei dagokienez, **Literaktum** nabarmendu behar, zeinak lehen aldiz haurrei eskainitako sail berezi bat izan baitzuen: **Literaktum Txiki**. Liburutegi Zerbitzuak ***Urrezko giltza*** saioa antolatu zuen, non **Patxi Zubizarreta**k eta **Jokin Mitxelena**k jardun baitzuten. Helduentzako programazioa anitza izan zen; nabarmentzekoak, esate baterako, **Pasaian Victor Hugo gaitzat hartuta egindako paseoa**, haren museo-etxea bisitatuz, eta **Madame Bovaryri buruzko solasaldi-afaria**, Gastronomiazko Euskal Anaiartean. Gaur egungo literaturari buruz, honako jarduera hauek antolatu ziren: **Uxue Alberdi**ren ***Jenisjoplin*** berriki argitaraturiko liburuari buruzko solasaldi-aurkezpena, **Iván Repila** eta **Sergio del Molino**ren arteko solasaldia, Antonio Casado moderatzaile, eta ***Isturitzetik Etiopian barrena*** errezitala.
**Literatura-solasaldiak** dira oraindik ere liburutegi-zerbitzuaren apustu sendoena. Gaur egun, helduentzako **lau solasaldi** izaten dira **hilero**, **euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez** eta **ingelesez**. Euskarazko eta gaztelaniazko taldeetan, urtean bitan, gonbita egiten zaie autoreei beren liburuaren inguruko solasaldian parte har dezaten. 2017an, **Ana Malagón, Elvira Navarro** eta **Kirmen Uribe** izan genituen gurekin.

Literatura-jardunaldien barruan, poesiak bere leku berezia izan zuen. Nazioarteko Eguna ospatzeaz gainera, **gazteentzako poesia lehiaketa** bat egin zen, Balea Zuria argitaletxearekin lankidetzan. **Poesia Orduak** errezitaldiek, Euskal Jaien barruan eta Euskal Idazleen Elkartearekin batera antolaturik, oso harrera ona izan zuten. **Poesia eta Pentsamendua** jarduerari dagokionez, Juan Ramon Makuso, Felipe Juaristi, Pello Otxoteko eta Aritz Gorrotategik koordinatu zuten, eta Foru Aldundia eta Chillida Leku izan zituen laguntzaile; hartara, bi eguneko jarduera-programa bat antolatu ahal izan zen.

# LIBURUTEGIAK

## LIBURUTEGI-ZERBITZUA ZENBAKITAN




| | |
|---|---|
| **FUNTSAK** | 544.502 |
| **SARBIDE LIBREKO FUNTSA** | 456.742 |
| **FUNTS HISTORIKO KATALOGATUA** | 87.760 |

| **FUNTSAK EUSKARRIAREN ARABERA** | |
|---|---|
| LIBURUAK | 433.826 |
| CD | 35.817 |
| CDROM | 3.413 |
| DVD | 56.750 |
| BIDEO JOKOAK | 1.307 |
| MAPAK | 209 |
| MATERIAL GRAFIKOA | 3.435 |
| PARTITURAK | 7.791 |
| ALDIKAKO ARGITALPENAK | 1.820 |
| ORDENAGAILU ERAMANGARRIAK | 32 |
| EREADER-IPAD | 102 |

| **FUNTSAK HIZKUNTZAREN ARABERA** | |
|---|---|
| EUSKARAZ | 99.346 |
| GAZTELANIAZ | 392.265 |
| BESTERIK | 52.891 |

| | |
|---|---|
| **ALTAK** | 32.106 |
| **BAJAK** | 9.422 |

| | |
|---|---|
| BILDUMAREN HAZKUNDEA %TAN | 4,69 |
| BILDUMAREN ERABERRITZEA %TAN | 5,90 |

| **MAILEGUAK** | |
|---|---|
| MAILEGUAK | 402.249 |
| ERABERRITZEAK | 58.751 |
| GUZTIRA | 461.000 |

| **MAILEGUAK EUSKARRIAREN ARABERA** | |
|---|---|
| HELDUENTZAKO LIBURUAK | 166.915 |
| HAURRENTZAKO LIBURUAK | 91.349 |
| CD | 13.324 |

# LIBURUTEGIAK

## LIBURUTEGI-ZERBITZUA ZENBAKITAN

| | |
|---|---|
| CDROM | 1.023 |
| DVD | 111.283 |
| BIDEO JOKOAK | 4.664 |
| MAPAK | 1 |
| PARTITURAK | 1.647 |
| ALDIZKAKO ARGITALPENAK | 6.248 |
| ORDENAGAILU ERAMANGARRIAK | 5.602 |
| EREADER-IPAD | 193 |

| **MAILEGUAK HIZKUNTZAREN ARABERA** | |
|---|---|
| EUSKARAZ | 51.519 |
| GAZTELANIAZ | 321.290 |
| BESTERIK | 29.440 |

| | |
|---|---|
| **E-LIBURUTEGIKO MAILEGUAK** | 5.828 |

| | |
|---|---|
| **BISITAK** | 901.965 |

| | |
|---|---|
| **BAZKIDEAK** | 78.316 |
| 2017. URTEKO BAZKIDE BERRIAK | 5.551 |
| 2017KO BAZKIDE AKTIBOAK | %35 |

| **ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK** | |
|---|---|
| INTERNET/CDROM SARBIDEA | 278 |
| OPAC | 38 |

| **INTERNET / CDROM KONTSULTAK** | |
|---|---|
| KZ ARETOETAN | 66.358 |
| ARETOAN | 51.095 |
| WIFI | 69.588 |

| | |
|---|---|
| OPAC KONTSULTAK | 516.652 |
| WEB KONTSULTAK | 175.151 |
| HEMEROTEKA DIGITALEKO KONTSULTAK. | 353.739 |
| LIBURU DANTZA KONTSULTAK | 3.225 |
| LIBURUTEGIEN AHOTSA KONTSULTAK | 3.760 |

| | |
|---|---|
| JARDUERA KOPURUA | 997 |
| JARDUERETARA ETORRITAKOAK | 26.806 |
| ERAKUSKETAK | 8 |
| ERAKUSKETETARA ETORRITAKOAK | 33.482 |

**(1)** Ez dira kontuan hartu Amundarain Mediatekako funtsak.

# LIBURUTEGIAK



## LIBURUTEGI NAGUSIA

| | |
|---|---|
| Sorrera urtea | Sail historikoa 1874<br>Alderdi Eder 1999 |
| FUNTSAK | 131.264 |
| SARBIDE LIBREKO FUNTSAK | 61.282 |
| FUNTS HISTORIKO SAILKATUA | 69.982 |
| ALTAK | 4.873 |
| BAJAK | 843 |
| MAILEGUAK | 108.788 |
| MAILEGUAK EGUNEKO | 367,53 |
| KONTSULTAK FUNTS HISTORIKOAN | 4.299 |

| | |
|---|---|
| BISITAK | 232.118 |
| BISITAK EGUNEKO | 784,18 |
| ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK | 38 |
| INTERNET KONTSULTAK / CDROM | 36.088 |
| EKINTZA KOPURUA | 163 |
| EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK | 7.205 |
| ERAKUSKETAK | 7 |
| ERAKUSKETETARA BERTARATUTAKOAK | 32.645 |



## LIBURUTEGI NAGUSIA HAUR SAILA

**Haur Liburuaren Dokumentaziogunea**

| | |
|---|---|
| Sorrera urtea | 1970 (1994) |
| FUNTSAK | 44.367 |
| SARBIDE LIBREKO FUNTSAK | 32.356 |
| FUNTS HISTORIKO SAILKATUA | 12.011 |
| ALTAK | 2.406 |
| BAJAK | 552 |
| MAILEGUAK | 26.353 |
| MAILEGUAK EGUNEKO | 92,47 |
| BISITAK | 37.685 |

| | |
|---|---|
| BISITAK EGUNEKO | 132,23 |
| ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK | 10 |
| INTERNET KONTSULTAK / CDROM | 4.900 |
| EKINTZA KOPURUA | 190 |
| EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK | 3.865 |
| ERAKUSKETAK | 1 |
| ERAKUSKETETARA BERTARATUTAKOAK | 837 |

# LIBURUTEGIAK



## AIETE LIBURUTEGIA

| | |
|---|---|
| Sorrera urtea | 2010 |
| FUNTSAK | 29.056 |
| ALTAK | 2.847 |
| BAJAK | 979 |
| MAILEGUAK | 45.491 |
| MAILEGUAK EGUNEKO | 152,14 |
| BISITAK | 59.093 |

| | |
|---|---|
| BISITAK EGUNEKO | 197,64 |
| ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK | 17 |
| INTERNET KONTSULTAK / CDROM | 9.887 |
| EKINTZA KOPURUA | 49 |
| EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK | 1.864 |



## ALTZA K.E. LIBURUTEGIA (Larratxo)

| | |
|---|---|
| Sorrera urtea | 1987 |
| FUNTSAK | 18.961 |
| ALTAK | 976 |
| BAJAK | 100 |
| MAILEGUAK | 7.490 |
| MAILEGUAK EGUNEKO | 33,59 |
| BISITAK | 20.995 |

| | |
|---|---|
| BISITAK EGUNEKO | 94,15 |
| ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK | 6 |
| INTERNET KONTSULTAK / CDROM | 1.469 |
| EKINTZA KOPURUA | 27 |
| EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK | 435 |

# LIBURUTEGIAK



## CASARES-TOMASENE K.E. LIBURUTEGIA (Altza)

| | |
|---|---|
| Sorrera urtea | 1986 (2006) |
| FUNTSAK | 37.122 |
| ALTAK | 2.523 |
| BAJAK | 633 |
| MAILEGUAK | 36.953 |
| MAILEGUAK EGUNEKO | 124,84 |
| BISITAK | 69.716 |

| | |
|---|---|
| BISITAK EGUNEKO | 235,53 |
| ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK | 30 |
| INTERNET KONTSULTAK / CDROM | 14.534 |
| EKINTZA KOPURUA | 53 |
| EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK | 821 |



## EGIA K. E. LIBURUTEGIA

| | |
|---|---|
| Sorrera urtea | 1997 |
| FUNTSAK | 33.266 |
| ALTAK | 1.741 |
| BAJAK | 1.025 |
| MAILEGUAK | 18.953 |
| MAILEGUAK EGUNEKO | 84,99 |
| BISITAK | 27.309 |

| | |
|---|---|
| BISITAK EGUNEKO | 122,46 |
| ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK | 31 |
| INTERNET KONTSULTAK / CDROM | 9.599 |
| EKINTZA KOPURUA | 93 |
| EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK | 1.284 |

# LIBURUTEGIAK



## ERNEST LLUCH K.E. LIBURUTEGIA (Amara)

| | |
|---|---|
| Sorrera urtea | 2001 |
| FUNTSAK | 45.679 |
| ALTAK | 3.036 |
| BAJAK | 1.171 |
| MAILEGUAK | 60.556 |
| MAILEGUAK EGUNEKO | 204,61 |
| BISITAK | 119.219 |

| | |
|---|---|
| BISITAK EGUNEKO | 402,77 |
| ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK | 44 |
| INTERNET KONTSULTAK / CDROM | 29.924 |
| EKINTZA KOPURUA | 122 |
| EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK | 2.296 |



## INTXAURRONKO K.E. LIBURUTEGIA

| | |
|---|---|
| Sorrera urtea | 2000 (2011) |
| FUNTSAK | 43.566 |
| ALTAK | 2.660 |
| BAJAK | 957 |
| MAILEGUAK | 35.715 |
| MAILEGUAK EGUNEKO | 160,16 |
| BISITAK | 62.511 |

| | |
|---|---|
| BISITAK EGUNEKO | 280,32 |
| ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK | 40 |
| INTERNET KONTSULTAK / CDROM | 23.077 |
| EKINTZA KOPURUA | 25 |
| EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK | 1.025 |

# LIBURUTEGIAK

## LARROTXENE K.E. LIBURUTEGIA (Intxaurrondo)



| | |
|---|---|
| SORRERA URTEA | 1988 |
| FUNTSAK | 14.468 |
| ALTAK | 980 |
| BAJAK | 378 |
| MAILEGUAK | 7.920 |
| MAILEGUAK EGUNEKO | 35,52 |
| BISITAK | 11.243 |

| | |
|---|---|
| BISITAK EGUNEKO | 50,42 |
| ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK | 7 |
| INTERNET KONTSULTAK / CDROM | 3.668 |
| EKINTZA KOPURUA | 10 |
| EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK | 2.173 |

## LOIOLA K.E. LIBURUTEGIA




| | |
|---|---|
| Sorrera urtea | 1987 |
| FUNTSAK | 31.927 |
| ALTAK | 2.063 |
| BAJAK | 521 |
| MAILEGUAK | 16.526 |
| MAILEGUAK EGUNEKO | 74,11 |
| BISITAK | 24.680 |

| | |
|---|---|
| BISITAK EGUNEKO | 110,67 |
| ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK | 8 |
| INTERNET KONTSULTAK / CDROM | 2.681 |
| EKINTZA KOPURUA | 37 |
| EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK | 496 |

# LIBURUTEGIAK

## LUGARITZ K.E. LIBURUTEGIA (Antigua)



| | |
|---|---|
| Sorrera urtea | 1993 |
| FUNTSAK | 31.603 |
| ALTAK | 2.000 |
| BAJAK | 431 |
| MAILEGUAK | 21.221 |
| MAILEGUAK EGUNEKO | 95,16 |
| BISITAK | 35.421 |
| BISITAK EGUNEKO | 158,84 |
| ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK | 27 |
| INTERNET KONTSULTAK / CDROM | 5.918 |
| EKINTZA KOPURUA | 44 |
| EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK | 905 |

## OKENDO K.E. LIBURUTEGIA (Gros)



| | |
|---|---|
| Sorrera urtea | 1987 (2004) |
| FUNTSAK | 40.991 |
| ALTAK | 2.856 |
| BAJAK | 1.580 |
| MAILEGUAK | 65.653 |
| MAILEGUAK EGUNEKO | 221,80 |
| BISITAK | 132.457 |
| BISITAK EGUNEKO | 447,49 |
| ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK | 40 |
| INTERNET KONTSULTAK / CDROM | 34.140 |
| EKINTZA KOPURUA | 109 |
| EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK | 2.495 |

# LIBURUTEGIAK



## URGULL LIBURUTEGIA

| | |
|---|---|
| Sorrera urtea | 1997 |
| FUNTSAK | 5.098 |
| ALTAK | 207 |
| BAJAK | 105 |
| MAILEGUAK | 423 |
| MAILEGUAK EGUNEKO | 5,42 |
| BISITAK | 3.325 |

| | |
|---|---|
| BISITAK EGUNEKO | 42,63 |
| ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK | 4 |
| INTERNET KONTSULTAK / CDROM | 170 |
| EKINTZA KOPURUA | 19 |
| EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK | 519 |



## EGUZKITEKA

| | |
|---|---|
| Sorrera urtea | 2017 |
| FUNTSAK | 851 |
| MAILEGUAK | 635 |
| MAILEGUAK EGUNEKO | 11,34 |

| | |
|---|---|
| BISITAK | 5.114 |
| BISITAK EGUNEKO | 91,32 |
| EKINTZA KOPURUA | 56 |
| EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK | 1.423 |

# LIBURUTEGIAK



## UDAL MUSIKA ESKOLAKO LIBURUTEGIA

| | |
|---|---|
| Sorrera urtea | |
| FUNTSAK | 18.579 |
| ALTAK | 1.243 |
| BAJAK | 68 |
| MAILEGUAK | 5.536 |
| MAILEGUAK EGUNEKO | 26,49 |

| | |
|---|---|
| BISITAK | 50.186 |
| BISITAK EGUNEKO | 240,12 |
| ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK | 8 |
| INTERNET KONTSULTAK / CDROM | 5.818 |



## SAN TELMO MUSEOKO LIBURUTEGIA

| | |
|---|---|
| Sorrera urtea | 2011 |
| FUNTSAK | 15.199 |
| SARBIDE LIBREKO FUNTSAK | 9.432 |
| FUNTS HISTORIKO SAILKATUA | 5.767 |
| ALTAK | 763 |
| BAJAK | 78 |
| MAILEGUAK | 1.939 |

| | |
|---|---|
| MAILEGUAK EGUNEKO | 10,05 |
| BISITAK | 2.316 |
| BISITAK EGUNEKO | 12,00 |
| ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK | 2 |
| INTERNET KONTSULTAK / CDROM | 110 |

# LIBURUTEGIAK



## CRISTINA ENEKO INGURUMEN BALIABIDEEN LIBURUTEGIA

| | |
|---|---|
| Sorrera urtea | 2006 |
| FUNTSAK | 2.505 |
| ALTAK | 80 |
| MAILEGUAK | 110 |
| MAILEGUAK EGUNEKO | 0,30 |

| | |
|---|---|
| BISITAK | 4.103 |
| BISITAK EGUNEKO | 11,37 |
| ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK | 2 |
| INTERNET KONTSULTAK / CDROM | 3.639 |



## AMUNDARAIN MEDIATEKA. ARANTZATZUKO AMA IKASTOLA

| | |
|---|---|
| Sorrera urtea | 2006 |
| MAILEGUAK | 728 |
| MAILEGUAK EGUNEKO | |
| BISITAK | 4.474 |
| ERABILERA PUBLIKOKO ORDENAGAILUAK | 2 |

| | |
|---|---|
| INTERNET KONTSULTAK / CDROM | 1.419 |
| EKINTZA KOPURUA | 56 |
| EKINTZETARA BERTARATUTAKOAK | 1.423 |

# PROGRAMAZIOA
# MUSIKA



© Clara Cardona

Fermin Muguruza eta *Micaela-Chalmeta Big Band* - Taller de Músics Barcelona.

Donostia Kulturan, Musika emanaldiei eta hedapenari dagozkien ekintzetan hainbat eta hainbat agertoki, lankidetza, proposamen eta estilo izan ziren tartean.

Dagokion atalean adierazi denez, **Victoria Eugenia Antzokia**ren programazioak eskaintza horretako proposamen interesgarrienetako batzuk bildu zituen 2017an. Hona hemen izen batzuk, adibide modura: **Jarabe de Palo, John Mayall, Bebe, James Rhodes.** Horrez gainera, oso nabarmentzekoa da programazio hori, ahal izan zen neurrian, bertako eragile, agentzia eta elkarteekin batera gauzatu zela.

**Antzoki Zaharra**k, berriz, hurbilagoko talde eta elkarteei eskaini zien bere agertokia. **8 musika-emankizun** izan ziren 2017an; besteak beste, ***E-musik, Hitzak Hots*** eta ***Ene Kantak***.

Donostia Kulturako Musika Departamenduak **Kursaal Eszena**ko Herri Musika atala programatzen du, eta 2017an **16 emankizun izan ziren Kursaal Zentroaren agertokietan**. **Leiva, Vanessa Martin** eta **Loquillo** dira izenik ezagunenak. Baina, horiekin batera, aipa daitezke beste proposamen batzuk ere, jendearen artean oso harrera ona izan zutenak: **Holy Holy, Chick Corea** eta **Pat Metheny,** besteak beste.

2017an ere, ekainaren 21a, Musikaren Europar Eguna, aitzakia polita izan zen **Adarra Saria** emateko. Urtero, sari horren bidez, Euskal Musikaren arloan jardun duen edo diharduen artista baten ibilbidea eta lana nabarmentzen dira. Aitortza hori **Fermin Muguruza**ri egin zitzaion 2017an. Sari honek, besteak beste, euskal folkloreko pieza tradizionalak berreskuratu eta gaurkotu izana aitortzen du, kasuan kasuko artistaren kantak herri-kantutegian sartu izana, euskal musikako beste interprete batzuengan eragina izan duen estilo bat sortu izana, eta artista-belaunaldi berriei emandako laguntza eta belaunaldien arteko lan-ildoak ireki izana.



Bebe.

# PROGRAMAZIOA
# **MUSIKA**




John Mayall.

Bestalde, azpimarratzea komeni da bertako musika-erakundeekin izandako harremanak oso onak izan zirela; honako hauekin, besteak beste: Musikene, EGO, Euskadiko Orkestra, Asociación de Cultura Musical, Musikagileak, Francisco Escudero Kontserbatorioa, Udalaren Musika eta Dantza Eskola. Horri esker, sinergiak ezar daitezke, eta musika-arlorako ongarri gertatuko diren lankidetzak.

Orobat, Departamendu honen esku dago **Heineken Jazzaldia**ren programazioa ere; 2017an, 52. edizioa egin zen, eta arrakasta handia izan zuen entzuleen eta kritikaren aldetik. **156.476** entzule baino gehiago izan ziren **105** kontzertu baino gehiagotan, uztailaren 20tik 25era bitarte.

Musika Unitateak 70 kontzertu sustatu zituen bere aretoetan (25.000 entzule, gutxi gorabehera); horietatik, 18 euskarazko emanaldiak izan ziren.

**70 Kontzertu:**

• 26 kontzertu Victoria Eugenia Antzokian (Areto Nagusia), 19 gaztelaniaz eta 7 euskaraz.

• 20 Victoria Eugenia Antzokian (Klub Aretoa), 18 gaztelaniaz eta 2 euskaraz. 8 Antzoki Zaharrean, 3 gaztelaniaz eta 5 euskaraz.

• 16 Kursaal Eszenaren programazioaren barruan (Areto Balioanitzak eta Auditorioa), 12 gaztelaniaz eta 4 euskaraz.

## HELBURUAK NORAINO BETE DIREN

### *EUSKARAREN ALDE:*

Euskal musikako **18** kontzertu programatu ziren.

Txikijazz-en, zeina haur eta gazteei zuzendua baita, euskara izan zen komunikazio-hizkuntza; horrez gainera, programazioan kalitateari eusteko, Euskaditik kanpoko eragileez ere baliatu behar izan zen.

Jazzaldian, indarrean den araudiaren arabera jokatu zen beti, komunikazio orotan euskararen erabilera bermatzeari zegokionez.

### *BERDINTASUNAREN ALDE:*

Programaturiko 16 kontzertutan, emakume bat edo batzuk izan ziren protagonistak. Gainera, Heineken Jazzaldian, **13** kontzertutan behinik behin, emakumeak izan ziren buru.




James Rhodes.




© Xavi Torrent

Jarabe de Palo.

### *TOKIKOAREN ALDE:*

Sail edo Zerbitzu honek programaturiko 40 kontzertutan, bertako artistek jardun zuten. Horrez gainera, Jazzaldian diren zenbait atalek, definizioz, bertako artisten presentzia eskatu zuten: 10 talde zuzeneko hautespen-prozesu batetik datoz; beste 5, aurreko urteko jarduera diskografikotik hautatzen dira, eta beste hiru, berriz, Musikenek hautatzen ditu bere ikasleen artean. Gainera, beste kontzertu batzuetan, interes artistikoaren beraren eraginez, beti izaten dira Jaialdian parte hartzen duten Euskal Herriko artistak. Alde horretatik, nabarmentzekoa da San Telmoko goizeko jardunaldietan Musikeneko irakasleek jo zutela edizio honetan, eta beren kontzertuetan omenaldia eskaini zietela Deborah Carter eta Chris Kase musikari handiei, besteak beste.

Gure erkidegoko sustatzaile pribatuei, bestalde, lehentasuna eman zitzaien hitzarmenak egiteko edo emanaldiak kontratatzeko. Esandako 70 kontzertuetatik 38tan, bertako enpresek parte hartu zuten hitzarmenean edo kontratazioan. Hitzarmenak eta lankidetza-akordioak egin ziren bertako musika-erakundeekin; besteak beste, Musikene, EGO, Euskadiko Orkestra, Asociación de Cultura Musical, Musikagileak, Francisco Escudero Kontserbatorioa eta Udalaren Musika eta Dantza Eskolarekin.

### *IRAUNKORTASUNAREN ALDE:*

Jazzaldiak segida eman zion bi urte lehenago hasitako kanpaina bati, ingurunearen iraunkortasunaren, segurtasunaren eta osasungarritasunaren alde.

Laburbilduz, hona hemen neurri horien aurkezpenean esandako batzuk:

*“Heineken Jazzaldiak musikaldi jasangarri, garbi eta segurua izan nahi du. Horretarako, Musikaldiak material birziklagarri guztia bilduko du bere aretoetan, eta bildutako kopuruen berri emango du egunero bere webgunean.*
*Orobat, beira eta latak jasotzeko sistema bat jarriko da martxan Musikaldiko aretoen sarreretan, material horiekin bertan sartzerik egon ez dadin. Antolakuntzako langileak izango dira Musikaldiaren aretoetan, ikus-entzuleei argibideak emateko jasangarritasun, garbitasun eta segurtasun helburuok bete daitezen”.*

Gomendio horiek guztiak (10 orrialdeko testua) jaso ziren Musikaldiaren webgunean.

### *SORKUNTZAREN ALDE:*

Atal honetan sartzen da bete-betean Heineken Jazzaldiaren 52. edizioari hasiera emateko eskaini zen argi eta soinu ikuskizuna: *Poem of a Cell.*

Orobat, lanean jarraitu zen euskal konpositoreei eskainitako ziklo bat egin zedin, Musikagileak elkartearekin lankidetzan.

### *PARTE HARTZEAREN ALDE:*

Bertako taldeen programazioari buruz esandako guztiari Txikijazzeko programazioa eta Jazzaldian izandako **156.476** ikus-entzuleak erantsi behar zaizkio.

Gainera, sare sozialen arduradunen lan nekaezin eta etengabeari esker, puntan ibili ginen Facebook eta Twitterreko erabiltzaileen artean.

# ARTE ESZENIKOAK



*Serlo o no*, Flotats.

2017. urtea, Europako Kultura Hiriburutzak utzitako bestondokoaren ondotik, urte interesgarria izan zen. Arte-mailari goian eutsi zitzaion, bertako artisten aldeko lana eta Estatuko eta atzerriko artisten presentzia orekatuz. Formatu, arte eta kontzeptu eszenikoen arteko orekak ere ikus-entzuleen gustuak eta jakin-mina asetzea izan zuen helburu.

**Dantza** arloan, proposamen klasikoak, garaikideak, flamenkoa eta dantza tradizionala izan ziren protagonista. ***Alicia Amatriain: Donostia bihotzean*** gala nabarmendu zen beste guztien gainetik, eta omenaldi ederra egin zitzaion donostiar dantzari nazioartekoenari, sarituenari eta ezagunenari. Baina izan ziren beste gauza asko ere: **Kubako Ballet Nazionala**, edo **Rocío Molina**, bere estilo ezin bereagoaz flamenkoa eraberritzen ari den dantzaria, edota Alberto Velascoren ***Danzad malditos***. Dantza tradizionalean, nabarmentzekoa **Aukeran Dantza Taldea**ren 20. urteurrena, ikus-entzuleen erantzun handi eta ederrarekin. **Malandain Ballet Biarritz**ek harreman estua eta lankidetza emankorra izan zituen Victoria Eugenia Antzokiarekin. Ez genuke ahaztu nahi Gazteszenak dantza garaikidea bultzatzen egindako lana: **Thomas Noone**k eta V**argas & Choe**k, besteak beste, eskaintza koreografiko aberatsa ekarri zuten Donostiara.

2017an ere Donostiatik pasatu ziren biran diren musikalik garrantzitsuenak; hala nola ***Cabaret*** edo ***Priscilla, reina del desierto***. Sasibillek zarzuelaren gar biziari eutsi zion beste urtebetez, ***El dúo de la Africana*** eta ***Bohemios*** obrekin, eta gainera Opus Liricak ***Errauskine*** aurkeztu zigun lirikaren alorrean, bere ukitu bereziaz.




Alicia Amatriain.

Helduentzako euskarazko antzerkiaren **programazio erregularrak** hizkuntza-normalizaziorantz jarraitu zuen. Urtero, **martxoaren 27an**, **Donostia Antzerki Saria** ematen zaio aurreko urtean programaturiko euskarazko antzerki-lan onenari eta 2017an, ***Francoren bilobari gutuna*** lanak jaso zuen saria.




Aukeran taldearen urteurren kartela.

# ARTE ESZENIKOAK



Alfonso Sastreren *Escuadra hacia la muerte.*



*Etxeko saltsak.*

Gaztelaniaz, Espainiako kartelerako obra nagusiak eskaini ziren formatu handian, hala nola, **Flotats**en ***Serlo o no*** eta **Pou**ren ***Sócrates***. Ez ditzagun ahaztu **El Brujo, Silvia Marsó, Héctor Alterio, Lolita, Tricicle** eta beste hainbat artista, Donostian beren onenak eman zituztenak. **Alfonso Sastre** maisu, kultuzko dramaturgo miretsi eta maitearen ***Escuadra hacia la muerte*** aurkeztu zen. Egia eta Antiguako Kultur Etxeek Gazteszena eta Imanol Larzabal aretoekin batera diseinaturiko programazioak aberastu eta osatu egin zituen udal antzokietakoak, **Chapitô, Matarile** eta beste zenbait konpainia ekarrita. Zirkuan, ***In tarsi*** lanaz gozatu genuen Gazteszenan, errebelazio-ikuskizunari emandako Max saria, eta ***À corps perdu*** lanaz Victoria Eugenia Antzokian.

Donostiako udak goian eutsi zien arte-itxaropenei, eta markak hautsi zituen okupazioaren aldetik. Espainiako kartelerako obrarik onenak pasatu ziren Donostiatik. Programazioak leiho ireki bat du betiere euskararentzat, eta ***Etxeko saltsak*** ikuskizunak salgai guztiak agortu zituen leihatilan, urteko gaztelaniazko obra arrakastatsuenen pare.

Donostia Kulturaren lau antzokiek (Victoria Eugenia, Antzoki Zaharra, Gazteszena eta Imanol Lartzabal) 353 funtzio baino gehiago programatu zituzten guztira, antzerkia eta dantza, eta 97.070 ikusle baino gehiago bildu zituzten.
Gainera, 2017an **Eskolatik antzerkira** programaren edizio berri bat egin genuen Arte Eszenikoak txikienen artean sustatzeko, ikastetxeen lankidetza izanda. Donostiako **8.355 neska-mutil** pasatu ziren bertatik, helburua arte eszenikoetara hurbiltzea eta sentiberatzea izanik. Nabarmentzekoa programa hau haziz doala urtez urte.

Jaialdiei dagokienez, **dFERIA 2017**k, *Denbora* gaitzat hartuta, **35 ikuskizunen 30 emanaldi** eskaini zituen **11 agertokitan**. **13.000 parte-hartzaile** baino gehiago **eta 423 profesional** akreditatu bildu ziren. Aretoen betetze maila, batez beste, % 85ekoa izan zen. ARTEZ aldizkaria lankide izan genuen 2017an ere, dFERIAren programa egiten eta hedapena ematen. Poltsiko Antzerki Jaialdiak 2.000 ikus-entzule inguru erakarri zituen 29 emanaldietara.

Azkenik, nabarmentzekoa Biarritz eta Baionarekiko **lankidetza**; Biarritzekin, **Malandain Ballet Biarritz**en bitartez, eta Baionarekin, berriz, **Scène National**eren bitartez; biei esker, Arte Eszenikoetara hurbiltzeko jarduera orotarikoak eskaini zitzaizkien interesa dutenei, eta horrek ikus-entzule jakitunago eta sentiberagoak sortuko ditu.

**Euskararen** presentzia zaindu eta **emendatu** genuen programazioan, **Euskararen Udal Zerbitzua**rekin lankidetzan, eta **arreta berezia** eskaini genion **dantza garaikideari** gure agertokietan, batez ere Egiako Gazteszena aretoan, eta, formatu txikiagoan, baita Lugaritzeko Imanol Larzabal aretoan ere. Baina, batez ere, lortu genuen antzerki- eta dantza-muntaketa handiekin batera beste txikiago batzuk ere izatea, beren txikian interesgarriak gertatu baitziren gizarte, giza edota poesia edukien aldetik. Euskal ekoizpenik onenak pasatu ziren Donostiako agertokietatik, bai eta espainiar eszenako izen handiak eta nazioarteko konpainia garrantzitsuak ere. Gainera, leihotxo bat ireki genuen Latinoamerikara begiratzeko.

Nabarmentzekoak, halaber, **haurrei** zuzenduriko **programazio** egonkorrak, Victoria Eugenia Antzokian, Antzoki Zaharrean eta Imanol Larzabal, Gazteszena eta Altzako aretoetan.

| ANTZERKIA ETA DANTZA | LANAK | EMANALDIAK | IKUS-ENTZULEAK | ORDU GAZTEA |
|---|---|---|---|---|
| **ANTZERKIA** | | | | |
| **GUZTIRA** | **125** | **209** | **41.538** | **359** |
| Antzerki profesionala euskaraz | | | | |
| Antzerki profesionala gaztelaniaz | | 17 | 3.216 | 61 |
| Haurrentzako Antzerkia | | 67 | 17.454 | 286 |
| Klub Aretoa gaztelaniaz | | 33 | 5.219 | |
| Klub Aretoa euskaraz | | 4 | 227 | 11 |
| Antzerki amateurra euskaraz | | 4 | 158 | 1 |
| Antzerki amateurra gaztelaniaz | | 4 | 313 | |
| Eskolatik Antzokira | | 28 | 2.326 | |
| Kale antzerkia euskaraz | | 39 | 8.355 | |
| Kale antzerkia gaztelaniaz | | 7 | 2.640 | |
| Kale antzerkia testurik gabe | | 1 | 230 | |
| Teatro de calle sin texto | 4 | 5 | 1.400 | |
| | | | | |
| **GUZTIRA** | **17** | **71** | **27.001** | **584** |
| Udako denboraldia | | | | |
| Antzerki profesionala euskaraz | | 5 | 2.060 | 145 |
| Antzerki profesionala gaztelaniaz | | 66 | 24.941 | 439 |
| Club Aretoa euskaraz | | 3 | 314 | 2 |

# PROGRAMAZIOA
# ARTE ESZENIKOAK

| ANTZERKIA ETA DANTZA | LANAK | EMANALDIAK | IKUS-ENTZULEAK | ORDU GAZTEA |
|---|---|---|---|---|
| **DANTZA** | | | | |
| **GUZTIRA** | **35** | **43** | **13.892** | **98** |
| Dantza profesionala | | 38 | 13.666 | 98 |
| Klub Aretoa | | 5 | 226 | |
| | | | | |
| **LIRIKA** | | | | |
| **GUZTIRA** | **4** | **7** | **3.034** | **28** |
| **MUSIKALA** | | | | |
| **GUZTIRA** | **4** | **21** | **11.198** | **172** |
| **ZIRKOA** | | | | |
| **GUZTIRA** | **2** | **2** | **407** | |
| **JAIALDIAK** | | | | |
| **GUZTIRA** | **56** | **75** | **11.217** | |
| dFERIA | | 35 | 8.007 | 98 |
| Poltsiko Antzerkia | | 29 | 2.700 | |
| Gazteen Antzerki Topaketa | | 11 | 510 | |

| BESTE JARDUERA BATZUK | JARDUERAK | EGUNAK | PARTE HARTZAILEAK |
|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **58** | **186** | **4.072** |
| DANTZA | | 184 | 3.962 |
| ANTZERKIA | | 2 | 110 |

**Lugaritz eta Egia barne.**

# PROGRAMAZIOA
# ZINEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK



*Metrópolis* (Fritz Lang), Nosferatu zikloko EtorkizunInperfektua(k)– Distopia eta zinea sailean.

Ikus-entzunezkoen programazioak bizi-bizi jarraitu zuen 2017an ere: ziklo batzuk hazi egin ziren, beste batzuk sendotu, eta zenbaitek egoitza aldatu zuten. Hutsuneen artean, esan behar da 2017an ez zela izan **Surfilm Festibala**, erakunde antolatzailearen barne planteamendu berriak direla eta.

Nosferatu programak, ibilbide luzekoa eta Donostia Kulturak eta Euskadiko Filmategiak ekoitzia, ia urte osoa hartu zuen ***Screwball Comedy*** iparramerikar arrakastatsuarekin, eta udazkenean ***Distopia eta zinea*** zikloari ekin zion. Tabakalerako zinema-aretoan harrera bikaina izan zuen eskaintza horrek.

Donostia Kulturak jaialdiei laguntzeko irekitako ildo berrian, bestalde, izan ziren zinema ekitaldiak ere, eta laguntza hori aretoen erabilera erraztean eta komunikazio-zereginetan gauzatu zen: **Dock of the Bay** (musika-dokumentalak), **Itsaspeko Zinemaren 40. Jaialdia** eta **Donosskino**, film luzeei osorik eskainitako erakustaldi berri bat.

Antzoki Zaharrak **Beste Begiradak** jaialdia hartu zuen lehen aldiz, haur eta gazteentzat egindako zinema amateurrari eskainia. Etorkizuneko ikus-entzule eta sortzaileekiko lan hori egiten da, halaber, **Euskara Zinema Aretoetara** programan ere. Tinkorekin itundutako programa da, eta milaka ikasle jartzen ditu pantaila handiaren aurrean ikasturte osoan zehar.



*Narciso* (Koldo Almandoz).




Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloaren kartela.

# PROGRAMAZIOA
# ZINEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK



VI. Jardunaldiak Emakumeek egindako Zinemaz, *Portero de Noche* (Liliana Cavani).

Zinemaren eta gizartearen arteko lotura hori da lankidetzan dugun programazioaren gune sendoetako bat. Esate baterako, urtero Atzegi eta Zinegoak kolektiboekin egiten direnak, Kattalin elkartearekin 2017an (Munduko Minbiziaren kontrako Eguna), edo era jarraituan **Medeak** eta **Emakumeen Etxea** kolektibo feministekin (Postporno proiekzioa lehenarekin, eta bigarrenarekin, berriz, VI. Jardunaldiak Emakumeek egindako Zinemaz: Liliana Cavani).

Antzoki Zaharrak, berriz, **Menditour** mendiari buruzko zinemari emandako begirada hartu zuen, eta, lehen aldiz, publizitate-zinemaren inguruko ekinbidea, **Spotnonstop** (Club de Creativosekin lankidetzan). Bestalde, **Bang Bang Zinema** izenaz bi hilabetez behin egiten diren proiekzioek bere etxetzat dute dagoeneko kulturgune hau, eta 2017an giro paregabea egon zen, zinemazaleak sortzeko haztegi aukera-aukerakoa.

**Creative Commons** zikloari eta Aste Nagusian **Zinema Hondartzan** programa egin zedin emandako laguntzak, bai eta **Filmazpit** euskarazko filmen banaketarako programaren jarraipenak ere, osatu zuten lan-urtea, eta esan daiteke ia ez zela egunik izan zinema emanaldirik gabe.

## Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea

XXVIII. Astea bere ildoari atxiki zitzaion, zinemaldia urteko produkziorik onenen erakustoki izan dadin eta, horrekin batera, sortzaileen eta generoaren zaleen arteko topagune.

***Errementari*** euskal produkzioari emandako ikus-entzuleen saria amaiera polita izan zen sortzaile gazteen aldeko apustu gisa; kasu honetan, **Paul Urkijo** zuzendariak jaso zuen. Gure folklorean oinarritutako fantasia eder hau, euskaraz grabatua, puntu gorenetako bat izan zen Astean, baina izan ziren beste batzuk ere.

Lehiaketen alorrean, gogor eutsi zitzaion film laburren aldeko apustuari,




Bang Bang Zinema.

# ZINEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK



Maria José Cantudo, Beldurrezko eta Fantasiazko Zinema Astearen karteleko protagonista.

hiru sailetan banatuta. Hain zuzen ere, aurreko urteetan film laburra aurkeztua zuten zenbait zuzendarik beren lehen luzea aurkeztu zuten 2017an: ***Matar a Dios***.

Zaleek oso ondo hartu zituzten Fantaterrorezko zine espainiarrari egindako omenaldia –**Maria José Cantudo** ageri zen kartelean–, ***Mil gritos en la noche*** erakusketa eta beste jarduera batzuk.

2017ko beste apustu nabarmen bat genero honetako emakume zinemagileei gogoeta eta agerbidea eskaintzea izan zen, film-ziklo sendoa izan baitzen, eta **Theda Bara** musa wamp-a agertu zen kaleko inaugurazioan eta Asteko beste une batzuetan.

Donostiako eragile publiko eta pribatu berriek hartu zuten parte Astean, apustu ludikoa eta kalitatezkoa eginez; besteak beste, Kutxa Kultur, Ubik Tabakalera eta Super Amara. Zenbait ekintza sustatu zituzten fantasiaren birus ongarria hedatzeko.

## Giza Eskubideen Zinemaldia

Udaleko Giza Eskubideen arloak antolaturik, 2017koa 15.a izan zen. Dagoeneko, Zinemaldia zinema sozialaren erreferente argia da Estatu osoan.

Memoria historikoa, babes bila dabiltzan pertsonen egoera, lan-gatazkak edo autismoa izan ziren, besteak beste, film luzeek, eztabaidek eta Victoria Eugenia Antzokira –zinemaldiaren egoitza nagusira– gonbidaturiko pertsona ospetsuek jorratutako gaiak. ***Ama, nora goaz?*** dokumentalaren emanaldia nabarmenduko dugu, eta horrekin batera ***Emeek emana*** erakusketa, Intxorta 1937 Kultur Elkartearena, biak ere Gerra Zibilaren eta diktaduraren biktima izandako euskal emakumeei eskainitako omenaldiak.

2017ko sari berezia **Deepa Mehta** zinemagile hinduari eman zitzaion; hala, urte horretan ere, giza eskubideen aldeko emakume sortzaileei merezi duten garrantzia emateko apustuari eutsi zitzaion.

Zinemaldiak pedagogia-lana eginez jarraitu zuen, gida didaktikoak eskaini baitziren ikasleentzat programaturiko film guztiak ikasgeletan lantzeko. Eta ez dira ahaztu zenbait kolektiboren irisgarritasuna hobetzeko egindako aurrerabideak ere (audiodeskribapena, azpidatzi egokituak…).

2017ko jarduera paraleloen artean, aipatzekoak dira, halaber, erakusketa hauek: Fernando Buesa Fundazioaren *Giza eskubideen aldeko tira*, Amnesty International-en *Kolonbia, bake iheskorra,* eta Artea eta Giza Eskubideak Haur eta Gazteen beste ekitaldi bat.



Giza Eskubideen Zinemaldiaren irudia.

| | Egunak | Saioak | Ikusleak euskarazko saioetan | Ikusleak gaztelerazko saioetan | Ikusleak ele biko saioetan | Ikusleak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | | **142** | **16.538** | **23.544** | **1.432** | **41.546** |
| Nosferatu | 24 | 24 | 818 | 3.495 | | 4.313 |
| Beldurrezko eta Fantasiazko Zinema Astea | 6 | 37 | 3.086 | 7.766 | | 10.852 |
| Giza Eskubideen Zinemaldia | 16 | 16 | 5.410 | 4.847 | | 10.289 |
| Dock of the Bay | 4 | 8 | 116 | 2.001 | | 2.117 |
| Bang Bang | 5 | 5 | 0 | 2.127 | | 2.127 |
| Tinko | 27 | 27 | 7.021 | 0 | | 7.021 |
| Saio bereziak | 25 | 25 | 87 | 3.308 | 1.432 | 4.827 |

# FESTAK



Errege Magoak udaltetxeko terrazan.

## ERREGE MAGOAK

2017an, Erregeak goizeko 11etan iritsi ziren Kontxako hondartzara, desfilea baino lehen auzoetara bisita egiteko asmoz. Urtero bezala, desfilea hiriko erdialdeko kaleetan barrena ibili zen arratsaldeko 6etatik aurrera.

Ibilaldian, geldialdiak egin zituzten Antiguan, Amara-Anoetan, Intxaurrondon eta Bidebietan, eta ondoren, Udaletxera jo zuten, non, 15:30etatik aurrera, zain zituzten haur guztiak hartu baitzituzten.

Desfilean, udal konpartsako buruhandiek hartu zuten parte lehen aldiz; autobus turistikoaren gainaldetik, gozokiz blaitu zuten Erregeak ikustera etorritako jendetza.

Desfilea amaitu ondoren, eta ohi bezala, Erregeek Rezola eta Villa Sacramentoko gerontologia-zentroak bisitatu zituzten.

Gainera, Erregeek Altza auzoa bisitatu zuten, eta han Harria parkera hurbildutako haur guztiak hartu zituzten.



# FESTAK



Haur danborrada.

## HAUR DANBORRADA

Konpainiak eta pertsonaiak urtarrilaren 18an –asteazkenarekin– egindako jai batean aurkeztu ziren, Victoria Eugenia Antzokian.

Berritasun gisa, esan dezakegu ezen, Igeldoko zalditxoen konpainia desagertu eta gero, Haur Danborradak poneyak jarri zituela haien ordez, Real Sociedad Hípicako lantzarien zaintzapean; bestetik, irizpide jakin baten arabera, hots, karrozek XIX. mendeko Donostiako gizartea irudika zezatela, artzaina, mandazaina, merkataria, arrantzalea eta emakume donostiarraren irudia gehitu zitzaizkien.

**42 ikastetxe**

**49 konpainia**

**% 51 neskak**

**% 49 mutilak**

**4.997 parte-hartzaile**

**Danborradako pertsonaiak**
Claret Ikastetxea

**Danbor Nagusia**
Jesuitinas Ikastetxea

**ikus-entzuleak**
**30.000**
**35.000**

**7.697 parte-hartzaile, kontuan izanik ikastetxeek auzoetan egindako haur-danborradak.**

# FESTAK



San Sebastian eguneko bandera jaitsiera.

## HELDUEN DANBORRADAK

8.000 lagun inguruk mukuru bete zuten Konstituzio Plaza, San Sebastian Eguneko bandera-jasotzean.

Ekitaldian, hiriko auzoetako danborradetako, Gaztelubide danborradako, Gaztelubideko Gaztainaren Orfeoiko eta Kresala Dantza Taldeko 101 lagunek parte hartu zuten .

Hiriko auzoetako beste hainbat lekutan ere jaso zen bandera.

Egunari amaiera emateko, jendetza izan zen bandera-jaitsieran, non Unión Artesana elkartea izan baitzen agertoki gainean.



# FESTAK



Kaldereroak.

## BERTSO-JAIALDIA

Urtarrilaren 22an, patroiaren festaren ondoren, bertso-jaialdia izan zen Antzoki Zaharrean, arratsaldeko 6etan, eta Euskal Herriko Txapelketan izandako sei bertsolarik hartu zuten parte: Unai Iturriaga, Beñat Gaztelumendi, Nerea Elustondo, Sustrai Colina, Miren Amuriza eta Igor Elortza.

## KALDEREROAK

Kaldereroen jaia otsailaren 4an egin zen, larunbatarekin.




ERREGINA:
**JOSE MARI AGIRRETXE “PORROTX”**
DAMAK:
**NAGORE GARCIA DE ANDOIN**
(Donostia Erietxeko Onkohematologia Unitatea)
**CONCHI GEREÑO LÓPEZ** (Aspanogi)

# FESTAK



Inauteriak

## INUDE ETA ARTZAINAK

Inude eta Artzainen konpartsak hainbat auzotan atera ziren kalera.

**Otsailaren 6a**

Parte Zaharra
**Kresala Elkartea**

Gros
**Groseko Artzain eta Iñudeak “Artainu”**

Amara Berri eta Loiolako Erribera
**Ikasbide Guraso Elkartea**

**Otsailaren 25a**

Antigua
**Antiguotarrak Dantza Taldea**



Iñudeak.

## INAUTERIAK

Inauterietako programa nagusia otsailaren 23tik 27ra bitarte egin zen.

Urte honetan, Momo jainkoarena egitea Bebés de la Bulla fanfarekoei egokitu zitzaien, eta haiek Manolo García izendatu zuten erregina, eta Carlos Andrés, Carlos Espolosín eta Montxo Ruiz dama.

**2.208 parte-hartzaile** (% 84,24 emakumeak)

**28 Konpartsa**

**921 neska**
**122 mutil**

**939 emakume**
**226 gizon**

**24 Konpartsa auzoetan**

**Altza, Intxaurrondo eta Bidebieta auzoetan ere ospatu ziren inauteriak. Programaturiko jardueren artean, Altzako Piñata Igandea, non 26 taldek hartu baitzuten parte.**



San Juan sua Saguesen.

24
Su

## SAN JOAN BEZPERA

Ekainaren 23an, arratsaldeko 7etan, agintarien soka-dantza egin zen Konstituzio Plazan, erdian ipinitako lizarraren inguruan. Ekitaldian, hiriko alkateak eta zinegotzi batzuek hartu zuten parte, bai eta Goizaldi Dantza Taldeko dantzariek eta txistularien udal bandak ere.

Auzoetan ere egin zen udaren etorrera ospatzeko jai hau.

### San Joan bezperaren ospakizuna auzoetan

| | | |
|---|---|---|
| Erdialdea | Morlans | Sagues |
| Amara Zaharra | Loioa | Txomin Enea |
| Parte Zaharra | Martutene (2) | Bidebieta |
| Lorea | Aiete (2) | San Roke |
| Igeldo | Oleta | Intxaurrondo (2) |
| Antigua | Herrera | Amara Berri |
| Añorga Txiki | Altza (2) | |

# FESTAK



Aste Nagusiko kontzertua Saguesen.

## ASTE NAGUSIA

Abuztuaren 12tik 19ra bitarte izan zen. Guztira, 460 jarduerak osatu zuten jai-programa kulturaniztun eta parte-hartzailea, era eta adin guztietarakoak.
Easo Abesbatzako Eskolaniak eta Kresala Elkarteak kantatu zuten ***Artillero*** jaiei hasiera eman zien kanoikadarekin.

Aste Nagusia auzoetan ere izan zen berriz ere, eta jarduerak programatu ziren Amaran (Aitzol parkean), Antiguan (Pio XII.a plazan) eta Grosen (Katalunia plazan); tartean, abuztuaren 15eko 00:00etan *Festara* kantatzea.

Berrikuntza txalotuenetako bat erraldoi eta buruhandien udal konpartsak auzoetara egin zuen bisita izan zen.

Nabarmentzekoa, gainera, Tomas Alba plazan (Saguesko zabalunean) programaturiko kontzertuetan jende asko izan zela berriz ere, Kursaaleko terrazetako argiterian aldaketa egokiak egin izana, eta mariachi musika bandak izandako arrakasta, Kataluniako plazan jaiei buru emateko egindako emanaldian.

Jaien amaieran Valentziako Ricasa pirotekniak eskainitako ikuskizun piromusikala berriki zendutako pop eta rock artista ezagunen aireez baliatu zen, eta donostiarren kritikarik onenak jaso zituen.

Ezin dugu aipatu gabe utzi Bartzelonan gertatutako atentatu terrorista gaitzesteko eta biktimei elkartasuna adierazteko eginiko deialdiari abuztuaren 17an programatutako ekitaldi guztietan elkartutako herritarrek emandako erantzuna: minutuko isilunea egin zen eta, amaieran, biktimak gogoratzeko txalo zaparrada.

**Aste Nagusia (abuztuaren 12tik 19ra)**

**Ikusleen zenbatespena**
**1.140.000**

**Agertokiak**
**28**

**Jarduerak**
**460**

### Aste Nagusiko sariak

| | |
|---|---|
| Herri-kirolak | **Urrezko kopa:** irabazle, Aitzol Atutxa<br>**Igeldoko Harria:** irabazle, Jokin Eizmendi |
| Aste Nagusiko X. Marmitako Lehiaketa | Bikote irabazlea: Joseba Nuñez eta Asier Castresana |
| Bertako produktuak erabiliz egindako Gazteentzako VI. Lehiaketa Gastronomikoa | Bikote irabazlea: Ane Otaegi eta Nerea Rey |
| Aste Nagusiko I. Ajoarriero Lehiaketa | Bikote irabazlea: José Manuel Irigoyen eta Tomás Nuñez |
| Aste Nagusiko Valentziar Paellaren I. Lehiaketa | Bikote irabazlea: Marian González eta Asier Grijalba |
| Aste Nagusiko I. Arkume Menestra Lehiaketa | Bikote irabazlea: Baudilio Castrillo eta Rodrigo Castrillo |



Aste Nagusiko su artifizialak.

## SU FESTEN NAZIOARTEKO 54. LEHIAKETA JAIALDIA

Zazpi enpresa piroteknikok (bost espainiar eta bi atzerritar) hartu zuten parte aste osoa iraun zuen lehiaketan.

## EUSKAL JAIAK

78 jarduera egin ziren abuztuaren 31ren eta irailaren 10aren artean, eta halaxe osatu zen programa, zeinaren lehen jarduera Kontxako banderetarako sailkatze-estropadak izan baitziren, emakumeena eta gizonezkoena.

Kirol jarduerak, gastronomikoak, folklorikoak, euskararen eta gure kulturaren ingurukoak, era guztietako pertsonei zuzenduak.

Azpimarratzekoa Easo Abesbatzaren Eskolaniak 25. urteurrena zuela-eta Gero Axular Datza Taldearekin batera eskainitako emanaldia, hilaren 9an, Konstituzio Plazan.

Eguraldiak ez zuen lagundu, baina programaturiko jarduera guztiak egin ziren.

**Su Festen Nazioarteko 54. Lehiaketa Jaialdia (Abuztuaren 12tik 19ra)**

**Ikusleen zenbatespena 500.000**

- Urrezko Maskorra: Hermanos Caballer
- Zilarrezko Maskorra: Peñarroja
- Brontzezko Maskorra: López
- Gazteriaren Saria: Peñarroja
- Herri Epaimahaiaren Saria: Peñarroja

**Piroteknia parte-hartzaileak**

- Accitana Mª Angustias (Granada)
- Hermanos Caballer (Castelló)
- Pirotecnia del Mediterráneo (Valentzia)
- Poleggi (Italia)
- Peñarroja (Castelló)
- New Year Fireworks (Txina)
- López (Santiago de Compostela)

**Aste Nagusiko Su Festen III. Argazki Lehiaketarako deialdia egin zen, interesa duten guztientzat, eta lan irabazlea izango da lehiaketaren 55. edizioa iragartzeko erabiliko den irudia.**




Kontxako Estropadak.

## ESTROPADAK

Bi banderak, emakumeena eta gizonezkoena, parte-hartze baldintza berdinetan egin ziren: sailkapenerakoa abuztuaren 31n, eta lau partaideko bi txanda hurrengo bi igandeetan, irailaren 3an eta 10ean. Ziaboga bakarrera jokatu ziren, emakumeena 1,5 itsas miliako luzerakoa, eta gizonezkoena 3 itsas milakoa.

Bigarren igandeko estropada, emakumeena zein gizonezkoena, atzeratzekotan egon ziren, itsaso txarra zegoela eta. Hain zuzen ere, itsasaldiaren indarrak eraman egin zituen emakumeen kategoriako balizak, eta ezin izan ziren ipini proba horren araudiaren barruan egiteko moduan (lau kale). Ondorioz, eta klub parte-hartzaileek adostu eta gero, emakumeen proba erabilgarri zegoen kale bakarretik egin zen (4. kalea, uharte ondokoa), traineruen artean minutu bateko tartea utzita. Estropada oso gogorra izan zen, eta une baten bi traineruk ia elkar jo zuten, baina patroien jokaera egokiari esker, ez zen kalterik gertatu.

Gizonezkoen estropada pentsatuta zegoen bezala egin zen, emakumeenak baino egoera hobean aurkitu baitzuen itsasoa. Olatu handien eta itsaso zakarraren kontra jokatu behar izan zuten, eta, horri esker, irudi ezin ederragoak eskaini zituzten, errepikatzen zailak gertatuko direnak.

Eguraldi txarra zela eta, zaleak dezente gutxiago izan ziren.

Banderak ematea Ciudad de San Sebastián katamaranetik egin zen, portu barruan.

**Donostiako Estropadak (Abuztuaren 31 eta Irailaren 3 eta 10ean)**

**Ikusleen zenbatespena 20.000 lagun eguneko**

### Kontxako X. Bandera (emakumeentzat)

| | |
|---|---|
| Traineru parte-hartzaileak | 14 |
| Sailkatuak | Arraun Lagunak Donostia<br>Club de remo Mecos-Riveira<br>Deusto-Tecuni-Bilbao<br>Donostiarra<br>Hernani Iparragirre Sagardotegia<br>Hibaika jamones Ancín<br>Orio - Babyauto<br>San Juan Iberdrola |
| Irabazlea | San Juan Iberdrola |

### Kontxako Bandera (gizonezkoentzat)

| | |
|---|---|
| Traineru parte-hartzaileak | 25 |
| Sailkatuak | Bermeo-Urdaibai-Avia-Campos-Enagas<br>Donostiarra<br>Hondarribia<br>Kaiku Producha<br>Orio-Babyauto<br>San Juan Sumelec<br>Tirán – Pereira<br>Zierbena Bahías De Bizkaia |
| Irabazlea | Orio-Babyauto |



Santo Tomas Feria.

## SANTO TOMAS FERIA

Hiria baserri-giroko merkatu bihurtu zen, txistorra protagonista nagusi bihurtuta festa gunean banatutako 201 postuetan, askotariko produktudun postuetan. Adin guztietako jendearentzat prestatutako programazioarekin osatu zen feria eta ez ziren falta izan herri kirolak (pilota, aizkolariak...), haurrentzako lantegiak, abereen erakusketa, fruta, barazki, ezti, txistor lehiaketak... Baserritar postuen I. Lehiaketa ere izan zen.

Bestalde, Trinitate plazan emakumeentzako Esku-pilotako II. Lehiaketa eta Emakume Aizkolarientzako Urrezko I izan ziren, emakumeen kirola bultzatzeko konpromisoaren seinale, eta jende asko erakarri zuten biek ala biek. Bi pauso berri kirola sustatzeko Donostiako jaien arloan.

Feriako protagonista nagusia ezin ahaztu: Ursula, bere 370 kiloekin egun osoa eman zuen Konstituzio Plazan.

2017an, zortzi auzok hartu zuten parte ferian, zenbait jarduera antolatuz: Antigua, Amara Berri, Amara Zaharra, Gros, Ibaeta, Intxaurrondo, Loiola eta Morlans.






Ursula izeneko txerria.

# FESTAK



Olentzero eta Mari Domingi Udaletxeko terrazan.

## OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

Abenduaren 24an menditik jaitsi ziren Olentzero eta Mari Domingi, haien zain ziren haur guztiengana hurbiltzeko.

Trikitilari jantzitako txotxongilo erroldoi batzuek bidea adierazi zieten Udaletxera arte, eta han hartu zituzten gutunak entregatzera etorritako haurrak.

Bien bitartean, Eskola eta Gero Axular dantza-taldeek zenbait jarduera egin zituzten Udaletxe aurreko terrazan (baserritar jantziaren zapia behar bezala ipintzeko lantegia, gaztaina erreen banaketa...)

18:30ean, Olentzero eta Mari Domingik desfilea abiatu zuten Erdialdeko kaleetan, artzainek, galtzagorriek, farol-eramaleek, abereek...lagunduta, eta haur askoren gutunak jasotzen jarraitu zuten.




## EGUBERRIAK

2017an, Festak unitateak Donostiako Sustapen elkartearekin batera antolatu zituen Gabonetako II. Merkatua zela-eta egin ziren jarduerak. Ekarpen hauek egin zituen: plataforma bat ipintzea Urumea ibaiaren erdian (Santa Katalina eta Maria Kristina zubien artean), nondik suzko erroberak jaurti baitziren abenduaren 4, 23 eta 30ean, eta noria bat lortzea merkatuaren osagarri jostari modura.

# FESTAK

## AUZOETAKO JAIAK

Festak unitateak kudeatzen ditu jaiak egiteko behar diren baimen eta udal zerbitzuak; gainera, azpiegitura eskueran jartzen eta muntaketak koordinatzen ditu, batzorde antolatzaileei eginkizunak errazteko asmoz.

| Jaien izena | Egunak |
|---|---|
| Antiguako San Sebastian | Urtarrila, 12-21 |
| Ibaetako jaiak | Otsailak 25 – martxoak 1, 3, 4, 5, 6 |
| Txanpontxo jaiak | Maiatza, 11-14 |
| Morlans | Maiatza, 19-21 |
| Larratxoko jaiak | Ekaina, 1-14 |
| Antiguako San Juanak | Ekaina, 9-23 |
| Herrerako jaiak | Ekaina, 10,11 / 15-23 |
| Amara Berriko festak | Ekaina, 16-18/23 |
| Oletako jaiak, San Juanak | Ekaina, 21-25 |
| Intxaurrondoko San Juan jaiak | Ekaina, 22-24 |
| Igeldoko San Pedro jaiak | Ekaina, 23, 24, 25, 29, 30; uztaila, 1, 2 |
| Intxaur jaiak - Intxaurrondo | Ekaina, 30/uztaila, 1-2 |
| Altzako San Martzial jaiak | Ekainaren 24tik uztailaren 2ra |
| Añorgako jaiak | Uztaila, 8, 9/13-16 |
| Karmengo jaiak (Amara Berri) | Uztaila, 7/14-16 |
| Karmengo jaiak (Kaia) | Uztaila, 13-16 |
| Zipotz jaiak | Uztaila, 13-16 |
| Zubietako herri-jaiak | Uztaila, 24-31 |
| Amarako jaiak | Uztaila, 27-31 |
| Loiolako San Inazio Jaiak | Uztaila, 28-31 |
| Añorga Txiki | Iraila, 1-3 |
| Txomin Eneako jaiak | Iraila, 8-10 |
| Intxaurrondo Zaharreko jaiak | Iraila, 7-10/14 |
| Aieteko jaiak | Iraila, 8-17 |
| Porrontxo jaiak | Iraila, 11-17 |
| Jolastokieta | Iraila, 13-17 |
| San Festo (Loiolako Erribera) | Iraila, 15-17 |
| Udaren amaiera (Altza) | Iraila, 22-24 |
| Amara Berriko Jai Herrikoiak | Urria, 5-8 |
| Martu Jaiak | Urria, 7 / 11-15 |

# FESTAK



xxx

## BESTE JARDUERA BATZUK

Festak unitatetik, behar ziren baimen eta zerbitzuak kudeatu ziren hainbat kolektibo eta elkartek proposatutako jarduerak kalean egin ahal izateko, eta hartarako behar ziren azpiegiturak eskueran jarri eta muntaketak koordinatu ziren.

**7**
**Jarduerak Etxe erregionales jaiak**

**Beste jarduerak**
**62**

**Minbiziaren kontrako lasterketa**
**Casal de Catalunya – calÇoten deboraldia**
**Liburu zahar eta berrien azokak**
**Gipuzkoako marinel zaharrei omenaldia**
**AFAGI, alzheimerraren inguruko ekitaldiak**
**Zipristin – Tamayo Pintura Lehiaketa**
**Rallye histórico Vasco-Navarro**
**Tasta Catalunya**
**Gimnástica de Ulía elkartearen mendeurrena**
**Antxeta elkartearen 50. urteurrena**
**Santa Ageda**
**Sagardo Apurua**
**…**

## SENIDETZEAK

**Marugame:**

Urteroko garaikur-trukea egin zen eskolarteko futbol-txapelketetarako. Marugameko High Schooleko ikasle talde bat Donostiara etorri zen bisitan, uztailaren 30etik abuztuaren 3ra bitarte. Laguntzaile izan genituen Ekintza Ikastola eta AIKO eta Bonsaiaren Adiskideen elkarteetako kideak. Ikasle taldeak zenbait familiaren etxeetan hartu zuen ostatu, eta bisitak eta ibilaldiak egin zituen Donostian eta Gipuzkoan zehar.

• Kultura-truke polita izan zuten, eta egonaldiaren oso oroitzapen onarekin itzuli ziren Japoniara.

• Japoniera-ikasle bik egonaldia egin zuten Marugamen, hizkuntza hobeto ikasteko.

**Trento:** Waterpolo Donostia klubeko talde batek *Pallio dell'Oca* baltsa-lehiaketan hartu zuen parte (ekainaren 24an), San Vigilioren jaietan.

**Wiesbaden:** Araoz Gazte abesbatza Wiesbadenera joan zen bisitan, aurreko urtean, 2016an, Wiesbadengo Mädchenchor abesbatzak Donostiara egindako bisitari erantzunez.

## ESKERRAK BABESLEEI

Beste urte batez, eskerrak eman nahi dizkiegu honako marka hauei, beraiek gabe zenbait jarduera egin ezinik geratuko baikinen: Amstel, Coca Cola, Euskaltel, El Diario Vasco, Kutxabank, AFADE, FCC, Eroski, Supermercados BM, Insalus, Nestle, Frigo, Super Amara, Adegi…

# HEINEKEN JAZZALDIA



# JAIALDIAK
# HEINEKEN JAZZALDIA


© Lolo Vasco

Macy Gray.

52. Heineken Jazzaldia hurrengo sentsazioarekin itxi genuen: historiako osatuenetakoa izan zen, kalitate artistiko altuarekin, ia hedabide guztiek ere hala nabarmendu zuten, eta publikoaren erantzuna sutsua izan zen, ohikoa denez. Ikus-entzuleak, guztira, 156.500 izan ziren: 17.000 kontrolatutako sarbidea zuten aretoetan, eta gutxi gorabehera, 139.500 sarbide librekoetan.

Trinitate plazako emankizunek entzuleak txunditu zituzten, eta zaila da kontzertu bakar bat nabarmentzea. Saxofonisten urtea izan zela esan daiteke. **Donny McCaslin** eta **Kamasi Washington** izan genituen, proposamen arrunt desberdinekin, baina biak ere jazz garaikideari buru eta bihotz emanak. Eta **Charles Lloyd** maisu hunkigarria, jakina, aurtengo Donostiako Jazzaldia Saria.

Abeslari apartak ere ez ziren falta izan "Trini"-n. **Macy Gray**k soul intimoa eta adierazkorra tartekatu zituen. **Gregory Porter** momentuko jazz abeslaria; Grammy bat lortzen du diskoko, eta agertokian gertukoa eta atsegina. Piano-jotzaile historikoa ere izan genuen gure artean: **Abdullah Ibrahim** bakarka, **Ekaya** bere taldearekin edo **Terence Blanchard**ek lagunduta entzutea, beti da plazera.



Kamasi Washington.
© Lolo Vasco

Charles Lloyd,
Premio Donostiako Jazzaldia.
© Lolo Vasco

Gregory Porter.
© Lolo Vasco

# HEINEKEN JAZZALDIA




The Pretenders.

Trinitate plazan inor nabarmentzea zaila bada, are gehiago Kursaalen. **Wayne Shorter** azken 50 urteetako saxofoi-jotzaile handienetakoa izan zen bertan, eta **Danilo Pérez**, **John Patitucci** eta **Brian Blade**rekin egindakoa etorkizuneko saxofoi-jotzaileek seguru oso aintzat hartu zutela.

Puntaren puntakoa, halaber, **Herbie Hancock**, eta bere egin du belaunaldi berrien musika-lengoaia. **Hiromi** pianista japoniarrak ezohiko bikote hunkigarria osatu zuen **Edmar Castañeda** harpa-jotzaile kolonbiarrarekin. **Robert Glasper Experiment**, aldiz, jazz elektronikoan bide berriak urratzen ari da.

**Bryan Ferry** ere bertan izan genuen. Gizon dotorea da eta oso serio hartzen du kontzertu bakoitza. Haren bandak (zazpi musikari eta bi korista) beti erdietsi behar du perfekzioa. Denak primeran funtzionatu behar du. Gustu handiz abesten du eta horrek eman dio sona. Jendeak biziki estimatzen du eta esker ona ematen dio bueltan, eta halaxe gertatu zen Heineken Jazzaldian ere: publikoa zutik jarri zen eta txalo-zaparrada grinatsua eskaini zion.

Heineken Jazzaldiak aukera eskaini zigun ikus-entzunezko proiektu erraldoi bat ezagutzeko: ***Poem of a Cell***, **Stefan Winter** soinu-artista eta musika-ekoizle alemaniarrak zuzendutako irudi eta soinu ikuskizuna. Beste hiruzpalau hiritan bakarrik ikusi ahal izan da.

Irudi eder uholdea eta musika bikaina 42 musikarik zuzenean exekutatu zutena, guztiak ere jazzeko, musika klasikoko, etnikoko eta koraleko figura nabarmenak: **Uri Caine**, **Mark Helias**, **Clarence Penn**, **Barbara Walker**, **Joachim Badenhorst**, **Fumio Yasuda**, **Rajab Suleiman**, **Saada Nassor**, **Fanny Winter**, **Kettwiger Bach Ensemble** talde bokala eta **Forma Antiqva** ganbera-musika taldea.

Agertoki Berdean **The Pretenders** izan ziren protagonista, ezin beste modu batera izan. 37.000 pertsona bertaratu ziren, eta ederki gozatu zuten **Chrissie Hynde**k eta kideek eman zuten kontzertu zintzo eta trukurik gabekoarekin. Beste emanaldi batzuek ere jende andana bildu zuten, eta ikus-entzuleek saria jaso zuten bueltan: emanaldi dibertigarriak (**Sir The Baptist**, **Cory Henry**, **The Lucky Chops**, **Fantastic Negrito**,**of Montreal**) eta erlaxatuagoa zen besteren bat (**King Creosote**). Txalo zaparrada jaso zuten Donostiako **Niña Coyote eta Chico Tornadok** ere. Atentzioa ematen dute ezohiko formazioa osatzen dutelako (gitarra eta bateria, eta neskak du baketen ardura) eta baita kontzertuaren intentsitateagatik ere.




Herbie Hancock.




Hiromi.

# JAIALDIAK
# HEINEKEN JAZZALDIA




Ray Gelato.

30etik gora bakarlari eta talde euskaldun izan ziren, guztiak maila altukoak. Aipu berezia merezi dute **Musikene** Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiko irakasleek. Beraiek izan zuten omenaldiak bideratzeko ardura: Ella Fitzgeraldena, Thelonious Monkena eta Dizzy Gillespierena (hirurak jaio zirela 100 urte bete ziren 2017an), eta John Coltranerena (duela 50 urte hil zen). **Deborah Carterek**, **Iñaki Salvadorrek**, **Chris Kasek** eta **Mikel Andueza**k erronka nota altuarekin gainditu zuten: moldaketa originalak tentuz ikasi zituzten eta euskal jazz eszenako musikari fidagarriez inguratu ziren.

Alderdi Ederreko lorategiak jaialdiko agertoki bihurtu ziren berriz ere. Eguneroko eskaintza bikoitzak jendetza batu zuen, bi arrazoigatik: kokapen ezin erakargarriagoa eta bertan programatutako lehen mailako artistak.

Kursaaleko terrazek ondo baino hobeto bete zuten aurreikusitako zeregina: jazzaren tendentzia guztien agertoki izatea. **Houston Person** eta **Ernie Watts** moduko klasiko erraldoiak hartu dituzte. Biak ala biak jazzista dotore, diskretu eta perfektuak, entzuleen aitortza merezi dutenak, eta Donostian horixe jaso zuten.  Askoz gehiago ere izan ziren: **Ray Gelato**ren swing kutsagarria; **Uri Caine**ren jazz intelektuala; **Gabacho Maroc** eta **Rajab Suleiman & Kithara**ren musika etniko landuak. Eta estilo guztietako euskal taldeak.

Victoria Eugenia Antzokian hainbat ikuskizun izan ziren gauerdian. Hala ere, guztiek izan zituzten bi gauza komunean: musikari birtuosoak eta elkarlanean aritzeko espiritua: Erdi Aroko musika jazzarekin (ArFolia Libra), flamenkoa jazzarekin (**Chicuelo-Mezquida**), jazz italiarra jazz espainiarrarekin (**Stefano Bollani-Chano Domínguez**), Europa iparraldekoa Mediterraneokoarekin (**Atmosphères**).

Gainontzeko agertokietan ere ez zen atsedenik izan. Jazza toki guztietan eta etengabe: Tabakalerako Kutxa Kultur Klubean, Victoria Eugenia Clubean, Nauticoolean, Orion, Villabonan, Saguesen, La Perlan, FNAC Gunean... Gelditu gabe.

**Txikijazz**, familientzako jaialdia, sendotu ez ezik, fenomeno bihurtu zen bosgarren edizioan. Jarduera gehiago, kontzertu gehiago, jende gehiago. Txikiak gozatzen, eta gurasoak pozik. Jazz zaleen harrobia da. 50 haurretik gora musikari gisa aritu ziren **Txikijazz Big Band**ean. Horrez gain, publiko gazteenak **Kevin Mahogany**, **King Creosote**, **The Good Time Rollers** (Donostiako Lindy Hop taldearekin) eta **Alfred Spirli-Les Incendiaires** entzuteko aukera izan zuen. Ziur zerbaitekin geratu direla.

105 emanaldi, 17ko agertoki, 156.000 entzule. Horiek dira 52. Heineken Jazzaldiaren zenbaki hotzak, udako sasioi horretarako tenperatura freskoekin bizitakoa, baina artisten eta entzuleen eskutik etorri zen berotasuna, eta haiek bihurtu zuten gogoangarri.

| AGERTOKIAK | PARTE-HARTZAILEAK |
|---|---|
| Trinitate Plaza | 6.902 |
| Kursaal Auditorioa | 7.026 |
| Victoria Eugenia Antzokia | 1.517 |
| San Telmo Museoa | 816 |
| Doako kontzertuak (Frigo agertokia, agertoki Verde, Heineken Terraza, Coca Cola, Konstituzio plaza eta Nauticool) | 140.215 |

**GUZTIRA: 156.476**

# JAIALDIAK **FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMA ASTEA**



# JAIALDIAK **FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMA ASTEA**




*Bad Black* (Wakaliwood): Alan Ssali Hofmanis

XXVIII. Astea bere ildoari atxiki zitzaion, zinemaldia urteko produkziorik onenen erakustoki izan dadin eta, horrekin batera, sortzaileen eta generoaren zaleen arteko topagune.

***Errementari*** euskal produkzioari emandako ikus-entzuleen saria amaiera polita izan zen sortzaile gazteen aldeko apustu gisa; kasu honetan, **Paul Urkijo** zuzendariak jaso zuen. Gure folklorean oinarritutako fantasia eder hau, euskaraz grabatua, puntu gorenetako bat izan zen Astean, baina izan ziren beste batzuk ere.

Lehiaketen alorrean, gogor eutsi zitzaion film laburren aldeko apustuari, hiru sailetan banatuta. Hain zuzen ere, aurreko urteetan film laburra aurkeztua zuten zenbait zuzendarik beren lehen luzea aurkeztu zuten 2017an: ***Matar a Dios*.**

Zaleek oso ondo hartu zituzten Fantaterrorezko zine espainiarrari egindako omenaldia –**Maria José Cantudo** ageri zen kartelean–, ***Mil gritos en la noche*** erakusketa eta beste jarduera batzuk.

2017ko beste apustu nabarmen bat genero honetako emakume zinemagileei gogoeta eta agerbidea eskaintzea izan zen, film-ziklo sendoa izan baitzen, eta **Theda Bara** musa wamp-a agertu zen kaleko inaugurazioan eta Asteko beste une batzuetan.

Donostiako eragile publiko eta pribatu berriek hartu zuten parte Astean, apustu ludikoa eta kalitatezkoa eginez; besteak beste, Kutxa Kultur, Ubik Tabakalera eta Super Amara. Zenbait ekintza sustatu zituzten fantasiaren birus ongarria hedatzeko.



*Mil gritos en la noche: María José Cantudo*

# GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



# GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Deepa Mehta zinemagile hinduak jaso zuen Donostiako 15. Giza Eskubideen Zinemaldiko Saria.

Udaleko Giza Eskubideen arloak antolaturik, 2017koa 15.a izan zen. Dagoeneko, Zinemaldia zinema sozialaren erreferente argia da Estatu osoan.

Memoria historikoa, babes bila dabiltzan pertsonen egoera, lan-gatazkak edo autismoa izan ziren, besteak beste, film luzeek, eztabaidek eta Victoria Eugenia Antzokira –zinemaldiaren egoitza nagusira– gonbidaturiko pertsona ospetsuek jorratutako gaiak. ***Ama, nora goaz?*** dokumentalaren emanaldia nabarmenduko dugu, eta horrekin batera ***Emeek emana*** erakusketa, Intxorta 1937 Kultur Elkartearena, biak ere Gerra Zibilaren eta diktaduraren biktima izandako euskal emakumeei eskainitako omenaldiak.

2017ko sari berezia **Deepa Mehta** zinemagile hinduari eman zitzaion; hala, urte horretan ere, giza eskubideen aldeko emakume sortzaileei merezi duten garrantzia emateko apustuari eutsi zitzaion.

Zinemaldiak pedagogia-lana eginez jarraitu zuen, gida didaktikoak eskaini baitziren ikasleentzat programaturiko film guztiak ikasgeletan lantzeko. Eta ez dira ahaztu zenbait kolektiboren irisgarritasuna hobetzeko egindako aurrerabideak ere (audiodeskribapena, azpidatzi egokituak...).

2017ko jarduera paraleloen artean, aipatzekoak dira, halaber, erakusketa hauek: Fernando Buesa Fundazioaren ***Giza eskubideen aldeko tira,*** Amnesty International-en ***Kolonbia, bake iheskorra***, eta **Artea eta Giza Eskubideak Haur eta Gazteen** beste ekitaldi bat.



*Emeek emana* erakusketa.



*Ama, nora goaz?* filmaren emanaldia.


dFERIA
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
DENBORA | EL TIEMPO
XXIII. ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS
MARTXOA 6-9 MARZO 2017



Ikusleak dFERIA jaialdian.

dFERIA
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

XXIII: dFERIAn, **30 ikuskizunen 35 emanaldi programatu ziren 11 eszenatokitan**: Victoria Eugenia Antzokia, Victoria Eugenia Club, Antzoki Zaharra, Gazteszena (Egia), Imanol Larzabal (Lugaritz), Intxaurrondo K.E., Tabakalerako Patioa, Zabaltza eta 1. guneak eta DSS2016 Guneko Hangarra. Guztira, **8.007 lagunek** programatutako emanaldiez gozatu ahal izan dute eta, batez besteko guneen **betetze maila %85koa** izan zen.

Guztira, 13.000 lagunek parte hartu zuten ferian, ikuskizunetako publikoa eta jarduera paraleloetako parte-hartzaileak kontuan hartuta, aurreko urteko parte-hartzea hobetuz, 5 emanaldi gutxiago izan ziren arren. Sarrera salmentari dagokionez, azkeneko urteetako joera mantentzen da.

Akreditatu kopuruari dagokionez, 423 profesional izan ziren guztira. 2016Ko kopurua %5 handitu da: 159 programatzaile, 53 banatzaile, 138 ekoizle eta konpainien ordezkari, 20 kazetari eta bestelako 53. Espainia, Polonia, Eslovenia, Kroazia, Holanda, Mexiko, Uruguai, Argentina, Frantzia, Dominikar Errepublika, Brasil, E.E.B.B., Costa Rica, eta Kolonbiako programatzaileak izan ziren dferian.

**Jarduera paraleloetan 5.113 lagunek** parte hartu zuten:

- COFAEk antolatu eta Pepe Zapatak emandako *Nola erabili Email Marketinga gure komunikazio-estrategia optimizatzeko* ikastaroa: 30 lagun.
- Negozio foroa 1: 110 lagun.
- Negozio foroa 2: 110 lagun.
- ADDE, Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteko katalogoaren aurkezpena: 280 lagun.
- Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritzaren aurkezpena: 280 lagun.
- PATEA, Kaleko Arteen Elkartearen aurkezpena: 280 lagun
- REDELAE, Arte Eszenikoen Sare Eurolatinoamerikarraren aurkezpena: 280 lagun.
- SAREAren asanblea: 46 lagun.
- RED, Antzoki sarearen bilera: 10 lagun.
- RED Española, Espainiako Antzokien Sarearen topaketa: 25 lagun.
- Bideratzaileak; 500 lagun.
- ESKENAren bilera: 12 lagun.
- Ikerne Jiménezen *Inoiz egin ez ditudan lanak* erakusketa: 1.000 lagun.
- Eguneko topagunea: 1.000 lagun.
- Gaueko topagunea: 800 lagun.

### Nobedadeak

- Bi negozio foro antolatu ziren VEAko Foyerrean.
- Ferian akreditatuko pertsonentzako 2 bideratzaile jarri dira, Espainia mailako profesionalak bideratu eta harremanetan jartzeko bat (COFAEren lankidetzari esker), eta nazioartekoekin lan berbera egiteko bestea.
- Bi gune berri erabili ziren: Tabakalera Zabaltza eta Tabakalera 1. espazioa.
- dFERIA abroad.



*Tiempo*, Teatre de guerrilla.



*Sedientos*, Cía. Ferroviaria.

### Programazioa

30 ikuskizunen 35 emanaldi programatu dira. Horietatik, % 60a modu bateko edo besteko estreinaldiak izan ziren:

• Estreinaldi orokorrak: ***A corps perdus Opus 2*** (Cie. Bivouac), ***Medea*** (Pilar Távora), ***Hagiografía*** (De la Puríssima), ***One Way Ticket*** (Kanpai), ***Sólo una actriz de teatro, Estela Medina*** (Compañía Reverso).

• Gaztelerazko estreinaldiak: ***Resaca*** (ilMaquinario Teatro), ***Soka*** (Tanttaka Teatroa & VEA).

• Euskal Herri mailako estreinaldiak: ***Gold Dust Rush*** (Eulália Bergadà), ***Tiempo*** (Teatre de guerrilla), ***The Primitals*** (Primital Bros & Yllana), ***Sedientos*** (Cía. Ferroviaria),



*Gold Dust Rush*, Euláía Bergadá.

# dFERIA



*Koadernoa zuri*, Hika Teatroa.



*La sangre de los árboles*, Compañía Reverso.

***Los malditos*** (Unahoramenos produciones), ***Tejidos al tiempo*** (Choni Cía. Flamenca).

• Estatu mailako estreinaldia: ***Phalène*** (Cie Gregorie - Muriel Corbel).

• Europa mailako estreinaldiak: ***La sangre de los árboles*** (Compañía Reverso, Urugauay), ***Flores ácidas*** (Grupo Las damas, Argentina), ***Inestable*** (Suttotos, Argentina).

• Work in progress bat: ***Topa***, Kukai Dantza & Brodas Bros.

Euskaraz bi emanaldi izan ziren:

• ***Koadernoa zuri,*** Hika Teatroa.

• ***Hariak***, Ertza Konpainia.

Konpainiek dFERIAren aldeko apustua egin zuten, euren ikuskizunen estreinaldietarako erakusleiho gisa hartuta.%50 antzezlanak izan ziren, %40 dantza ikuskizunak eta gainerako %10, diziplina anitzekoak. Jatorriari dagokionez, %54 euskal ekoizpenak izan ziren, %26 espainiarrak eta %20 atzerrikoak.

## Ondorioak

- XXIII. DFERIA arrakasta handiz bukatu zen, konpainien maila artistiko handiari esker. Arte eszenikoen sektoreak feriarekiko erakutsi zuen atxikimendua handia izan zen, eta publikoaren harrera, bikaina.

- dFERIAra hurbildu ziren ikusle eta profesional kopuruak gainditu egin zuten aurreikusitakoa. Azpimarratzekoa 2014tik % 40 hazi zela akreditatutako profesionalen kopurua. Bestalde, aurkeztutako ikuskizunek kalitate handia izan zuten, eta euskal antzerkiaren eta dantzaren mailaren erakusgarri izan ziren, bai ikusleentzat, bai komunikabideentzat, bai profesionalentzat. Nabarmentzekoa izan zen, halaber, nazioarteko aintzatespena lortu zuten zenbait artista eta ikuskizun izan zirela gure artean.

Duela zenbait edizio finkatutako erronka guztiak gainditu ziren, eta, hala, kalitatezko programazio berritzailea eskaini zen, eta orekatua, dantza eta antzerkiari begira. Guztion artean –sektorea, administrazioak, prentsa eta ikusleak-, ezagutzera eman zen dFERIAk egiten zuen lana antzerki eta dantza arloa sustatzen eta bistaratzen.

dFERIAk ahalbidetu zituen eta oraindik ere ahalbidetuko dituen salerosketen aurreikuspen-datuei begira ere, baikorrak izateko motiboa dugu. Atzerritik etorritako zenbait profesionalek, bestalde, berriz ere interes handia azaldu zuten



*Topa*, Kukai Dantza & Brodas Bros.

euskal antzerkia eta dantza beren herrialdeetan programatzeko. Horrenbestez, nabaria da dFERIA errotzen ari dela, eta lau berritasun nagusi azpimarratuko ditugu:

- Espainiako egileen lana sustatzeko SGAE Fundazioarekin luze egindako elkarlanaren emaitza gisa, beste espazio bat sortu zen: Antzoki Zaharra-SGAE Fundazioa.

- Negozio-foroek profesionalek elkar ezagutu dezaten ahalbidetu zuten, eta proiektu eta ikuskizun berriak sustatzeko aukera eskaini zuten. Ezinbestekoa iruditzen zaigu lan-ildo hori jorratzen jarraitzea, elkar lanerako eta merkataritza-trukerako bideak zabaltzeko.

- Ildo horretan, azokak 2017an lehen aldiz izan zituen bi bideratzaileen funtzioa oso garrantzitsua izan zen; izan ere, bitartekari-lanak egin zituzten elkar ezagutzen ez zuten profesionalak harremanetan jartzeko eta haien arteko topaketak bideratzeko. DFERIA pixkanaka-pixkanaka gora doa, gero eta profesional gazte gehiagok parte hartuko dute bertan, eta, horregatik, bitartekaritza-lana gero eta beharrezkoa izango da.

- **dFERIA abroad** proiektuaren bidez, bestalde, beste dimentsio bat eman zitzaion dFERIAri berari eta haren eginkizunari, aukera izango baitugu urtean zehar munduko beste leku batzuetara joateko eta gure lana zabaltzeko. Elkarlanean ariko gara nazioarteko jaialdi eta azokekin, euskal konpainien sorkuntza-lanak ezagutarazteko eta haientzako merkatu berriak zabaltzeko. Hala egin genuen 2017n: uztailean, San José de Costa Rican izan ginen, eta, abuztuan, Montevideon (Uruguai). dFERIA azoka mundura zabaltzeko proiektu originala da dFERIA abroad; eraginkorra izan dadin espero dugu.

dFERIA errotzearen aldeko erronkan, berebiziko garrantzia du, orobat, aurreko edizioetan emaitza interesgarriak ekarri zituzten berritasunak indartzea eta sendotzea; hala nola, besteak beste:

• Azpitituluak erabili ziren euskal konpainien obraren batean, Etxepare Institutuari esker.

• Kutxak Tabakaleran duen gunea erabili zen eguneko topagune gisa.

Amaitzeko, zinez eskertu nahi ditugu azken urteetan lankide izan ditugun administrazio-erakundeak: INAEM, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Halaber, ezin aipatu gabe utzi KUTXA, SGAE Fundazioa, DSS2016EU, Etxepare Institutua, OARA (Office Artistique de la Région Aquitaine), AC/E (Acción Cultural Española) erakundeen ezinbesteko lankidetza. Urtero bezala, bereziki eskertu nahi dugu euskal antzerki eta dantza konpainien parte-hartze aktiboa, oro har, eta, zehazki, Euskal Antzerki eta Dantza Konpainien Elkartearena (Eskena) eta Euskal Aktoreen Batasunarena (EAB), hala nola Artez aldizkariarena. Bestetan bezala, haiek guztiek euren alea jarri zuten 2017an, eta ahalegin berezia egin zuten, baita ekonomikoki ere. Esker ona adierazi nahi diegu, halaber, komunikabideei eta bertako profesionalei dFERIAri emandako babesagatik, eta, azkenik, eta batez ere, publikoa eskertu nahi dugu: izan ere, azken urteetako joera jarraituz, haiei esker ikuskizun-aretoak beteago daude urtetik urtera, eta hori ezinbesteko erronka eta akuilu bihurtu da etorkizuneko edizioak antolatzeari begira.

JAIALDIAK
# DKLUBA



© Lorena Otero

# DKLUBA




Chk Chk Chk! Intxaurrondo Kultur Etxean.

**Dkluba** marka berria sendotu eta indartu egin zen 2017an eta lortu du musika independentearen eta programaren arteko identifikazioa. Hala, Dklub zirkuituak lau zutarritan nagusi ditu: **kultur etxeetan** programatutako **kontzertuak**; **bertako musika taldeekin aritzea; tabernen programazioa** laguntzea; eta **kolektiboek** antolatutako **jaialdiak** sostengatzea.

**64 kontzertu** programatu ziren, eta **17.467 ikus-entzule** izan ziren kontzertuotan. Aipamen berezia merezi du **Intxaurrondo kultur etxean** antolatu ziren kontzertuen arrakastak, izan ere, hiru *sold out* gertatu ziren udazkenean ia-ia jarraian: **Glaukoma, Nuevo Catecismo Católico** eta **Bidehuts 10 urte.** Era beran, etxe horretatik pasatu ziren **Bigott, Ivan Ferreiro, 7 notas 7 colores, Hesian, Julieta Venegas, Los Tiki Phantoms, Gatibu, Cracker, El Twanguero, León Benavente** eta **Adrián Costa**.

Dklubaren beste hitzordu handi bat kalean izan ohi da, **Musikaren Eguna** ospatzeko, Fnac-ekin lankidetzan. 2017an, 3.000 lagunetik gora hurbildu ziren kaleko agertokira, Loiola kalean, **Smile, Iseo & Dodosound, Capitán Tortuga, Ladrones de Guitarras** eta beste artista batzuen emanaldiekin gozatzeko.

Aipamen berezia merezi du 2017 urtean **Glad is the Day** jaialdiak. 2016 Kultura Hiriburutzaren legatua den ekimen hori Donostia Kulturaren gain geratu da eta Dklubaren barruan integratuta geratu da zirkuituko jaialdi gisa. **Dabadaba** eta **Bukowskirekin** batera, egun osoko jaialdia antolatu zen abuztuaren 6an **Cristina Enea parkean** eta bertan aritu ziren **16 musika talde**, estilo eta jatorri oso desberdinekoak. Parkea jendez lepo bete zen eta aurrerantzean udako musika festa handia izateko bokazioa duela dirudi.




Gatibu.




Inoren Ero Ni, Bidehuts 10 urte kontzertuan.


donostiakultura
OLA
TU !!!
TALK
A !!!
Hiria egin
Hacer ciudad !!!
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
2017
JAIALDIA / FESTIVAL
MUSIKA
ARTE
MERKATUAK
TALLERES
ZIENTZIA
TEATRO
DANTZA
EXHIBICIONES...
maiatza
19, 20, 21
mayo
www.olatutalka.eus

# JAIALDIAK
# OLATU TALKA




Olatu Talkaren inaugurazio ekitaldia.

Olatu Talka jaialdia Kultur Hiriburutzak ondare gisa utzitako proiektuetako bat da. Horregatik, 2017a oso urte garrantzitsua izan zen Donostia Kulturak eta Hiriburutzak bultzatu eta ekoitzitako jaialdi horrentzat, eta 2017an ere arrakasta handia izan zuen. **33.000 lagun** baino gehiago elkartu ziren 2017an, eta **2.000 eragile** baino gehiago aritu ziren, **174 jarduera** egiteko Olatu Talka jaialdiko hiru egunetan.

**Inaugurazio ekitaldia** udaletxeko terrazan egin zen estreinakoz eta 400 lagun elkartu zituen musika emanaldi berezia izan zen, musika mota eta estilo ezberdinak eta hainbat belaunalditako jendea elkartuta. Ederra izan zen eta oso esperientzia polita, abesbatzak eta Easo Jazz Orkestra elkartzea rock eta pop taldeekin, azken horien kantak eskainiz.

Era berean, aipatzekoa izan zen **Teresa Kalkutakoa Plazan** egin zen **Mundu Festen Topaketa.** Jendetza elkartu zen, eta oso ekimen interesgarria izan zen **kultur arteko elkar ezagutza** eta lankidetza bultzatzeko.

**Kontxa Gaumarketera** ere **jende asko** hurbildu zen, eta dagoeneko Olatu Talkako ekimen esanguratsuenen artean dago. Gau bakarretik bi gaueko jarduera izatera pasatu zen iaz eta jendearen erantzuna are hobeagoa izan zen.

Kontzertuen alorrean, **65 taldek** jo zuten hiriko hainbat puntutan **Kontzertour** kontzertu zirkuituaren barruan. Errotzen ari den proposamenen artean **Basoka** aipatu behar dago, jendea elkartu baizen **Miramongo paraje berezian** musikaz gozatzera, 500 lagun baino gehiago hurbildu ziren bertara**.**




Kontzertour Saguesen.


www.tga.cc
2017
POLTSIKO
ANTZERKIA
TEATRO
DE BOLSILLO

# POLTSIKO ANTZERKIA



*Ni ala zu,* Joseba Usabiaga.



*De todas las bellas, las más bellotas*, Cía. Aerea

**XXVI. Poltsiko Antzerki jaialdia** handikiro ospatu zen. Formatu txiki eta ertaineko antzerki-ikuskizunen jaialdiak **2.700 ikusle** inguru erakarri zituen Donostiako taberna eta aretoetan eskaini ziren **29 emanaldi**etara. Jaialdiaren **amaierako ekitaldia** urteko gertaera handien artean sartzeko modukoa izan zen.

Poltsiko Antzerkia ondo finkatutako jaialdia da, urtez urte **ikusle gehiago** erakartzen asmatu duena.



*Tulipas*, De Copivolta.

# DSS2016EU LEGATUA



*Beste hitzak / Other words.*

Europako Kultur Hiriburua izan zen Donostia 2016. urtean eta horrek eragina izan zuen Donostia Kulturaren jardunean ere. Donostia Kulturak hainbat ikuskizun, programa eta jaialdi bultzatu zituen DSS2016EUrekin batera. Batzuk 2016ko programazioa izan ziren, baina beste batzuk jarraitzeko bokazioa dute eta Hiriburutzak utzitako legatuaren zati dira. Hona hemen 2016 Kultur Hiriburutzak utzitako programa batzuk.

## BESTE HITZAK-OTHER WORDS

Pozik esan dezakegu 2017an egonkortu egin zela Beste hitzak-Other Words europar proiektua. 2016an bezala, Frisia, Irlanda, Euskal Herria, Mazedonia eta Eslovenia lurraldeetako idazleen trukea gauzatu zen 2017an ere, bazkide bakoitzak bi sortzaile kanpora bidaliz eta beste bi etxean hartuz. Hala, Herbehereetatik etorritako kazetari batek eta Irlandatik heldutako narraziogile batek Donostia hiria eta Euskal Herriko beste zenbait txoko ezagutu zituzten.

Etorkizunera begira garatutako bi alderdi nabarmendu behar dira 2017an: gure saretik at dauden hizkuntzak gonbidatu izana (Herbehereetako Het Bildt eskualdean hitz egiten den Bildts, Novi Sadeko serbiera eta Balkanetako lurretan erabiltzen den Aromaniera) eta europar ekimenetako ordezkariekin bideratutako elkarlan berezia (besteak beste, Leeuwarden-Ljouwert 2018 Kultur Hiriburutzaren baitan antolatuko den Euskal Asterako ekarpenak eginez, zehazki bertsolaritzari buruzko dokumental bat sortzeko helburuarekin).

## KIMU

Kimu programan deialdi bidez hautatutako Iparraldeko eta Hegoaldeko lau artistek haurrei eta gazteei zuzendutako arte eszenikoen inguruko berariazko trebakuntza jaso zuten urtebetez.

Programaren helburua masterclassekin eta jaialdietako egonaldiekin trebakuntza-ibilbide bat diseinatzea da, haur eta gazteei bideratutako euskarazko arte eszenikoen sorkuntza aberasteko eta dinamizatzeko. Donostia 2016k, Donostia Kulturak eta Euskal kultur erakundeak antolatu zuten Kimu programa eta 2017an **Ainara Unanue, Mikel Sarriegi, Maryse Urruty** eta **Lore Goyetche** jaso zuten haur eta gazteei zuzendutako arte eszenikoetan trebakuntza.



Antzerkigintza berriak 2017. Ezkerretik eskubira Norka Chiapusso, Miren Azkarate, Marta Monfort eta Andoni Olivares.

## ANTZERKIGINTZA BERRIAK

Proiektuaren helburua idazketa dramatiko propioa sustatzea da. Bekak eman zitzaizkien beste literatur genero batzuetako idazleei, arte eszenikoen profesionalei eta, oro har, antzerkiaren esparruan kontatzeko istorioren bat zuenari. Victoria Eugeniaren, Arriaga Antzokiaren eta Gasteizko Principal Antzokiaren laguntzak ahalbidetu zuen obra horietako batzuk (tutoreen laguntzarekin, kideen ekarpenekin eta nazioarteko masterclass batekin eraikiak) oholtzara eramatea. 2017An jarraitu zuen proiektuak eta aukeratutako obrak izan ziren: Kepa Erraztiren***Erlauntza*** eta **Tamara Gutierrezen *Galerna*.** Parte hartu zuten gainerako sortzaileak ondorengoak izan ziren: **Javier Liñera, Andoni de Carlos Yarza, Gorka Martin, Iñigo Cobo, Mikel Fernandino** eta **Raul Camino.**

## BALLET T eta ESZENA T

BALLET T 2007tik ari da jardunean, truke hirukoitzean hain zuzen ere: kultura-, arte- eta hezkuntza-trukean, denen artera ekarriz dantza-ikuskizunei ekiteko modu desberdinak, bai arte produkzioaren aldetik, bai dantzari eta koreografoen prestakuntzaren aldetik, eta bai ikusle berriak sortzeari eta sentsibilizatzeari dagokionez ere. Helburu nagusia da Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko sinergiak aprobetxatzeko bidean jartzea Donostia (Donostia Kultura) - Biarritz (Malandain Ballet Biarritz) ardatzean, ikuskizun koreografikoak ekoizteko/emateko espazioaren barruan. Lankidetza proposamen originala da, eta urte osorako jarduerak planteatzen ditu. Parte-hartze handia lortzen dute jarduera guztiek.

BALLET Tk (2007) sortutako dinamikaren eredura, antzerkian ere lanean hasi ginen ESZENA T deitu dugun proiektu batean. Hau ere kultura-, arte- eta hezkuntza trukea da, antzerkia zaleei eta oro har ikusle interesatuei hurbiltzeko xedez. Arte eszenikoetan sentsibilizatzeak eta ikus-entzule berriak sortzeak lehentasuna dute betiere Donostia Kulturarentzat. Helburu nagusia da Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko sinergiak aprobetxatzeko bidean jartzea Donostia (Donostia Kultura) - Baiona (Scène Nationale du Sud- Aquitaine) ardatzean, antzerki eta zirku-ikuskizunak ekoizteko / emateko espazioaren barruan. Lankidetza-proposamen originala da, eta urte osorako jarduerak planteatzen ditu. Honelako jarduerak, besteak beste: egonaldi artistikoak, koprodukzioak, informazio-trukea eta antzoki eta ikastaroen artean ikus-entzule eta partaideen joan-etorria bultzatzeko programak. Herritarrek ezin hobeto hartzen dituzte jarduerok.

# EKOIZPEN UNITATEA

2017an, Donostia Kulturako Produkzio Unitateak **750 ekoizpen** baino gehiago egin zituen, Victoria Eugenia Antzokian, Antzoki Zaharrean, San Telmo Museoan, Kursaal zentroan eta beste gune batzuetan egindakoak batuta.

Ekoizpenotan sartzen dira **Antzerki Feria, Giza Eskubideen Zinemaldia, Olatu Talka, Jazzaldia** eta **Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea,** bai eta Zinemaldiarekin eta beste erakunde batzuekin izandako beste lankidetza batzuk ere.

Donostia Kulturaren produkzio horiez gainera, 2017an beste entitate eta erakunde batzuei ere eman genizkien gure zerbitzuak.

**Kursaal Eszena**ren kontzertuak (musika klasikoa eta herri-musikak).

**Musika Hamabostaldia**ren kontzertuak Kursaal Jauregian, Victoria Eugenia Antzokian, San Telmo Museoan, bai eta beste gune batzuetan ere.

Produkzio Koordinazioa, Donostiako **Nazioarteko Zinemaldia**rekin batera, Victoria Eugenia Antzokian.

**Gabonetako Kontzertua** (El Diario Vasco).

**Konstituzio Plazaren 200. urteurrena eta Donostiako Orfeoiaren 120.a** ospatzeko ekitaldia, Donostiako Udalaren ekimenez.

**Alicia Amatriain** dantzari donostiarrari egindako **omenaldi**-ekitaldia, Donostiako Udalak antolatua.

**2018ko Urrezko Danborra izendatzeko** ekitaldia, Donostiako Udalaren ekimenez.



© Lolo Vasco, Bostok Photo, Gorka Bravo

Donostia Kulturaren ohiko programazioa eta jaialdiak prestatzen aritzen da Produkzio Saila.